

EUSKAL HERRIKO  
ARARTEKO ERAKUNDEAREN  
LEHEN BOST URTEAK  
1989 - 1994

© ARARTEKO

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Estudios Gráficos ZURE, S.A.

Paper erreziklatua.

I.S.B.N.: 84-87122-55-8 Liburu osoa.

L.G.: BI-737-94



EUSKAL HERRIKO  
ARARTEKO ERAKUNDEAREN  
LEHEN BOST URTEAK  
1989 - 1994

# **AURKIBIDEA**

<b>AURKEZPENA .....</b>	<b>11</b>
-------------------------	-----------

## **LEHEN ZATIA**

<b>I. ATALA. OMBUDSMANAREN JATORRIA ETA OINARRIAK..</b>	<b>19</b>
1.1. OMBUDSMANA ETA ZUZENBIDEZKO ESTATU SOZIAL DEMOKRATIKOA.....	21
1.2. OMBUDSMANA ESPAINIAKO ESTATUAN .....	22
1.3. ARARTEKOA, EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO OMBUDSMANA .....	24
<b>II. ATALA. ERAKUNDEAREN BARNE ANTOLAKETA.....</b>	<b>27</b>
2.1. GIZA BALIABIDEAK .....	29
2.2. LANGAIK.....	31
<b>III. ATALA. JARDUNBIDEA .....</b>	<b>33</b>
<b>IV. ATALA. KANPO HARREMANAK .....</b>	<b>45</b>
4.1. ARARTEKOA ETA GIZARTE ZIBILA .....	47
4.2. ARARTEKOA ETA ERAKUNDE PUBLIKOAK.....	50
<b>V. ATALA. ERAKUNDEAREN BEREHALAKO ETORKIZUNA ...</b>	<b>53</b>

## **BIGARREN ZATIA**

<b>I. ATALA. ESTADISTIKA.....</b>	<b>61</b>
1.1. KEXEI BURUZKO ESTADISTIKA .....	63
1.2. BESTE JARDUERA BATZUEI BURUZKO ESTADISTIKA.....	71

<b>II. ATALA. ERAKUNDEAREN JARDUERA SAIL EZBERDINETAN.....</b>	<b>117</b>
2.1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA .....	119
2.2. KULTURA ETA ELEBITASUNA .....	123
2.3. HEZKUNTZA.....	129
2.4. FUNTZIO PUBLIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREN ANTO-LAKUNTZA.....	135
2.5. OGASUNA .....	147
2.6. HERRIZAINGOA.....	153
2.7. JUSTIZIA.....	159
2.8. INGURUGIROA .....	162
2.9. HERRILANAK ETA ZERBITZUAK .....	171
2.10. OSASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA .....	174
2.11. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA .....	180
2.12. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA.....	182
2.13. BESTE GESTIO BATZUK.....	189
<b>AMAIA .....</b>	<b>193</b>

# **AURKEZPENA**

*Nik uste dut ezen munduko ararteko guztiek eztezaketela zure etsaia hala balaka, eta ez sosega, nola zerorrek.*

Axular, Gero (1643), XVII. kap., 294. or.

Ararteko Erakundeak jardunean emandako lehen bost urteak bete dira eta ondorioak ateratzeko ordua da, horregatik egoki iruditu zait Erakundeak 1993. urtean burutu dituen jardueri buruzko txostenari lehen bosturteko honen balioztapena egiten duen bigarren atal bat gehitzea.

Antzinean, Araban Síndico Procurador General edo itsagintzarako epaile kontsulak (Instruman) bezalakoak izan baziren ere, gure ohituretan sustrairik ez duen erakunde berri bat bidean jartzeko erronka oso erakargarria zen baina, aldi berean, zailtasun handia ere bazeukan. Euskal hiritarren eskubideak babes-teko betebeharrak are ardura handiagoa zekarkion erakunde honi, izan ere, baliabide urritasuna eta erakunde berri bat abiarazteko egin behar diren ahaleginak ezin baitziren aitzakia izan, eta lehen momentutik lanari ekin behar zitzaion, Administrazioarekin arazoak zeuzkaten hiritarrengan sortutako itxaropenak ustel atera ez zitezen.

Laguntzaile talde txiki batekin ekin genion lanari Legebiltzarrak bere egoitzan utzitako gela batean, gogoz beterik baina baita eskarmentu falta handiaz ere.

Garai hartan ombudsman ikasle zen honek beste herri defendatzaileekiko harremanetan bilatu zituen lehen irakaspenak, haien esperientziatik gure herriaren premietan zerbitzari izatea den egiteko zail honetan ikasiz joateko.

Bost urteon buruan lankide min batzuek beren postuak utzi egin dituzte, eta Ararteko honek ateak zabaldu dizkie izendatu diren defendatzaile berriei. Síndic de Greuges gisa lanean azken unerarte tinko aritu zen Frederic Raholaren heriotzak hunkituta utzi gintuen, baina aldi berean, hiritarren eskubideen defentsaren alde jarduteko norberaren osasuna ere ahaztu egin behar dela erakutsi zigun.

Bere ordezkoa, Anton Cañellas duintasunez jarraitu zaio hark urratutako bideari.

Luis Cobiella, Kanarietako Diputado del Común deituak, eta Aragoako Justicia izan zen Emilio Gastonek berarizko gizatasuna eta poeta-sentiberatasuna azaldu zuten, eta aldiz, Arcadio Díaz Tejera eta Juan Bautista Montserrat haien jarraitzaileek, zentzu juridiko sakona eman diete beren jardueri.



Alvaro Gil-Robles Herri Defendatzailea, lehen pausoak ematen ari zen erakunde honekin elkarlanean aritzeko prest azaldu zen hasieratik.

Margarita Retuerto, gaur egun behin-behineko Herri Defendatzailea denak, nire jardueran gida izan dudana pentsamendua agertu zidan: "ez gaude errudunak bilatzeko, konponbideak aurkitzeko baizik".

Herri Defendatzailetzan aspaldidanik diharduen Manuel Conde Pumpido legelari bikainak, bere ezagutza juridiko sakonak eta zentzutasuna eskaini dizki-gu.

Ombudsmanen talde honetan beste batzuk sartuz joan dira: José Cora Rodríguez, Valedor do Pobo eta Valentziako Komunitate Autonomoko Sindic de Greuges deitua, Arturo Lizón Giner, eta horrek pozez betetzen gaitu, erakundea komunitate autonomo ezberdinetan sustraiak botatzen ari dela erakusten digulako.

Europa osoko ombudsmanekin dauzkagun harreman<sup>on</sup> eta emankorrek Gasteiz hiri honetan Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarra antolatzeko aukera eman ziguten.

Ararteko hau Ombudsmanaren Institutu Europarreko lehendakariorde aho batez aukeratzea hunkigarria izan zen niretzat, eta poz bizia eman zidan euskal erakunde bat European ezagutzera eman zela ikusteak; Telesforo Aranzadiik esana etorri zitzaidan orduan gogora: "Euskal Herria ez da enbor bitxi bat Europako mendebaldean."

Bost urte hauetan jaso adina kexa bideratu ditugu; berarizko ikerketak hasi, auzitan zeuden aldean arteko bitartekaritza lanak egin eta agintari publikoek arauak aldatzeko gomendioak eman dizkiegu.

Hala ere, lan horiek guztiak ezin egingo genituen giza eskubideen aldezenaren konpromezuan arduratsu eta buru-belarri aritu den taldearen laguntza eduki izan ez bagenu.

Arartekoa pertsona bakarreko erakundea den arren, ezin dugu ahaztu buru den honetaz eta Jesús M<sup>a</sup> Arteaga Ondokoaz gain, horiek direlarik Erakundearen aurpegi publikoak, lege onez aipatu behar dudana lantalde bat ere egon dela, zeinari eskertu nahi baitizkiot bere lana eta kemena: Faustino López de Foronda, Lege-Aholkularitza saileko burua; Valentín Martínez, Administrazio eta Langileen zerbitziburua eta Iñaki Etxeberria, kanpo harremanetarako arduraduna.

Lege-Aholkularitzan: Jaione Agirre, Alex Andía, Iosune Etxeberria, Idoia Llano, Iñaki Mendieta, Josune Oiarbide, Fernando Vázquez eta Eduardo Ruiz Vieytez.

Administrazio eta Langileen sailean: Joxe Ramon Barandiaran, Marco Barcenilla, Manu Díaz de la Bárcena, Miren Kerejeta, Lurdes Lekuona, Juan Luis Llano, Nieves Martínez, Nati Monforte, Nieves Oca, Amaia Pagola, Rosa Sudupe eta Jose Miguel Ortiz de Elguea.

Talde honen osakera denboran zehar burututako lana izan da, eta lan hori piskanaka egitea nahiago izan dut, postu bakoitzerako ikuspegi tekniko nahiz giza mailakotik egokiena izango zen pertsona bilatzeko.

Bost urte hauek oso emankorrak izan dira geurekiko ere, Arartekoari berez dagokion zeregina dela medio, kexa aurkezten zuten hiritarrentzat oso garrantzitsuak ziren arazoak konpontzea lortu delako.

Euskal gizartea bera eta bere kezka nahiz premiak sakonean eta gertutik ezagutzeko lagungarri gertatu zait. Ezagutu dudana Legebiltzarrari aurkeztutako txostenetan agertzen saiatu naiz, bertan esandakoak kontutan har ditzan.

Kalaboetara, ospitale psikiatriko edo adinekoen egoitzetara egindako bisitaldiek gizartearen alde mingotsa erakutsi digute, askok, egoera hori deserosoa delako, ahantzi egin nahi badute ere; alabaina, agintari publikoak eta iritzi publikoa horren berri jakin beharrea daude, gizatalde horien premiarik larrienak betetzeko beharrezko neurriak har daitezten.

Rafael Sánchez Ferlosio idazleak *Vendrán más años malos y nos harán más ciegos* izenburua jarri dio bere azken liburuari. Ezin dugu utzi pentsamendu horren ugerra gure gizartean gauza dadin. Norberekeriaitsuak eta elkar ezin eramanak elkartasunari eta gizarte-justiziarri egin beharko diete leku berri-oro ere.

Erakundeetan jasotako kexak biltzen dituzten sailetan zer-nolako arazoak azaleratu diren tajuz antolaturik azaltzen saiatu gara liburu honetan; era berean, Arartekoak emandako erantzuna eta lortutako emaitzak ere jasotzen dira, bosturteko honetan burutu dituen jardueren datu estatistikoekin batera.

Erakundea eta bere jarduna ezagutzen lagunduko duten atalak ere badaude. Horrela, bere barne-antolaketa, berez duen jardunbidea, harremanak eta etorkizuna ere aztertzen dira.

Azkenik, Arartekoaren Legeak berak agintzen duen eran, Euskal Autonomi Elkartearen giza eskubideek bizi duten egoeraren balioztapena egin behar denez, egoera horren berri emango dugu Erakundeak bost urteotan urratu duen bidearen ikuspuntutik begiratuta.

Liburu honetan Arartekoa hobeto ezagutzeko baliagarri izatea espero dut, eta euskal instituzioen artean leku garrantzitsua bete behar duen erakunde honen lan emankorraren hasiera baino ez izatea.

ARARTEKOA

JUAN SAN MARTIN ORTIZ DE ZARATE

**LEHEN ZATIA**

I. ATALA

**OMBUDSMANAREN JATORRIA  
ETA OINARRIAK**

## 1.1. OMBUDSMANA ETA ZUZENBIDEZKO ESTATU SOZIAL DEMOKRATIKOA

Estatu liberala behin-betiko gainbeheran hasi eta haren ordez Zuzenbidezko Estatu sozial demokratiko bat sortu da mende honetan, eta hori gertatzeko arrazoiak batez ere hiru izan dira: alde batetik, mende honetako lehen erdian bizi izan ziren esperientzia txar eta lazgarriak (arraza edo erlijio batzuen nagusitasuna defenditzeko aitzakiaz zapalkuntza eta sarraskiak egin eta funtsezko giza eskubideak bortxatu zituzten diktadurak); bestetik, 1914ko eta 1939ko mundu osoko gerrateak; eta, azkenik, maila orotan guztiz garrantzizko eraginak izan zituzten aldaketa ekonomiko eta teknologikoak, Mauro Cappelletti-ren hitzak erabiliz, "norbanako eta gizataldeei burua nahasteko ahalmena duten hiri-multzoak" sortu zituztenak.

Estatu-eredu berri horrek erakunde-sistema liberalaren oinarri berberak dauzka, alegia: legearen nagusitasuna, arau-sistema hierarkikoa, Administrazioaren legezketasuna, botereen banaketa, funtsezko eskubide eta askatasunen aitortpen eta bermea, eta, kasu batzuetan, legeen azterketa konstituzionala; baina, gainera, eskuhartzearen aldeko politika sendo bat ere hartzen du, eskubide eta askatasun horiek beren aitortpen formal hutsean gera ez daitezela.

Egokiera berri honetan, oso nabarmena da Estatu liberalak konstituzionalismoaren dogma edo sinesgai klasikoa -alegia, bere mendeko pertsonak errespetatu nahi dituen gizarte-agintek funtsean mugatuta egon behar duela- ziurtatzearen ezarritako kontrolbide ohizkoak ez direla aski. Agintari publikoei alor gehienetan esku hartzeko gero eta gehiago eskatzen zaenez gero, administrazio publikoek gero eta esparru gehiagotara zabaldu behar izaten dute beren ekintza, eta horregatik beharrezkoa da administrazio-ekintza hori ikuskatzeko dauden ohizko tresnei beste batzuk eranstea.

Arrazoi horretxek azaltzen du Ombudsman irudiak XX. mendeko bigarren erdi honetan izan duen zabalkunde handia; izan ere, horrelako kontrolbideen hutsuneak nabariak ziren sistema konstituzionalen egituraketa instituzionalan txertatu izan da.

Nahiz eta irudi horrek itxura ezberdina hartu barne jaso duten lege-antolaketa (Médiateur, Commissionner for Administration), eredu bakarra dauka, Suediako Ombudsman deritzana, hain zuzen ere. Harengandik jasoak ditu bere ezaugarririk funtsezkoenak, batez ere Administrazioa ikuskatzeko

erakunde bat izatea, hiritar guztientzat irekia, eta bide ez-formal eta bizkorren bitartez jarduten duena.

Dena dela, Suediako Ombudsmanaren sorrera eragin zuen egoera historikoak ez du zerikusi handirik hemen aipatu ditugunekin. Izan ere, Suedian, Ombudsman erakundearen sorrera oso loturik dago hango Estatu konstituzionala eratzearekin, eta erregetza absolututik konstituzionalismorako pausoa XX. mendea nahiko aurreratuta egon arte ez zela finkatu esan behar da. Hor-taz, Legebiltzarrak, bilduta ez zegoen bitartean, Administrazioaren jarduna ikuskatzeko zituen ahalmen urriak gehituz oreka lortzeko tresna modura osatu zen Suediako Ombudsmana.

Erakunde hori berez halako sistema juridiko-politiko batean eta halako egoera historiko berezi batean sortua bada ere, bere zabalkundearen eta kontrol-tresna osagarri bezala lortu duen gero eta erabilera handiagoaren arrazoiak berez erakunde horrek eskaintzen dituen beste alde onak dira.

Alegia, antolaketa jurisdikzionalaren auzibidearen aukera motel, garesti eta korapilatsuaren aldean, Ombudsmanak, bere ezaugarriak zehaztean esan dugun bezala, halako prozedura bizkor, ez-formal eta, gainera, doanekoa eskaintzen du. Orobat, antolaketa jurisdikzionalan nagusi den eskaera-irizpidearen aurrean, ombudsmanek, kasu gehienetan, inolako kezarik jaso gabe berariz jarduten hasteko ahalmena daukate, eta horri esker administrazio-ekintzaren edozein alor iker dezakete.

Beste alde batetik, Ombudsmanak esku hartzeko duen esparrua epaile bati dagokiona baino zabalagoa da. Egile batzuek ohartematen duten bezala, Ombudsmanak Administrazioa akuilatzen edo bultzatzen duen "limurtze edo iritzi mailako magistratura" baten antzera jokatzeko du, ez baitu bidegabekeriak antzematen direnean bakarrik esku hartzen; izan ere, egokiera-irizpideetan oinarrituz, Administrazioaren jardunerako aldaketa egokiak proposatu ere egin dituzte eta, orobat, Administrazioaren jokabide txarra legeak eragin duenean, berori alda dezaten eskatzen die legegintzarako ahalmena daukaten titularrei. Bestalde, ezin aipatu gabe utzi Ombudsmanak zerbitzu mailakoak diren gizarte-eskubideen alde egin dezakeena. Bada, egile batzuek adierazi duten bezala, Administrazioak garrantzi erabakiorra dauka era horretako eskubideak egiaz gauzatzeko orduan, berari baitagokio eskubide horiek bermatzeko dauden oztopoak kentzea administrazio-eskuhartze egoki baten bitartez. Hain zuzen ere, Ombudsmanari dagokion ikuskapen eta bultzatze betekizun hori gizarte-eskubideen alor horretxetan da benetan erabakiorra.

## 1.2. OMBUDSMANA ESPAINIAKO ESTATUAN

Espainia Zuzenbidezko Estatu sozial demokratiko moduan eratu den oraingo demokrazia aldiari hasiera eman zion 1978ko Konstituzioak Herri

Defendatzailearen sorrera jasoa zeukan 54. artikuluan; horrela, jatorriz eskandinaviarra den ikuskapen-tresna hori beren baitan hartu zuten sistema konstituzionalen bide beretik jo zuten.

Aipatutako 54. artikuluko horrek zioen bezala, Herri Defendatzailea erakundearen arauketa garai hartan eginkizun zen lege organiko baten bidez egingo zen (hemendik aurrera, HDLO deituko diogu lege organiko horri). Nolanahi ere, hari buruzko definizio labur bat ere jasotzen du, legegileak irudi hori Suediako Ombudsmanaren tradizioz onenarekin uztartzeko zeukan asmoa oso ondo islatzen duena: alegia, "Gorte Orokorretako komisio gorenaren, hauek izendaturik Titulu hontan barnetzen diren eskubideen defentsarako, berauen ondorioetarako Administrazio ekintzak gainbegira dezake, Gorte Orokorreiko kontua eskainiz".

Dena dela, Ombudsmana ez zen eztabaida franko piztu gabe sartu Espainiako sistema konstituzionalean, bai Konstituzioa osatzeko unean, bai esandako HDLO hori prestatzean ere. Hori ez da harrizkoa, gogoan hartzen bada nolako zailtasunak zeuden ontzat emateko Suediakoa bezalako sistema juridiko-politiko guztiz berezi batean sortutakoa eta, beraz, gurearen oinarrian dagoen Frantziako eredu kontinentaletik oso urruna den erakunde hori. Horrela, auzitan eta zalantzan jarri dira maila jurisdikzional batzuetan Herri Defendatzaileari emandako auzibide-legegaitasuna, bai eta jurisdikzio mailako sustapen-ekintza bera, fiskalgora bezalako beste herri-ministeritza batzuekin duen harremana, etab.

Gorabehera horiek alde batera utzirik, eta Euskal Autonomi Elkartearen Ombudsman bereziari buruzko azalpena etorritik, gogoraraz dezagun konstituziogileek Konstituzioaren VIII. idazpuruan lurraldearen dezentralizaziorako aukeratu zuten antolakuntza ereduak ez duela inolako eraginik Herri Defendatzailearen arauketa konstituzionalean, Gorte Nagusien kargudun bakarra finkatzen baitu.

Hala ere, Konstituzioaren beste iragarpen batzuk direla bide, esate baterako, autonomi estatutuetan agertu behar duten edukien artean erakunde autonomoen izena, antolaketa eta egoitza aipatzen dituen 147.2. c) artikulua, posible izan da autonomi elkarteetan ere antzeko irudiak sortzea.

Gauzak horrela, gero eta herrialde mailako ombudsman gehiago sortuz joan dira autonomi elkarteetako erakunde bereziak garatuz joan diren heinean, eta Estatu mailako Herri Defendatzailearen antzeko ezaugarriak; horregatik, erakunde edo irudi hauen guztien arteko harremanen oinarrietan egon behar duten irizpideei buruzko elkarrizketa bati ekin beharko litzaioke, bai eta aztertu ere nolako aukerak ematen dituen herrialde mailako ombudsmanak edukitzeak demokrazia aurreratua duten herrien bereizgarri diren ikuskapen-tresnak finkatu eta sendotzeko borroka etengabea. Puntu horretaz geroago jardungo gara, Euskal Autonomi Elkartearen Ombudsmana den, Arartekoaz bereziki mintzatzen garenean.

### 1.3. ARARTEKOA, EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO OMBUDSMANA

Espainiako Konstituzioko 147.2. c) artikuluko horren babesean, Euskal Herriko Autonomi Estatutuak bere 15. artikuluan sartu zuen Espainiako Konstituzioko 54. artikuluko zioenaren antzeko organo bat sortzeko ahalmena, harekin batera lan eginez hiritarren eskubide eta askatasunen alde, Administrazioa ikuskatzeko zeregina berbera eta Eusko Legebiltzarrak agintzen zizkion gainerako eginkizunak ere betetzeko.

Dena dela, estatutuaren iragarpen hori garatu zen arte denbora luze samarra igaro zen.

Horrela, 1982. urtean, Euskal Sozialistak legebiltzarkide taldeak lege-proposamen bat aurkeztu zion euskal kamerari, baina ez zen aurrera atera, HDLOko aginduak bai, baina gure elkartearen bereizgarriak ez zituela jasotzen iritzi ziotelako.

Geroago, 1983an, Jaurlaritzak beste lege-egitasmo bat aurkeztu zuen, baina hari buruzko eztabaida derrigorrez atzeratu beharra gertatu zen, kamera desegin eta hauteskundeetarako deia egin zelako.

Lege-egitasmo hori bera 1984ko ekainean itzuli zen Legebiltzarrera eta, hango ohizko biderapenak burututakoan, Ararteko Erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legea sorrarazi zuen.

Bertan abiapuntutzat hartzen den ereduari begiraturaz gero, zioen azalpenean adierazten den bezala, Ararteko Erakundea Eskandinaviako Ombudsmanaren tradizioaren bidetik sortua da, alegia, askatasun eta eskubideak babesteko, Administrazioaren ekintza jardunbide bizkor eta ez-formalen bitartez ikuskatzen duen legebiltzar-karguduna da.

Alabaina, ez dugu uste puntu horretan gehiago sakondu beharra dagoenik, nahikoa aztertu eta balioztatu baitugu, Ombudsman erakundea Zuzenbidezko Estatu sozial eta demokratikoen bereizgarri den kontrolbide gehigarri baten antzera hartzean.

Aitzitik, lehenago ere aipatu dugun bezala, beste puntu batzuk dira gure ustez azpimarratu behar direnak, herrialde mailako Ombudsmanak eskaini ditzakeen aukerak esate baterako.

Horri dagokionez, Juan San Martin Ortiz de Zarate jaunak, erakunde honen titularrak, Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarrean aurkeztu zuen "Herrialdeko Ombudsmanaren garrantzia" izeneko mintzaldiaren edukia ekar genezake orriotara.

Mintzaldi horretan, herrialdeko Ombudsmanak kontrolbide eraginkor bezala eskaintzen dituen aukerak aztertzen dira, Donald C. Rowat irakaslearen esanetan erakunde horrek bere zabalkundearen arrakasta edukitzeko behar dituen ezaugarrietatik abiatuz.

Ondorioak garbiak dira. Jakina, herrialde mailako Ombudsmanak lurralde-esparru mugatuagoan lan egiten duenez gero, aukera hobeak dauzka haietako ezaugarri batzuk bete ahal izateko; honako hauek, adibidez: hiritarrek erakundera zuzenean jo ahal izatea batetik, eta, bestetik, Ombudsmanaren



bulegoa ezagunagoa izatea, hiritarrentzat eskurago egoteko. Horregatik guztiagatik, herrialdeko Ombudsmana oso egile eraginkorra izan daiteke hizkuntzan, arrazan edo erlijioan oinarritutako arrazoiengatik gertatzen diren bazterkerien kontrako eta zerbitzu maila duten gizarte-eskubideen aldeko borrokan.

II. ATALA  
**ERAKUNDEAREN BARNE  
ANTOLAKETA**

Ararteko Erakundeak jardunean emandako lehen bost urteetan eduki duen barne-egitura eta antolaketak erakunde sortu berriak izaten dituen ohizko gorabeherak bizi izan ditu, eta behin-betiko antolaketa ez da azken urte hauek arte finkatu.

Halere, erakunde honen jardunerako oinarrizko organigramaren lehen zirriborroa Arartekoa sortu eta arautzen duen Eusko Legebiltzarraren 3/85 Legean egina zegoen. Aldi berean, eta arau horrek bigarren xedapen gehigarrian iragartzen duenaren arabera, Arartekoak onartu zuen Erakundearen Antolaketa eta Jardunerako Araudiaren bidez garatu zen diseinu hura.

Erakundearen barne-antolaketaren deskribapen osoa egiteko, alde batetik giza baliabideen egoera aztertuko dugu, eta bestetik, lanerako bitartekoena. Horrela, lehenik Erakundearen ohizko jardunerako organigramaz hitzegingo dugu, zeregin bakoitza betetzeko dauden giza baliabideak aipatuz, eta ondoren, eguneroko lanean eragin handia daukaten langaiei buruz arituko gara.

## 2.1. GIZA BALIABIDEAK

Lanen eta zereginen banaketari eta batzuetarako eta besteetarako dauden giza baliabideei dagokienez, berriro esan behar dugu gaur egun dagoen diseinua lehenago aipatutako legeak eta araudiak finkatutako antolabideari darraiola.

Hiritarren oinarrizko eskubideen defentsarako Eusko Legebiltzarraren ordezkaria edo Arartekoa pertsona bakarreko organua da, hierarkian Arartekoaren Ondokoaren gainetik dagoena; Ondokoak Arartekoari bere zereginetan laguntzen dio eta, beharrezkoa denean, Arartekoaren ordezko lanak eta hark bere esku utzi nahi dituen ahalmenak egiteratzen ditu. Horrela, bada, Arartekoak berak izendatzen du Ondokoa, Legebiltzarraren onespenezkin.

Beti Arartekoaren zuzendaritzapean, edo hala dagokionean Ondokoarenean, Erakundea bi departamendu edo sailen bidez eratzen da, eta horien buru ere pertsona bakarrek egiten dute, Departamenduburuek. Hortaz, bi sail daude Erakundearen elkarren ondoan: Lege-Aholkularitza eta Administrazio eta Langileen zerbitzua.

Orobat, Erakundearen barne antolaketa edo eguneroko lanei buruzko erabakiak Koordinaziorako eta Barne Jaurpiderako Batzarrak hartzen ditu. Kasu honetan, sail kolegiatu bat daukagu, Arartekoa buru duenarij beste per-

tsona hauek osatzen dutena: Ondokoa, Administrazio eta Langileen Burua eta Lege-Aholkularitzako Burua, sailaren idazkari lanak ere egiten dituen.

Kanpo harremanetarako arduraduna ere badauka Erakundeak, batez ere komunikabideekin izaten diren harremanez arduratzen dena.

Arartekoari izendatuta dauzkan lanak burutzeko behar duen laguntza tekniko-juridikoa ematea da Lege-Aholkularitzaren eginbeharra. Horretarako, gaien arabera esparru berezietan banatua dago. Gaur egun sei gai-esparru edo alor daude, eta horien buru beste horrenbeste lege-aholkulari daude:

- Hirigintza eta Etxebizitza
- Ogasuna eta Justizia
- Ingurugiroa
- Funtzio Publikoa
- Herrizaingoa
- Hezkuntza eta Osasuna

Adierazitako esparruen arabera kudeatzen diren gaiez aparte, eta horiek dira Erakundearen bideratzen diren espediente gehienak biltzen dituztenak, beste era batzuetakoak ere iristen dira Arartekora, jasotako kexak sistematikoki biltzen dituzten esparruetan (Lana eta Gizarte Segurantzak; Kultura eta Elebitasuna; Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa; Herrilanak eta Zerbitzuak; Beste gestio batzuk) ezin sar daitezkeenak. Horrelakoetan antolamodu malgua erabiltzen du Lege-Aholkularitzak, alegia, aldian aldiko premia eta egoeraren arabera, aholkulari batek edo bestek bideratzen ditu.

Lege-Aholkularitzako Buruaren artezkaritzapean beste bi zerbitzu daude. Lehenengoa Hiritarrentzako Informazio Zerbitzua da, Arartekora jotzen duten pertsonekin hitz egin eta daukaten arazoa Erakundearen zerbitzuek bideratzeko modukoa den adierazten diena, eta kasu bakoitzean, hiritarrak azaltzen duen gaia ebazteko eman behar dituen pausoak ezagutarazten dizkiena.

Era berean, Erakundeko aholkularitza zerbitzuen eskura dagoen Agiri eta Liburutegi Zerbitzua dago, Lege-Aholkularitzari atxikia eta liburuzain lizentziatu batek kudeatua, organikoki zuzenean sail horretako Buruaren pean dagoena.

Administrazio eta Langileen Zerbitzuari dagokienez, sail horren arduradunaren zuzendaritzapean dihardute Erakundearen ohizko lanetarako beharrezko diren zerbitzu tekniko ezberdinek. Horrela, erredakzio eta itzulpen zerbitzua, kontabilitate zerbitzua, errolda orokorra, zerbitzu tekniko-informatikoa eta administrazioarako zerbitzu orokorrak daude.

Ararteko Erakundeko langileen araubideari dagokionez, konfidantzako edo aholkularitza bereziko postuetan dauden langileak Arartekoak hautabidez izendatzen ditu. Aldiz, Ararteko Erakundeko beste langileek Eusko Legebiltzarreko langile izaera daukate eta erakunde honi atxikita daude. Nolanahi ere, langile horiek bete-beteko jardunean burutzen dituzte beren egitekoak.

Azaldu den guztiaren ildotik esan daiteke Ararteko Erakundeak gaur egun giza baliabideen antolaketari buruzko oinarritzko eskema osatua duela, nahiz eta oraindik Lege-Aholkularitza eratzen duten esparruak erabat garatzeke

egon, eta horretarako giza baliabide gehiago behar dira, batez ere gehituz doan buruz gaineko lana nabarmen antzematen den alorretarako. Une honetan, Arartekoaz eta Ondokoaz gain, Lege-Aholkularitzan 8 pertsona daude eta beste 15 Administrazio eta Langilego zerbitzuan, guztira beraz 25 pertsonaz osatua dago Erakundeak.

## 2.2. LANGAIAK

Beste edozein sailek bezalaxe beharrezko bizkortasun eta arintasuna lortzeko, bai eta Arartekoaren bulego honek dituen premia bereziak aseko zituen ekipo informatikoaz hornitzeko ere Erakundeak egin dituen ahaleginak azpimarratuko ditugu langaiei buruzko atal honetan.

Une hauetan, Tècnics en Automatizació d'Oficines S.A. (TAO) enpresak egindako diseinu informatiko propioa dauka Arartekoak, eta horren bidez lan hauek egin daitezke:

- Espediente guzti-guztien tratamendu automatizatua; horri esker une oro bizkor eta erraz espedienteak zein biderapen-alditan dagoen, zein antola edo lan egin diren, etabar jakin daiteke.
- Erakunde honetan kudeatzen diren agiri guztien kontrol zehatza.
- Egindako lanaren azterketa estatistikoa, urteroko txostenetan jasotzen diren emaitzen iruzkin eta azterketak burutzeko funtsezkoa.

Erakunde honi dagokion behin-betiko egoitzari buruzko gaia ere aipatu behar da, hartzen duen espazio fisikoak eragin handia duelako antolaketa mailan. Legebiltzarren laguntzeko erakundeak edo haren ordezkaria den aldetik, hasieran Legebiltzarrean bertan kokatu zen Arartekoaren bulegoa. Alabaina, jarduerak gehitu ahala, giza baliabideak ere areagotu egin behar izan ziren, eta lehen egoitza horretan jarraitzerik ez zeukanez gero, egun Dato kaleko 20. zenbakian duen behin-behineko egoitzara aldatu zen.

Dena dela, egungo egoitzaren ezaugarriek beste arazo batzuk ekarri dizkigute urte luze hauetan Erakundearen lana eratzeko, eta horrek garbi erakusten du nolako garrantzia daukan premia bereziei egokitutako lan-bitarteko egokiak edukitzeak.

Bestalde, behin-betiko egoitza egokia edukitzeko premiaren beste arrazoi bat Arartekoari beren arazoa aurkeztu nahi dioten hiritarrentzat Erakundearen kokapen fisikoak duen garrantzia da. Horregatik, behin-betiko egoitzak erraztasunak eman beharko lizkieke hiritarrei euskal administrazio publikoen jardueren kontrako erreklamazioak aurkezteko, edo gure Autonomi Elkartearen giza eskubideak babesteko bidean aintzat hartu beharreko laguntza-erakunde izan dadin.

III. ATALA  
**JARDUNBIDEA**

Arartekoa sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak berak zehazten ditu legebiltzar-kargudun honen jardunbide nagusiak.

Haien artean, lehendabizi alderdi interesdunak eskatuta hasitako ikerketak aipatu behar dira, "kexa" izenez ezagunagoak, bai eta bakoitzari dagokion espedientearen biderapena ere.

Lehenago esandako 3/1985 Lege horretako 17. artikuluan jasota dagoen lehen jardunbide honetaz, esan dezagun hori kudeatu edo bideratzeak lan handia egitera behartzen duela, zorrotz eta egoki betetzekotan.

Legeko 17. artikuluko horrek hitzez hitz "Arartekoak (...) doakionak eskatuta ekin ahal izango dio argipideketari" badio ere, Arartekoak ez dauka azaltzen zaion auzi batean esku hartu ala ez erabakitzeko ahalmenik. Bestela esanda, Arartekoari esku hartzeko eskaria iristen zaionean derrigorrez hasi behar du dagokion espedientearen biderapena, eskaria ez onartzeko geroago aipatuko ditugun zertzeladak gertatu ezean.

Bestalde, 17. artikuluko horretxek dioenez, Arartekoak bere kabuz arauz-kontrako egoeraren baten berri jakinez gero, berariz ekin ahal izango dio ikerketari. Hau bai, aukerako jarduera da eta, arestian aipatu kasuan ez bezala, Arartekoak badauka halako arazo batean esku hartu ala ez erabakitzeko ahalmenik.

Jakina, era honetako jardunbide edo ekintza bati ekiteko aukera langaien eta giza baliabideen araberakoa da. Dena dela, bitartekoak urriak izanik ere, Arartekoak sarri askotan erabili du jarduteko aukera hori, berez Ombudsman delakoaren berri zabaltzeko eta kontrolbide hori gero eta sustraituagoa egon dadin guttiz baliagarria baita.

Amaitzeko, 17. artikuluan ezarritakoari jarraituz, ikerketa horiek Legebiltzarraren Giza Eskubideei buruzko Batzordeak, argipideketarako batzordeek edo legebiltzarkideek bakoitzak bere aldetik ere eskatu ahal izango dituzte.

Oso interesgarria iruditu zaigu 1989ko gure lehen txostenean sartu zen "Kexaren iterra" izenpean espediente-biderapenaren azalpena oso-osorik ekartzea orriotara:

## “A) **Hasiera eta aurkezpena**

Arartekoak emango dio hasiera prozedurari, bai ofizioz bere bideetatik egoera irregular baten berri jakiten duenean, edo bai alderdi baten eskariz.

Legebiltzarrak, Giza Eskubide Batzordearen bitartez, edo Ikerketa edo Inkesta Batzorde baten bidez, edota parlamentariak beren aldetik proposatu ahal izango diote Arartekoari ikerketa bat hastea, eta hortik ateratzen den ondorioa Legebiltzarrari jakineraziko zaio txosten arrunt baten bitartez.

Edozein pertsona fisiko edo juridiko, inolako murrizketarik gabe, zuzendu ahal izango zaio Arartekoari, honek botere publiko baten aurrean ihardun dezan eskatuz; eta hala, oso zaila da topatzea beste erakunde bat bertara iristeko hain bide zuzena ematen diona hirikideari, horretarako ez bait da eragozpena -besteak beste- ez nazionalitatea, ez adingabetasuna, ez legezko ezgaitasuna, eta ezta gartzelan edo giltzapean egotea ere.

Zerbitzua dohain da, Arartekoaren, iharduketa orok hala direlako pertsona interesatuarentzat, eta ez da beharrezkoa abokatua bertan egotea eta ezta prokuradorea ere.

Kexak ahoz nahiz idatziz aurkez daitezke, euskaraz nahiz gazteleraz.

Baldin eta kexa ahoz nahi bada aurkeztu, prozedura erraza da; behin kexa jarri nahi duenak Erakundearen egoitzara agertzen denean, zeinak Vitoria-Gasteizko Erakundeko pertsonalak azaltzen duen kexa entzungo dio eta ondoren, berak aukeratu duen hizkuntzan, hitzez hitz idatziko da horretarako propio prestatu den inprimaki batean, idatzitakoa irakurriko zaio, eta ados baldin badago, kexa izenpetuko du.

Kexak honako betebeharrak hauek kunplitu aurkeztu behar dira:

a) Interesatuak aurkeztu behar ditu, idazki baten bidez arrazoiak emanez -kexaren gaiarekiko bidezko interesa agertu behar du-, eta garbi adierazi zein den bere nahia. Eta idazkiarekin batera kasua argitzeko balio izan dezaketen agiriak ere aurkeztu beharko ditu.

b) Kexaren gaia den gertakaria edo egintza jazo zenetik Arartekoari aurkeztu zaion bitartean ezin du igaro urte bete baino gehiago.

Estatuko beste ordezkari parlamentariak egin dutenaren antzera, ez zaie ezarri azkeneko baldintza hau Erakundearen funtzionamenduko lehendabiziko hilabeteetan jaso diren kexei. Aldiz, Arartekoan berak ofizioz ekiten dionean iharduketaren bati, berau ez dago inolako preklusio-eperen menpe eta hala, epetik kanpora aurkeztutako kexek Erakundearen iharduketa eragin dezakete, Arartekoak ofizioz hastea erabakitzen badu.

## B) **Barne-prozedura**

Prozedura hirikideek aurkeztutako dokumentuak hartzearekin batera hasten da. Dokumentuak aurkezteko bi modu daude, edo Erakundearen



egoitzan zuzenean edo postaz bidaliz bestela, azkeneko bide hau delarik ohizkoena.

Dokumentazio hori Arartekoak eta bere Ondokoak berehala aztertuko dute eta dokumentuak datatu eta erregistratu egingo dira, eta kexaren hasierako idazki bat baldin bada, espediente bat irekiko da bere karpeta-rekin eta baita fitxa bat ere, non jasoko diren kexaren tramitazioan zehar egin diren iharduketa oro.

Ondoren, eskaera egin duenari hartuagiriaren ofizio bat bidaliko zaio, non jaso eraziko den kexaren edo eskari-idazkiaren harrera, izendatu zaion zenbakiarekin, oharteraziz kexaren aurkezpenak ez dituela inoiz geldieraziko legetan aurrez ezarrita dauden epeak bide administratibo nahiz jurisdikzionalerik errekurtsioa egiteko, eta ez duela ere geldieraziko dagozkion egintza edo ebazpenak betetzea. Gainera, hartuagirian jar eraziko da kexa aztergai dagoela, onartzen den ala ez den erabakitzeke.

Ondoren Ondokoak, Arartekoarekin koordinazioan, kexaren lehen irakurketa egingo du, den gaiaren arabera, kexari buruzko auziak banatuta dauden Administrarritza-arloetako bati behin-behinean esleitzeko. Era berean, kexaren tramitazioa Arartekoari dagokiona den ala ez begiratu du, eskaera egin duenaren legitimazioa, betebeharrak formalak bete diren, presa handikoa den berehalako tramitazioa hastearren, eta egiaztatuko du ea auzia Autonomia Komunitatean dagoen Estatuko herri-Administrarritzako Sailen baten kompetentzia den, zeren eta hala balitz Estatuko Defensor del Pueblo-ri igorri beharko bait zaio, bera delarik, kexa bidezkoa bada, tramitatu behar duena Estatuko Administrarritzaren aurrean. Horrez gainera, kexa partikularren arteko auzia den aztertuko du, eta hala izatera berehalatik emango zaio ezetza.

Espedientea aholkularitzara pasako da informe eta tramiterako, hor Aholkularitzako Buruak gaiaren arauera banatuko du kexa, dagozkion arloko aholkulariari esleitzeko diola.

Baldin eta aurkeztu diren dokumentuak ez badira argiak edo behar hainbestekoak kexaren behin-behineko kalifikazio bat egiteko, eskaera egin duenari idazki bat bidaliko zaio, datu gehiago emateko eskatuz eta, bitartean, iharduketa denak geldieraziko dira.

### **C) Onartzea eta ez onartzea**

Kexa bat ez da onartuko balizko kasu hauek ematen direnean:

a) Izenik gabe aurkezten diren kexak, eskaera denak idatziz eta interesatuak izenpetuta aurkeztu behar bait dira, izena, abizena, helbidea eta ahal bada telefono zenbakia adieraziz.

b) Kexa aurkeztean interesatuaren aldetik asmo txarra dagoela nabari denean, edo somatzen denean prozedura gehiegikeriaz erabiltzen dela, Administrarritza geldierazi edo asaldatu asmoz.

c) Kexak bidezko eta legezko interesik agertzen ez duenean.

d) Kexak funtsik edo helbururik gabeak edota eritzi pertsonal hutsak direnean. Horregatik, interesatuak aurkezten dūen izkribuak motibatua egon behar du, eta gutxieneko argudiaketa eman, kasua egituratzen duten gertakarien azalpena jasotzen duela, eta aldi berean aipatu ere egin beharko ditu ustez urratu diren oinarriko askatasun edo eskubideak.

e) Arazo juridiko-pribatua -partikularren artekoa- denean. Kasu hauetan Arartekoa eskugabeko da, Erakundearen eginkizuna Administraritzak hiri-kideekiko duen portaera eta iharduketa begiratzea bait da, eta ez partikularrek elkarrekiko dutena.

f) Kexa azterturik, ikusten denean lehenago dagokion organismo kompetentearen aurrean ez dela planteatu.

Alde batetik, ez da Arartekoaren eginkizun ez kompetentzia Administraritzako organoak ordezkatzea; eta bestetik, Administraritzak eskubidea du alde zuzenetik hirikideen asmo eta nahiak aztertzeko, izan ere, ezin bait da ulertu Administraritzaren aldetik iharduketa irregular bat egon dela, honek halakorik ezagutzeko aukera ere izan ez duenean. Kasu honetan, eskaera egin duenari jakineraziko zaio non eta nola balia daitezkeen eskubideaz eta hala Administraritzak bertako barne-kontrolako mekanismoen funtzionamendu normala bideratuko da.

g) Azkenik, Arartekoak ezin ditu ikertu erabaki judizialaren zain dauden kexak. Eta behin ikerketa bat hasita dagoela, pertsona interesatuak demanda edo errekurtsioa jarriko balu tribunaletan, Arartekoak bere iharduketak eten ahal izango ditu.

Kexa ez bada onartzen, interesatuak erantzun bat izateko eskubidea du Erakundearen aldetik; honek ezetza emateko izan dituen arrazoi edo arrazoiak azaldu beharko dizkio eta bere eskubideak defendatzeko bide egokiak zein izan daitezkeen informatuko dio; dena den, interesatuak bere aldetik ustez egokiak diren bideak erabili ahal izango ditu.

Arartekoaren erabaki eta ebazpenak ezin dira berez errekurritu, baina ez du ezerk galeratzen Arartekoak lehen ametitu ez den kexa bat onartzean, baldin eta, bere erizpiderako, kexa behin-betirako onartua izan dadin, interesatuak datu eta oinarri berriak aurkezten baditu.

Kexa-espeditenteen tramitazioa, Administraritzak Jardunbiderako Legearen menpe dagoen herri-Administraritzan ez bezala, erabat informala eta sumarioa da; beraz, edozein unetan har daitezke erabakiak, edo kexa zuzen ebazteko beharrezko izan daitezkeen ikerketak egin.

## TRAMITAZIOA ETA AZTERKETA

### A) **Administraritzari informazioa eskatzea**

Behin kexa tramitera onartzen denean edo ofiziozko espeditentea hasita dagoenean, Arartekoak beharrezko iruditzen zaizkion ikerketa-neurriak hartuko ditu auzia argitzeko.

Dagokion administraritzza Sail, organismo, entitate edo bulegora errekurritu ahal izango du, epe laburrean goi-mailako nagusiek txosten idatzi bat igor diezaioten. Eta kexa Administrazaren zerbitzura dauden pertsonen portaerari buruzkoa bada, kexa eragin duenaren hierarkiazko nagusiari jakineraziko dio, eta hala komeni bada, baita pertsonal-buruari ere, eta aldi berean kexa eragin duenari eskatuko dio kexa edo espedientearen objektu diren gertakari edo ingurukoei buruz, ezarriko dion epean, idatziz erantzun dezala, eta horrekin batera bidali ditzala beharrezko derizkion dokumentu edo aitopen osagarriak. Arartekoak kexa eragin duenari errekeritu ahal izango dio pertsonalki agertu dadin informatzera.

Ikusten denez, kexa bat Administrazaritzako sail edo organismo baten iharduketari buruzkoa izan daiteke, baina bere zerbitzura dauden pertsonen zuzenduta ere joan daiteke, Administrazaritzan betetzen duten lanarekin erlazionatuta dauden kasuetan beti ere, eta gerta daiteke balizko bi kasuak batera jasotzea ere.

Normalean Autonomia Komunitatearen menpean dauden sailen iharduerari buruzko informazio-eskaerak Idazkaritza Orokor Tekniko eta Parlamentuarekiko Harremanetarako Zuzendariari zuzenduko zaizkio, eta hau arduratuko da eskaera tramitatzeaz eta eskatutako informazioa jasotzeaz. Lurralde historikoetako administrazaritzza organoetako iharduketari buruzko berri-eskaerak, gaiaren arauera, dagokion foru diputatuari zuzendu behar zaizkio eta toki-Administrazaritzako alkateei edo dagokion entitateetako buruei.

## **B) Laguntzeko obligazioa**

Ararteko Erakundearen ihardun eremuaren barnean dauden administrazaritzza organoak behartuta daude legez, lehenetasun eta presako izaeraz, eskatzen zaizkien datu, dokumentu, txosten edo argibide denak ematera.

Funtzionari edo entitatereen baten ezetza edo zabarkeria, edo Arartekoari Administrazaritzako dokumentaziora iristeko bidea galerazi edo oztopatzen duen beste edozein jarrera hartzea bere lanaren trabatza hartuko da eta portaera horren berri emango zaio goi-mailako nagusiari.

Baldin eta funtzionariak edo organismoak bere horretan jarraitzen badu, trabak eta oztopoak jarriz, informe berezi bat egin ahal izango zaio, eta gainera, nabarmen agertuko da Legebiltzarraren aurrean aurkeztu beharrezkoa den urteko txostenean, dagokion atalean, eta hala bere izen-abi-zena eta portaera argitaratuta agertuko da Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean eta baita argitaratuko den txostenean ere.

Azkenik, Arartekoak egoeraren larritasuna neurtuz, erantzukizuneko akzio judiziala burutu ahal izango du funtzionariaren kontra; eta kriminalitate arrazoizko zantzuak agertuko balira, behartuta dago Ministeritza Fisikalari jakinerazteko.

### C) Informazioaren balorazioa egitea eta erantzuna gertatzea

Behin Administraritzatik informazioa jasotzen denean -batzutan ahoz lortuta eta bestetan txosten idatziaren bidez- arloko aholkulariak aztertu eta baloratu egingo du, eta behar beste argia erizten badio, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Aholkularitza Batzarrari, Arartekoak erabaki egokiena har dezan, honako erizpide hauen arauera:

a) Administraritzaren erantzunak kexan biltzen diren gorabeherak argitzen baditu, kexak oinarririk ez zuela ikusten den moduan, Arartekoak halaxe jakineraziko dio alegazioa egin duenari, adieraziz Erakundeak espedientea artxibatu duela. Era berean, kexaren xedea zen administraritzaren organoari ere jakineraziko zaio, eta, bidezkoa bada, eskainitako laguntzagatik eskerrak emango zaizkio. Iharduketa hauek espedientearen tramitazioari bukaera emango diote, beraz, segidan artxibatu egingo da.

b) Administraritzaren erantzuna aski ez dela erizten bada -bai ikerketaren punturen bat argitzen ez duelako, bai erdizka eta ilun diharduelako- organismoari izkribu berri bat igorriko zaio, eskatuz puntu ilunak argi ditzala edo osatu ditzala falta direnak ahalik eta azkarren.

c) Administraritzaren erantzunak aitortzen baldin badu tramitatu den kexak oinarria eta funtsa baduela, orduan bi kasu bereizi behar dira:

a') Administraritzak kexaren funtsa onartzen duen aldi berean, iragaritzen du salatu den lege-urratze edo okerra zuzentzeko, behar diren erabaki eta neurriak hartu dituela. Kasu honetan, erantzunaren berri eman go zaio erreklamazio egileari eta administraritzaren organismoari jakineraziko zaio Arartekoak bere iharduketak geldieraziko dituela, salatu den okerra zuzendu dela ziurtasunez jakin zain gelditzen delarik.

b') Administraritzak kexa oinarria baduela aitortu arren, adierazten du arazoa eraginkortasunez eta behar bezala ebazteko formula juridiko egoki baten beharra dagoela, indarrean dagoen ordenamendu juridikoa oraindik ez dagoena. Kasu honetan Arartekoak Legearen 11 c) atalak aipatzen dituen gomendioak egin ditzake, urteko txostenean iradokizun gisa jasotzeaz gainera. Gomendio horiek zuzendu ahal izango zaizkie Eusko Legebiltzarrari, nahiz Jaurlaritzari, Foru Aldundiei, Udalei, edo horien menpeko erakundeei.

### D) Erizpena eta onespena

Planteamenduaren mesederako kexaren tramitazioan zehar erabaki bat hartzeko premia duten arazoak planteatzen direnean, Aholkularitza Batzarra elkartuko da era informalean, eta eztabaidatu ondoren espedientearen tramitazioan zehar aholkulariei zalantzak sortu dizkieten kontzeptu edo tramitezko arazoei buruz erabakiak hartuko dituzte.

Behin aholkulariak kexaren ebazpenaren proposamena landu duenean, Aholkularitza Buruak gainbegiratu du eta honek beharrezko iruditzen zaizkion aldaketak edo zuzenketak egin ahal izango dizkio.

Aldizka, era informalean bilduko da Aholkularitza Batzarra deiturikoa, Arartekoak, Ondokoak eta aholkularitzako kideek osatzen dutena bera. Han, aholkulariek, astean zehar landu diren kexen erantzunak azaldu eta planteatuko dituzte; berauek aurrez Aholkularitza Buruaren oneritzia dutelarik.

Batzar honetan kexaren soluzioaren proposamena eztabaidatuko da, kasu bakoitzean egon daitezkeen aukerak baloratuko dira, eta azkenik erantzun-erizpen bat onartuko da, eta Arartekoari aurkeztuko zaio, honek onespena eman eta sina dezan. Sinadura ekitaldi honetan burutuko da, aholkulariak landu duen proposamenari aldaketak eranstea beharrezko ez baldin bada, edo biharamunean bestela, behin erantzunaren izkribua Batzarrek adierazitako ildotik birlandu denean.

Bakantea, aldi bateko ausentzia edo ezintasun fisikoa gertatzen bada, Arartekoaren funtzio erabakiorrak Ondokoak hartuko ditu bere gain.

### ARARTEKOAK HARTU BEHARREKO NEURRIAK

Arartekoak, behin ikerketa aldia bukatuta eta Administraritzak eta interesatuak emandako informazioaren argira, hainbat neurri hartzea proposa dezake.

Esaterako, sail, organismo edo entitate afektuari adiskidetze edo akordio-formulak proposatu ahal izango dizkio, kexen ebazpen baikor eta azkarra bideratuko dutenak.

Administraritzak legalitatearen barnean ihardun behar duelarik, uste duenean haren iharduketak bidezko ez den ondorio batera eramaten duela, arrazoizkoa ez dena eta beharbada bai diskriminatorioa, Arartekoak honako neurriak har daitezzen proposa dezake:

a) Direlako egintza edo ebazpenak sortzeko erabili diren erizpideen aldaketa iradokitzea Administraritzari.

b) Aurrekoa nahikoa ez bada, hirikideentzat kaltegarri edo bidezkoak ez diren iharduketak sorterazi duten edo ahal duten arau legal edo erreglamenduzkoen aldaketa iradokitzea Administraritzari edo Legebiltzarrari.

Gogoan izan behar da Arartekoak beharrezko erizten dion guztietan formulatu ahal izango dituela, espediente edo kexa baten ebazpen eta ikerketa funtzioen egikaritzan, autoritateei eta herri-Administraritzaren zerbitzura dagoen pertsonalari legezko obligazioei buruzko oharpide, gomendio eta iradokizunak, nahiz eta inolako kasutan ezin dituen aldatu edo deuseztu Administraritzako egintza edo ebazpenak.

Arartekoak badu, beraz, ahalmenik Administraritzako funtzionari eta autoritateen aurrean, konpetentzia-eremuaren barnean, era guztietako gomendioak egiteko. Arartekoaren gomendio hauek uzi edo pretentsio bat agertzen dute, Administraritzaren aldetik beteko delakoan. Uzi horrek ez du zertan bat etorri derrigorrean eskaeragileak egin duenarekin, Arar-

tekoak aberastu edo aldatu ere egin bait dezake, bere erizpidearen arauera bidezko eta beharrezkotzat jotzen badu.”

Halaber, Arartekoaren Legeak derrigorrez egin beharrekoak diren beste ekintza batzuk ere aipatzen ditu: hots, Erakundeak urtero-urtero Legebiltzarri bere jardunaren berri emateko aurkezten dizkion txostenak.

Hortaz, Arartekoa Legebiltzarraren karguduna izanik bien artean ohizko diren harremanen barruan sartzen dira aipatu txosten horiek. Haietan, 3/85 Legeko 35. artikulua dioen bezala, Autonomi Elkartean eskubideen babesaren egoerari buruzko iritzi orokorra azaldu behar da, gutxienez egindako ikerlanak berariz zein alderdi batek eskatuta hasitakoak-zenbat eta nolakoak izan diren eta nolako emaitzak izan dituzten ere argituz eta, gainera, bere kontrolpeko organoei zuzendutako iradokizun edo gomendioak erantsiz. Bestalde, bidezkoa baderitzo, Arartekoak lege-arauak eraldatu edo indargabetzeko proposamena ere egin dezake, baldin eta horrek, bere iritziz, herri-administrazioen jarduna hobetzeko balio badu; orobat, ildo beretik, arau berriak finkatzea ere proposa dezake, eskubideak suspertzeko egitekoa deitzen den hori beteaz.

Argi utz dezagun txosten horiek ez direla ekintzei buruzko oroitidazki hutsek, pentsa litekeen bezala. Aitzitik, hiritarren eskubideen aldeko lanetan herri-agintaritzan eragina edukitzeko tresna nagusia dira, Erakundeak prestatutako ebazpenak zabaltzeko balio duelako. Ombudsman guztien antzera, Arartekoa bide egokien bitartez, alegia urteroko txostenen bitartez, bere *auctoritas* sendotu eta bideratu behar duen limurtze-indarrezko magistratura da.

Antzeko balioa eduki dezakete Erakundea arautzen duen Legeko 34. artikulua aipatzen dituen txosten bereziek ere.

Beste txosten hauek gaien larritasunagatik edo premiazkotasunagatik berariz hasitako ikerlanen ondorio izaten dira; haietan jasotzen diren ikerketak, gure iritziz, funtsezkoak dira, haien bitartez benetan arrazoizkoak diren hobetze-proposamenak egitera irits daitekeelako.

Arartekoak ez du erabili gabe utzi Legeak finkatzen duen aukerako jardunbide hori. Hor daude, horren lekuko, gure gizarteko talderik babesgabeen egoera ezagutu eta aztertze egindako ikerlan monografikoak, hurrenez hurren 1990, 1991 eta 1993ko urtealdietan aurkeztuak, eta preso eta atxilotu, buru-gaixo eta aiton-amonei buruzkoak. Hiru txosten berezi horiek oso harrera ona izan dute foro guztietan, Erakundeari gero eta sarriago aitortzen zaizkion objetibitateagatik, alderdikeria ezagatik eta menpekotasun ezagatik.

Orain arte azaldu ditugun jardunbide hauek guztiak, esan bezala, Arartekoari buruzko Legeak berak finkatuak ditu, baina horietaz gainera badira beste batzuk, kargudun honek giza eskubideen ikerketa eta ezagutzan sakontzeko eta giza eskubideekiko errespetuan oinarritutako egiazko kultura finkatu asmoz hartutako burubide bati erantzuten diotenak.

Haien artean, aipagarria da 1991. urtetik aurrera egiten den lankidetzarako beka-deialdia. Beka horien bitartez, bi helburu iritsi nahi ditugu: alde batetik, Euskal Autonomi Elkartean giza eskubideen alorreko ikerketarako gogoia sustatzea; eta, bestetik, Erakundearentzat interesgarriak diren gaii buruzko lanak (etxebizitza, ingurugiroa, atzeritarrak, etab.) egitea, gure ohizko

lanean lagungarri eta bide-erakusgarri izan daitekeen dokumentu-iturri izatera irits daitezkeenak.

Halaber, aipatzekoa da giza eskubideen alorreko funtsezko lan batzuk argitaratu eta zabaltzeko asmoz hasi den "Padre Francisco de Vitoria" Giza Eskubideen Saila izeneko monografia-sorta sortzeko ekimena ere.

Eta, amaitzeko, ezin dezakegu Erakundearen jardunari buruzko atal hau itxi Estatuko nahiz Europako beste defendatzaile batzuekin aldian-aldian egiten diren jardunaldi, biltzar, bilera eta gainerakoak aipatu gabe.

Ez ditugu gertaldi horiek berez nabarmendu nahi, beste leku egokiago batean ahalegindu baikara merezi zuten hedadura ematen. Hori bai, haietan hartutako erabakien garrantzia azpimarratu nahi dugu, erabaki horiek, gehien-goak onartu eta berretsi ondoren, norberarenak balira bezala hartu behar baitira. Ildo horretatik, aipatzekoak dira Estatu osoko herri defendatzaileek adingutxikoen eta adinekoen lege-egoerari buruz ateratako ondorioak.

IV. ATALA  
**KANPO HARREMANAK**



Atal honetan Ararteko Erakundearen eta gizartearen arteko harremanaren oinarritzko ardatzak eta Erakundearen kanpo-proiektzioarako politika azaldu nahi ditugu. Ildo horretatik, Erakundearen izaeragatik beragatik eta bere helburuengatik, garrantzi berezia daukate Arartekoaren eta euskal gizarte zibilaren arteko harremanek.

Atal hau osatzeko, Erakundearen kanpo-politikabidean eta kanpo-ekin-tzan bi esparru bereiztea komenigarria iruditu zaigu. Alde batetik, Erakundeak jardunean daramatzen bost urteotan gizarte zibilarekin izandako harremanak aztertuko ditugu, kontutan hartuz bai banakako hiritarrak, bai gizarteko talde eta elkarteak. Eta bestetik, Ararteko honi legeak ezarri dizkion betekizunak egiteratzean beste herri-erakunde batzuekin izandako harreman instituzionalak ere aipatuko ditugu.

#### 4.1. ARARTEKOA ETA GIZARTE ZIBILA

Arartekoa Euskal Autonomi Elkarteko Ombudsmana izanik, gure erakundearen eta gizarte zibilaren arteko harremanak erraza izan behar du ezinbestean. Hiritarrekin eta gizarteko taldeekin harremanetan egotea eta haiei zerbitzea edozein herri-erakunderen helbururik nagusiena den arren, Arartekoari dagokionez, gogoan izanik bere betekizunik funtsezkoena alderdi baten eskariz edo berariz hiritarren oinarritzko eskubideak babestea dela, beste erakundeek baino harreman estu eta hurbilagoa eduki behar du gizarte zibilarekin.

Horretarako badaude begibistako arrazoi batzuk: alde batetik, hiritarrek administrazio publikoekin dituzten era guztietako harremanetan aurkitzen dituzten arazoak hurbiletik ezagutu beharra; eta, bestetik, ezagutza horrek erreferentzi-puntu gisa duen garrantzia hiritarrek azaltzen dituzten gaiak bideratzean. Honela, bada, Arartekoak eta Ombudsman erakundeak nolabaiteko "zubi-lana" egiten dute gizarte zibilaren eta gainontzeko herri-erakundeen artean, batez ere administrazio maila dutenekin, beren tamainagatik hiritarren-gandik urrutien egon ohi direnak baitira.

Ararteko Erakundeak betidanik jakin du nolako garrantzia daukan gizarte zibilarekiko harremanak, eta bere lan-maila guztietan harreman hori suspertzea izan da bere eginkizunaren ardatz nagusienetako bat.

Haien deskribapen sistematiko bat egitearren, bereizi egingo ditugu, alde batetik, nola edo hala Arartekora jo duten hiritar edo gizarteko taldeak, eta,

bestetik, lehen jardun-denboraldi honetan Erakundearekin zuzeneko harremanik izan ez duen gizarteko saila. Era berean, lehendabizikoan artean, bereizi egingo ditugu kexa-espediteren bat ireki dezagun eskatu digutenekin izandako harremanak eta, bestetik, kexa-espediterik irekiarazi ez digutenekin izanak.

Ararteko Erakundea sortu eta arautzen duen legeak berak nahiko bide erraza finkatzen zuen hiritarrek erakunde bermatzaile honen laguntza eskuratzeko. Erakundearen jardunak ere bide horretatik jo du, inoiz ez baita egon arazorik hiritarrek era askotan eta, sarritan, formalak ez ziren bideetatik aurkeztu dizkiguten arazoak jaso eta bideratzeko ere.

Halako kexa-espeditente bat irekitzera garamatzen hiritar edo taldearekiko harremana oso erraz hasten da, bai idatziz, bai ahoz, eta gure erakundean beti nahiko eskuzabalak izaten ahalegindu gara bai baldintza formalak betetzeari dagokionez, baita Legearen arabera salaketak onartzeko baldintzekin ere. Horiek horrela, hiritar gehiagok jo ahal izan du Arartekora laguntza eske.

Orobat, Arartekoak bideratzen dituen kexa-espeditenteekin zerikusia duten pertsonak ez daukate inolako arazorik Erakundera jotzeko, ez eta espeditenteen berri izateko ere; izan ere, gure ateak zabalik eduki nahi izan ditugu arazo jakin batez arduratzen diren hiritarrentzat, ahal zen neurrian haien erakunde zuzeneko harremanak edukiz. Eta, gainera, gutxienez idatzizko harremana ere edukitzen dugu interesdunekin, bai aurkeztutako kexa jaso dela adierazteko, bai ikerketa-hasieraren berri eman edo egindako lanen emaitzak jakinarazteko; eta hori, jakina, alde batera utzi gabe espediterengatik sartuta daudenei idatziz, ahoz zein telefonoz ematen zaizkien argibideak.

Bestalde, urte hauetan guztietan hiritarrei edo taldeei jarraibide zuzena erakusteko ahaleginak egin ditugu beti beraiek azaldutako arazoa gure eskumenetik kanpo zegoenean. Horri dagokionez, gure informazio-lana ez da mugatu arazoari heltzeko bide egokia azaltzera, askotan antolak egin eta harremanak hasi ere egin ditugulako hiritarrari bere nahia babes dezan erraztasunak ematearren.

Kexa-espediterik irekiarazi ez diguten hainbat hiritar eta gizarteko talderekin ere izan ditugu harremanak, haien alorreko arazoak Arartekoari ezaugarazi nahi zizkiotelako eta erakunde honen zeregin bermatzaileko garrantzitsuak izan daitezkeen argibideak emateko. Halaber, batzuetan gure erakundea bera izan da hiritar eta bitarteko gizarte-talde horiengana jo nahi izan duena, halako arazo batzuk hurbilagotik ezagutu asmoz.

Ildo horretatik, Arartekoa beti prest egon da berarekin hitz egin nahi zuten talde guztiak hartzeko, haien kezka entzuteko eta, halaber, haien arazoari konponbidea aurkitzen laguntzeko. Honela, giza eskubideen aldeko elkarteekin, presoen aldekoekin, etorkinei laguntzeko taldeekin, elbarriei arreta emateko elkarteekin, eta sorospenezko edo eskabidezko beste zenbait elkarterekin harremanetan egon gara, bai eta sindikatu, talde bakezale, hiritar elkarte eta bestelako gizarte-talde batzuekin ere. Hemen sartzekoak dira, gainera, zuzen-zuzenean Arartekoaren eskumeneko gaiak izan gabe, hiritar jakin batzuen funtsezko eskubideak babesteko balio izan duten antola ugari ere.

Dena dela, Arartekoaren jarduera-irizpideetako bat giza eskubideen alde lan egiten duten gizarteko talde edo erakundeekiko harremanak suspertzea izan da, maila publiko eta pribatuaren artean lankidetzaz emankorra lortzeko, beti ere eskubiderik funtsezkoenak babesteko helburuz.

Hirugarren lekuan, Arartekoak gizarteko gainontzeko taldeekin dituen harremanei gagozkielarik, esan behariko dugu gizarte-bizitzan eraginkortasunez esku hartu nahi izan dugula eta horretarako ahaleginak egin ditugula, Erakundearen lanak ematen dituen aukeren arabera. Horrela, Arartekoak ez ezik, Erakundeko beste partaide batzuek ere giza eskubideen alorreko ekintza askotan hartu dute parte.

Era berean, Erakundea komunikabideetan eskuarki ager dadin saiatu gara, oso bide eraginkorra delako gizarte zibilarekin harremanetan egoteko eta Arartekoaren lanaren berri, bai eta hiritar orok bertara jotzeko duen aukeraren berri ere guztiei jakinarazteko.

Komunikabideetan agertze horrek, Erakundea lanean hasi den neurrian sendotuz joan denak, bi xede ditu: alde batetik, ageriko gauza da gaur egun komunikabideak oso bide egokia direla herritarrei Arartekoa bezalako erakunde baten berri zabaltzeko; bestetik, ombudsmanak behartze-indarririk ez duenez gero, oso garrantzi handia du komunikabideetan agertu ahal izateak, bere aginpide moralaren indarrez, agintari publikoei egiten dizkien gomendioak onar ditzaten komenigarria dela oharrarazteko.

Nolanahi ere, Erakundeak bere kanpo-harremanetan izan duen beste jarraibide bat, pentsatzekoa denez, gure herrian tradizio handirik ez duen erakunde berri hau eta bere lana guztiei ezagutzera ematea izan da. Ildo horretatik, jendaurreko hainbat ekintza gauzatu dira, esate baterako Erakundeko titularraren edo beste zenbait kideren mintzaldiak, edota Arartekoaren lanari buruzko askotariko idazkiak eratzeko.

Beste alde batetik, Erakundearen berri emateko lan horren barruan aparteko aipamena merezi dute bosturteko honetan plazaratu diren argitalpenek. Izan ere, Arartekoak urtero arauz Eusko Legebiltzarrari aurkezten dizkion eta argitaratu ondoren ahalik eta hedadurarik handiena ematen zaien ohizko txostenak ez ezik, beste lan batzuk ere argitaratu dira; haien artean nabarmentzekoak dira giza eskubideen inguruko hainbat gairi buruzko txosten monografikoak. Gainera, ikerlan horiek osatzearekin batera harreman berri eta oso interesgarriak izan ditugu gizarteko beste talde batzuekin, Erakundetik kanpoko hainbat ikerketa-erakunderekin elkarlanean aritu garelako.

Bestalde, txosten monografiko horiek prestatzeko lanei esker, Arartekoak aztertutako alorretan lanean diharduten beste gizarte-talde batzuekin zituen harremanak sendotu ditu eta beroriek hobeto ezagutu ahal izan ditu. Horrek eta horren emaitz den liburua hautabidez zabaltzeak, gizartearekin harreman ona edukitzen lagundu du, batez ere giza eskubideen alde zuzenean edo zeharka lan egiten duten taldeekin.

Azkenik, euskal gizartean giza eskubideei buruzko ikerketa sustatzeko bideari jarraiki, Arartekoak urtero lizentziatuentzako bi lankidetzaz-bekatarako deia egiteko ohitura finkatu du, giza eskubideei buruzko ikerlanak egiteko. Eki-

men honen bidez, gizarte zibileko beste sail batzuekin harremanetan jartzeko bide berri eta berezia urratu dugu, eta harreman horiek arras estutzen dira beken azken emaitzak argitaratzearekin, dagoeneko hasi garelarik horiek kaleratzen. Helburu horretxekin hasi gara "Padre Francisco de Vitoria" Giza Eskubideen Saila deritzana plazaratzen.

Giza eskubideen alorreko ikerlanak bultzatzeko helburuaz gainera, Arartekoak "giza eskubideen kultura" deitu litekeena sustraitzen lagundu nahi izan du bere ekimen horren bitartez, eta Erakundeak berak kultura horren eredu publiko nabarmena izan behar du. Ildo horretatik, giza eskubideei buruzko monografiaren argitalpen-foro hori eskaini nahi izan dugu, giza eskubideekiko errespetuaren kulturaren sendo sustraitutako gizartea erdietsi nahi duten gizarte-talde guztien elkargune izan dadin.

## 4.2. ARARTEKOA ETA ERAKUNDE PUBLIKOAK

Ararteko Erakundeak bere eguneroko lanean harreman ugari eduki behar izan ditu hainbat erakunde eta sail publikorekin, Euskal Autonomi Elkarteekin batez ere. Haien artean bereizketa bat egin genezake: alde batetik, gure erakundearen ikerlanen bidez ikuskatu izan diren euskal administrazio publikoekin izandakoak, eta, bestetik, kexa-espeditenteen biderapenekin zerikusirik ez zutenekin izan diren zuzeneko harremanak.

Izan ere, Arartekoaren lanean etengabeko harremanak eduki behar izaten dira Legeak erakunde honi egozten dion jarduera eta ikerketa esparruaren barne dauden euskal administrazio publikoekin. Harreman horiek batik bat Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio amankomunarekin, hots Eusko Jaurlaritzarekin, hiru foru aldundiekin eta Euskal Elkarteko udalekin edukitzen dira, batez ere horien jardueraren ondorioz Arartekoak ikerketa-espeditenteren bat ireki beharra gertatu denean.

Administrazio horiekin, ohizkoena kexa-espeditente bakoitza azterteko harreman berezia edukitzea da, baina maila orokorragoko harremanak ere edukitzera iritsi gaitezke bideratutako espeditente kopuruak horretarako bide ematen duenean. Horrela, ikuskatze-lana egiteko, Arartekoak eskuarki espeditentearekin zerikusia duen administrazioari argibideak eskatu eta horri buruzko ebazpena ematen du; baina ebazpena gomendio bihurtu daiteke, Administrazioari dagokien pertsonen eskubideak betearazteko neurriren bat iradokitzen zaionean.

Oinarri-oinarrizko harreman horretaz gainera, askotan kexa-espeditenteak bideratzen direnean beste era bateko harremanak eduki behar izaten ditu Arartekoak Administrazioarekin: bilerak, ikustaldiak edota ikuskapenak, esate baterako. Nolanahi ere, Erakundeak bere buruari jarri dizkion jarraibideen arabera, biderapen formalek ez dute ezertan ere oztopatu behar bere ikuskatze-lana eta, batez ere, hiritarren eskubideak errespetarazteko bere gain hartua duen betekizuna.

Eusko Jaurlaritzaren sail desberdinen kontra hasitako espedienteen bila-kaera ahalik eta ondoen aztertu ahal izateko, harremanbide bateratsua finkatu da; haren arabera, Ararteko Erakundeak administrazio horren aurrean bideratzen dituen kexei buruzko jakinarazpenak Lehendakaritza, Araubide Juridiko eta Autonomi Garapenerako Sailaren menpeko den Jaurlaritzaren Idazkaritza-ko eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzan biltzen dira.

Orobat, azken urte honetan antzeko sistema erabiltzen hasiak gara Arartekoak bideratzen dituen kexa-espedienteekin zerikusia duten Bizkaiko Foru Aldundiaren sailekin ere.

Hiru administrazio horietaz aparte, noizean behin Ararteko Erakundeak Autonomi Elkarteko beste administrazio batzuekin ere jartzen da harremanetan, haien ekintzek edota isiltasunak hiritarren baten kexa eragiten dutenean. Euskal Herriko bazkun- edo erakunde-administrazioen kontra hasitako espedienteek ari gara.

Kexa-espedienteen eraginez administrazio publikoekin eduki behar izaten ditugun harremanez gain, Arartekoak beste irizpide bat hartu du oinarriz: alegia, bere lanarekin zuzenean edo zeharka loturiko betekizunak dituzten beste erakunde edo sail publiko batzuekin harreman onak izatea.

Ildo horretatik, lehen-lehenik Eusko Legebiltzarrarekin duen harreman jarraitua aipatu behar da. Jakina, Arartekoa Legebiltzarraren goi-karguduna izanik, hari eman behar dizkio egiten duen lanaren kontuak; baina, gainera, edozein unetan foro horren aurrean bere iritziz komeni diren gaiak agertzeko ahalmena ere badauka.

Bost urteotan Eusko Legebiltzarrarekin izandako harremana beti ona izan dela adierazi behar dugu, nahiz eta, bata zein bestea, jarduera eta barne-antolaketa Arartekoak duen askatasuna errespetatzen saiatu diren. Honi dagokionez, ezin ahaz dezakegu erakunde honen lehen egoitza Legebiltzarrean bertan kokatua egon zela.

Arartekoa urtero agertu da Eusko Legebiltzarraren aurrean, legez finkatutakoa betetzearren, urtez urte egiten duen ohizko txostena aurkezteko. Hala-ber, Giza Eskubideen Batzordearen aurrean agertzea ere eskatu izan du, bere agintaldiaren lehen aro honetan osatu dituen txosten berezi monografiko desberdinak aurkezteko.

Beste gai batzuei helduz, Erakundeak harreman onak eduki nahi izan ditu beti beste erakunde guztiekin, eta haien lankidetzeta eta laguntza izan ditu legeak eman dizkion egitekoak betetzerakoan. Tankera horretakoak dira, esate baterako, Euskal Autonomi Elkarteko Justizi Administrazioaren jardunari buruzko kexa-espedienteak bideratzearen epailaritza-agintearren sail batzuekin eta Fiskalgoarekin izandako harremanak.

Bide beretik, Arartekoak maila ezberdinetan harremanak eduki ditu Estatuak Autonomi Elkartean duen Administrazioarekin ere, Estatuak Euskal Herrian dituen ahalmen exekutiboek buruz hiritarrek azaldutako arazoak konpontzeko hainbat antola burutzearen.

Azkenik, Ararteko honek bera bezalako edo antzeko beste erakunde batzuekin izandako harremanak bereziki aipatu nahi ditugu. Izan ere, bost urte

hautetan gero eta harreman ugariagoak izan ditugu Estatuko gainontzeko ombudsmanekin, eta bai gure inguruko beste herrietakoekin ere.

Jakina da Estatuko Herri Defendatzaileak Arartekoarekin eta gainontzeko autonomi-kargudunekin dituen harremanak, bai eta azken hauen artekoak ere, elkarlan eta koordinazio irizpideetan oinarritzen direla. Horretarako, maiz samar, Estatuko nahiz autonomi elkarteetako herri defendatzaileek guztientzat interesgarriak diren gaiez hitz egiteko antolatu dituzten koordinazio-jardunaldietan hartu du parte Erakundeak, eta Euskal Herrian diren Herri Defendatzaileen VI. Jardunaldiak antolatu ere egin ditu. Bestalde, aipagarria da erakunde honek Estatuko Herri Defendatzailearekin harreman jarraitua duela, bai kexa-espeditenteak bideratzeko, bai batzaren zein bestearen ardurapeko gaietarako buruzko argibideak elkarri ematearren.

Ombudsman desberdinen arteko elkarlan hori nazioarte mailan ere gertatu da; izan ere, Arartekoak Ombudsmanaren Institutu Europarrak antolatutako bilera guztietan hartu du parte. Aparteko aipamena merezi du erakunde honek Gasteizen Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarra antolatu izanak. Bertan, Ombudsmanaren Institutu Europarreko kide gehienek hartu zuten parte, hau da, kontinente zaharreko herrialde askotan dauden gure antzeko erakundeen ordezkariak. Hitzaldi honen antolaketa oso baliagarria gertatu zaigu institutu horrekin aldian-aldian ditugun harremanak finkatu eta sendotzeko; honi buruz, gogoratzekoa da, gainera, Arartekoa elkarte horretako lehendakariorde dela gaur egun.

Labur esanda, lan honen guztiaren helburua, alde batetik, Arartekoaren egitekoaren oso antzeko betekizunak dauzkaten beste erakundeekiko harremanak estutzea izan da, eta bestetik, bai gure herrian, bai kanpoan ere, oraingoran bezalaxe, eskubideak bermatzeko diharduen erakunde honi bultzada ematea eta haren eztabaida-foroak sustatzea.

V. ATALA

**ERAKUNDEAREN BEREHALAKO  
ETORKIZUNA**

Ararteko Erakundearen jardunaren lehen aroak oso ezaugarri bereziak izan ditu bere barne-antolaketari eta kanporako proiektioari dagokienez. Denbora-tarte horretan, gure erakundea arian-arian sendotuz joan da, eta horrela azken urtealdiotan bere antolaketa argi eta garbi finkatua dagoela esan genezake.

Beste alde batetik, gure erakundea berria eta gure herrian tradizio historikorik gabea izanik, huts-hutsetik sortzen den edozein erakundek eduki ohi dituen zalantza ulergarriak gertatzeaz gainera, are ahalegin handiagoak egin beharra ere izan dugu, bere berri zabaldu eta euskal gizartean sustraitzeko.

Nolanahi ere, egia da gure erakundea barne zein kanpo mailan sendotzeko prozesua erabat amaitu gabe dagoela, baina, halere, zalantzarik gabe esan dezakegu Erakundeak jardunean emandako lehen bost urteon ondoren nahiko jarduera-egitura garatu eta aurreratua dugula datorren bosturtekoari aurre egiteko.

Dena dela, ondoko lerrootan azaldu nahi ditugun erronka batzuk ekarriko dizkigu etorkizunak, eta horretarako, lehendabizi, gaur egun begiz jotzen ditugun langai eta langile mailako hutsuneak bete beharko ditugula esan beharrean gaude; ondoren, berehalako etorkizunean Arartekoaren jarduera-esparruak izan ditzakeen aldaketak aztertzeari ekingo diogu, azaletik bada ere; eta amaitzeko, hurrengo agintaldian Arartekoak lehentasunez aztertu beharreko lan-ardatzak eta hor aurkituko ditugun erronkak aipatuko ditugu.

Lehen gaiari gagozkiolarik, alegia, Erakundeak bere lana egiteko dauzkan baliabide eta bitartekoei dagokienez, ezer baino lehen azpimarratu nahi dugu datorren bosturtekoan amaitu egin beharko dela Arartekoaren egoitza berria izango dena. Esan beharrik ez dago, bost urteotan Erakundearen kokapenaren behin-behinekotasunak eragin nabarmena izan duela bere lanean, askotan antolaketa mailako arazo ugari sorrarazi baititu.

Beraz, espero izatekoa da datorren agintaldiaren barruan eta ahalik eta lasterren aldatu ahal izango garela egoitza berrira; horrela, gure esku lokal berriak edukita, lanerako tokia arrazionaltasun handiagoaz banatu ahal izateaz gainera, gaur egungo baliabideez ezinezkoak diren aukera batzuk gauzatu ere gauzatu ahal izango ditugu; baina, batez ere, Erakundearen behin-betikoko egoitzaren kokapenari buruzko argibide zehatza emango die hiritarrei, eta horrek, gure ustez, eragin ona edukiko du hiritarrek guregana jotzeko orduan.

Bestalde, Erakundearen lanak izan duen ugalketa eta hiritarren eskubideak babestu eta suspertzeko zabaldu diren bide berriak kontutan harturik, giza baliabideak ere ugaltu beharko ditugu, bai arlo teknikoan, bai administrati-



boan ere, Arartekoarengana etortzen diren hiritarrei are zerbitzu hobe eta eraginkorragoa eman nahi badiegu.

Erakundearen etorkizuna aztertzean azaldu behar dugun beste puntu bat Arartekoaren jarduera-esparruak seguruenik izango duen zabalpena da. Hala, bada, Arartekoaren kontrolpeko administrazio desberdinek dituzten betekizunak ugaltu direnez, pentsatzekoa da erakunde honek bai alderdi baten eskariz, bai berariz jorratu behar izango dituen auziak ere gehiago izango direla.

Ildo horretatik, ez da ahaztu behar Euskal Autonomi Elkarteak aginte-sail ezberdinek gaur egun ez dituztela oso-osorik bere esku Autonomi Estatutuak aitortzen dizkien eskumen guztiak. Gauzak horrela, euskal administrazioak betekizun berri horiek beren gain hartuz joango diren neurrian, Arartekoaren jarduera-esparrua zabaldu egingo da, ez berez, baizik eta bere barruko edukia ugaltu direlako. Erantsi horri Euskal Autonomi Elkartek oraindik bere esku ez dituen eskumenek funtsezko eskubideekin duten lotura estua; hortaz, horrek guztiak gehitu egingo du Ararteko Erakundeak egin beharko duen lana.

Beste alde batetik, beste aldaketa bat ere gerta daiteke Arartekoaren jarduera-esparruan Erakundeak sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeak berak bere behin-behineko lehen xedapenean daukan iragarpen batengatik; izan ere, haren arabera, legea indarrean jarri eta bi urtetara, Arartekoak ahalmena dauka bere iritziz Erakundeak hobeto jardun ahal izateko lege horretan egin beharreko aldaketak Legebiltzarrari proposatzeko, arrazoi eta guztiko txosten baten bidez.

Lehen agintaldian horrelako proposamenak egiteko behar zen ikuspegiak ez izanda aukera horretaz baliatu ez garen arren, ezin esan dezakegu aukera hori ondoko agintaldian erabiliko ez denik, Erakundearen jarduneko lehen bost urte hauek eman digun egiaztaturiko eskarmentuaz egoki baliatuz.

Bide horretatik, aldaketa hori legeak jasotzen dituen edukietatik edozeinetan gerta daiteke, eta Arartekoak gaur egun indarrean duen jarduera-esparruan eragina nekez edukiko badu ere, giza eskubideen babes eta azterlanerako aukera edo esku hartzeko bide berriak irekitzeko balio dezake. Jakina, horrek Erakundearen giza baliabideak eta langaiak legezko errealitate berri horretara moldatu beharra ekarriko du.

Hirugarrenik eta amaitzeko, Erakundearen etorkizunari begira jarraituz, geure kabuz datozen urteetarako gure gain hartu nahi izan ditugun erronkak ere aipatu nahi genituzke. Labur esanda, gure autonomi elkarteak hiritarren funtsezko eskubideak babesteko gure egitekoan lehentasuna eduki behar duten lan-esparruak dira.

Testuinguru horretan, batez ere hiru jardun-ardatz azpimarratuko ditugu, berez lehen agintaldian hasita egon arren, haiek garatzeko erronkari datozen urteetan aurre egin beharko diogulako.

Alde batetik, gure erakundeak behin baino gehiagotan erakutsi du bere gizartegintza-lana zabaltzeko nahia, gizarte zibila hurbiltzeko asmoz. Horretarako lehen modua komunikabideetan sarriago agertzea da, baita Arartekoak arautzen duen legeak bere 11. e) artikuluan Erakundeari aitortzen dion ahal-

menaz baliatuz ere. Beste alde batetik, ordea, Erakundeak egindako lan, txosten eta argitalpenen hautabidezko banaketaz ere helburu horixe lortu nahi da.

Bigarrenik, etorkizunean Arartekoak egin beharko duen jardunaren beste jarraibide nagusietako bat gizarte zibilaren eta administrazio publikoen arteko "erakunde-zubi" lanak egitea da; horretarako, giza eskubideen alde lan egiten duten gizarte-taldeekin eduki ohi ditugun harremanak sendotu edo, hala dago-kionean, hasi ere egin beharko ditugu. Ildo horretatik, gizarteko talde behar-tsuenen egoera hurbiletik ezagutzen duten edota giza eskubideekiko errespetuaren kultura errotzearen alde lan egiten duten gizarteko talde edo mugimen-duentzat bideragune bihurtu nahi dugu, lehen bost urte hauetan haiekin hasi ditugun harremanak estuagotuz.

Hain zuzen ere, erakunde publikoen alorrean giza eskubideekiko errespetuaren kultura hori sortzeko lanetarako bideragune bihurtzeko nahi horixe da Arartekoaren berehalako etorkizuneko lanaren oinarrian egon behar duen beste jarraibide bat.

Helburu horiekin, gure erakundeak giza eskubideei buruzko agiritegi bat osatzeko eta, bestetik, alor horri buruzko ikerlanak gure autonomi elkartean ugaltzeko eta hedatzeko erronka hartu du bere gain. Honela, asmo horren barruan sartu behar ditugu giza eskubideei buruzko "Padre Francisco de Vitoria" izeneko monografia bilduma hasi berria eta, orobat, gai horri buruzko ikerketarako beken deialdia; batzuk zein besteak bultzatzea Erakundearen hurrengo urteetako jardunak izango duen garapenaren arabera egingo da.

# **BIGARREN ZATIA**

I. ATALA  
**ESTATISTIKA**

## 1.1. KEXEI BURUZKO ESTADISTIKA

### Jasotako Kexak

Juan San Martin-Arartekoa 1989ko martxoaren 8an bere karguaz jabetu zenetik 1993ko abenduaren 31 bitartean, txosten honetako estatistika osatzeko datuak epe horretakoak baitira, Euskal Autonomi Elkarteko hiritarrek guztira 3.575 kexa aurkeztu dizkiote Ararteko Erakundeari, beraz, urtean batzbeste 715 kexa.

Urtez urte egon den banaketaren arabera, etengabeko igoera egon dela ikusten da, eta urtero gaintitu da aurreko urteko kexa-kopurua. Bilakaera hori, aldi berean, homogeneoa izan da, urte bakar batean ere ez baita kexa-kopurua nabarmen igo, alderantziz, urtez urte egon den igoera aurreko urtekoen antzekoa izan da.

Erakundea lanean hasi zen lehenengo urtean, 1989an, 585 kexa jaso ziren, eta 1993an, berriz, 823. Urte batetik bestera dagoen etengabeko igoera horrek, Erakundeak hiritarren artean piskanaka lortu duen zabalkunde eta onarpena adierazten du, gure ustez.

---

1989	585
1990	615*
1991	769
1992	783
1993	823

---

(1989-93)	Guztira	3.575 kexa
-----------	---------	------------

---

(Ikus 1. diagrama 76. orrialdean)

(\*Egiaz 1.159 kexa jaso ziren 1990. urtean, baina horietako 545 gai berari buruzkoak zirenez, estatistiketarako kexa bakartzat hartu dira.)

### Onartu ez diren kexak

Halere, Arartekoaren aurrean aurkezten diren salaketa guztiak ez dira kexa bezala hartzen. Onartu aurretik balioztatu egiten dira. Horregatik, 556 kexa bota dira atzera bost urte hauetan, jaso diren guztien %16a beraz.

Salaketak atzera botatzeko arrazoiak hauek izan dira: maila pribatuko arazoak azaltzen zituzten (etxejabeen elkarteetan sortutako auziak, ezkontideak banatzean sortzen diren arazoak, orubeen arteko mugengatik jabeen artean pizten diren eztabaidak,...) edo justiziak ebatzitako edo ebazpen zain zeuden gaiak ziren. Kasu horietan guztietan, Arartekoak kexa ez zela onartzen jakinaraztearekin batera, beraien eskubideak babesteko jarrai zezaketen bidearen berri ematen zien hiritarrei.

Atzera bota diren kexen banaketan ez dago gorabehera handirik urteen arabera, gehienez ere beherapen bat nabari da portzentaiegan, agian, Erakunde hobeto ezagutzean, Arartekoaren xedeak eta ahalmenak hobeto ezagutzen direlako.

1989	111
1990	118
1991	99
1992	106
1993	122
Guztira	556 kexa

(Ikus 2. diagrama 77. orrialdean)

### Herri Defendatzaileari igorritako kexak

Beste kexa multzo bat, Herri Defendatzailearen esparruan sartzen direna da. Arartekoak kasu horietan bitartekari lanak egin ditu; horrela, kexa jaso bezain laster Herri Defendatzailearen Bulegora igortzen du, kexa aurkeztu duenari jakinarazi ondoren azaldutako auzia erakunde horri dagokiola, eta horregatik bidali zaiola bidera dezan. Arartekoak 455 kexa igorri dizkio Herri Defendatzaileari, jaso ditugun guztien artetik %13a.

### Herri Defendatzaileari bidalitako kexak

1989	107
1990	107
1991	70
1992	95
1993	76
Guztira	455 kexa

(Ikus 3. diagrama 78. orrialdean)

Erakunde honetan kexa-kopuru handiagoa jasoz joan garen neurrian, Herri Defendatzaileari bidali zaizkion Euskal Autonomi Elkarte hiritarren kexak gutxituz joan dira, eta horrela, 1989an Herri Defendatzaileari 528 aurkeztu bazitzaizkion, 1993an 318 bakarrik igorri zaizkio.

Urteen arabera egon den bilakaerak gorabehera handiak izan ditu, eta bi arrazoi nagusik baldintzatu dute bilakaera hori: alde batetik, elkarte eta taldeek antolatu dituzten arazo-salaketa kanpainak eragin dute (ehiza, soldadutza,...), eta bestetik, Herri Defendatzaileak idatzi bakoitza kexa partikularizat jotzen du, nahiz eta horietan arazo azalpen eta azken eskaera berbera errepikatu.

### **EAEko hiritarrek Estatuko Herri Defendatzailearen bulegoan aurkezturiko kexak**

1989	528
1990	1.169
1991	1.025
1992	596
1993	318

(Ikus 4. diagrama 79. orrialdean)

#### **1.1.1. Prozedurari buruzko estatistika**

Prozedurari dagokionez, bost urte hauetan ireki diren 3.575 kexa-espedienteetatik 3.206 ebatzi eta artxibatuta daude, eta beste 369 oraindik biderapenean, zenbait jarduera burutu zain.

Datu horrek erakusten digunez, kexen artetik %90 ebatzita daude, eta %10 bakarrik geratzen dira 1993ko abenduaren 31n ebazpenik gabe; portzentaia horiek oso onak direla esan dezakegu.

#### **Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak**

	1989	1990	1991	1992	1993	Guztira	%
<b>Bukatuak</b>	585	606	744	691	580	3.206	90
<b>Biderapenean</b>	-	9	25	92	243	369	10

(Ikus 5. eta 6. diagramak 80. eta 81. orrialdeetan)

#### **1.1.2. Sailen arabera estatistika**

Kexa gehien ondorengo alor hauetan jaso dira hurrenez hurren: Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza, Hirigintza eta Etxebizitza eta Osasuna. Hiru alor horietan jaso diren kexen portzentaia bost urteetan jaso direnen %50a da.

Jarraian, jaso diren kexa-kopuruaren arabera erdimailan dauden, baina halere garrantzitsuak ere badiren alorrek osatutako multzoa dago: Ogasuna, Hezkuntza, Ingurugiroa eta Herrizaingoa.

Hirugarren postuan, kexa gutxien jaso dituzten alorrek osatzen duten multzoa daukagu: Herrilanak eta Zerbitzuak, Kultura eta Elebitasuna, Nekazaritza eta Industria eta Justizia.

Azkenik, Lan eta Gizarte Segurantza alorra dago, hori baita kexa gutxien jaso dituen. Hori, Euskal Autonomi Elkarteak alor horretan dauzkan eskumen-urrien ondorioa da.

### Jasotako kexak sailez sail

	1989	1990	1991	1992	1993	Guztira
F.P. eta Adm. Antol.	60	68	66	87	125	406
Hirig. eta Etxeb.	79	66	89	82	74	390
Osasuna eta Giz. Ong.	58	57	51	82	63	311
Ogasuna	29	39	48	46	65	227
Hezkuntza	26	29	41	70	48	214
Ingurugiroa	16	12	41	62	44	175
Herrizaingoa	16	13	42	27	45	143
Herrilanak eta Zerb.	5	10	29	31	25	100
Kult. eta Elebit.	18	19	30	10	18	95
Nek., Ind., Merk. eta Tur.	7	10	25	12	21	75
Justizia			22	15	34	71
Lana eta Giz. Segur.	3	8	6	7	6	30

(Ikus 7-19. diagramak 85-91. orrialdeetan)

Eusko Jaurlaritzaren Administrazioaren kontrakoak izan dira erakunde honetan aurkeztu diren kexa gehienak, %48ko portzentaiaz. Gutxiago izan dira, %39, Euskal Autonomi Elkarteko udalen eta herri-erakundeen kontrakoak. Azkenik, hiritarren kexa gutxien eragin duen administrazioa foru diputazioak dira, %13az.

Datu horien argitan ezin da administrazio batzuek besteek baino hobeto dihardutela esan, alderantziz, aurkezten diren kexak, administrazio bakoitzak eskaintzen dituen zerbitzu kopuruen eta hiritarrek horiekiko daukaten gertutasun edo urruntasunaren arabera epaitu behar dira.

Hiru foru diputazioetako bakoitzak jaso dituen kexei dagokienez, Araba-koa azpimarratu behar da, daukan biztanleriaren arabera Autonomi Elkarteko bataz-beste-koaren gainetik dagoelako, Bizkaikoa, aldiz, beherago dago; eta Gipuzkoako Foru Diputazioaren jardueren kontra zuzendu diren kexen kopuruak bataz-beste-ko estandarrari erantzuten dio.

Balioespen hori bera agertzen da lurralde historikoen arabera udalen kontra aurkeztu diren kexen banaketari dagokionez.

Zalantzarik gabe, Arartekoaren egoitza Gasteizen egoteak txit errazten die arabarrei erakunde honetara jotzeko aukera, eta horiek aurkezten dituzten kexak eskuarki harremanik ugarien dauzkaten erakundeen kontrakoak izaten dira.



## Jasotako kexak administrazioen arabera sailkatuak

	1989	1990	1991	1992	1993	Guztira
- Eusko Jaurlaritza	175	176	223	239	252	1.065
- Foru Administrazioa.....						299
- Araba	4	12	25	22	11	74
- Bizkaia	24	15	30	25	30	124
- Gipuzkoa	14	17	20	15	35	101
- Toki Administrazioa.....						880
- Araba	23	17	39	72	66	217
- Bizkaia	66	50	78	74	97	365
- Gipuzkoa	43	44	75	70	66	298

(Ikus 20-23. diagramak 92-95. orrialdeetan)

### 1.1.3. Gomendioen estatistika

Arartekoak legez Administrazioaren jarduera araugabeak ikuskatzeko eta zuzentzeko daukan bidea gomendioak egitea da. Horien helburua, erakunde eskudunei legezko zein betekizunetan hutsegin duten eta zein jarduera araugabe burutu dituzten gogoraraztea da, eta legedian aurkitzen diren akatsak azaltzeko ere balio dute. Gomendioek ez daukate, bestalde, administrazio-erakundeek burutzen eta hartzen dituzten erabakiak bertan behera uzteko edo aldatzeko ahalmenik.

Ararteko Erakundeak 254 gomendio eman ditu 1989tik 1993ra arte, eta horien erdiak onartu egin ditu Administrazioak.

Alorren sailkapenari dagokionez, Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza, Ogasuna, Ingurugiroa, Hezkuntza, bai Hirigintza eta Etxebizitza ere dira gomendio gehien jaso dituztenak. Ogasun eta Ingurugiro alorrek ere azpimarratu behar dira, kexa gehien jaso dituztenak ez diren arren, gomendio asko eragin baitituzte, eta horrek arazo bereziak dituztela adierazten baitu.

## GOMENDIOAK

	89	90	91	92	93	GUZTIRA	O*	EO*	EG*
Nek., Ind., Merk., eta Turismoa	1	2	4	1	2	10	3-30%	2-20%	5-50%
Kultura y Elebitasuna	-	1	-	1	-	2	2-100%	-	-
Hezkuntza	-	3	7	10	2	22	16-73%	-	6-27%
Funtzio Publikoa eta Adm. Antol.	-	4	7	15	20	46	23-50%	9-20%	14-30%
Ogasuna	1	7	9	15	9	41	18-44%	16-39%	7-17%
Herrizaingoa	-	1	5	8	7	21	13-62%	2-10%	6-28%
Justizia	-	-	1	-	-	1	1-100%	-	-
Ingurugiroa	3	3	13	9	16	44	21-48%	12-47%	11-25%
Herrilanak eta Zerbitzuak	2	1	5	6	7	21	5-24%	7-33%	9-43%
Osasuna eta Gizarte Ongizatea	1	10	3	1	3	18	6-33%	6-33%	6-33%
Lana eta Gizarte Segurantzza	-	1	-	-	-	1	1-100%	-	-
Hirigintza eta Etxebizitza	-	5	8	5	7	25	12-48%	3-12%	10-40%
Beste gestio batzuk	-	1	-	1	-	2	2-100%	-	-
						<b>254</b>	<b>123-48%</b>	<b>57-22%</b>	<b>74-30%</b>

(Ikus 24-37. diagramak 99-106. orrialdeetan)

\* O: Onartua

\* EO: Ez onartua

\* EG: Ebatzi gabe

Gomendioen sailkapena eragindako administrazioen arabera egiten badugu, udalak izan dira gehien jaso dituztenak, 130 egin baitzaizkie; jarraian Eusko Jaurlaritza dago 89 gomendioz, eta azkenik foru diputazioak, 56 gomendioz.

Udalen kontrako salaketak kexa guztien %39ko portzentaiara iristen badira ere, aldiz, Arartekoak udalei bidali dizkien gomendioak %51ra iristen dira, eta hori, noski, portzentaia handixeagoa da. Datu horrek gauza bat adierazten du, hiritarren eskubideak herri-administrazioen alorrean hausten direla gehienbat.

### Gomendioen guztizko kopurua administrazioen arabera

	Guztira	%
- Eusko Jaurlaritza .....	98	39
- Foru Administrazioa .....	26	10
- Araba	10	
- Bizkaia	12	
- Gipuzkoa	4	
- Toki Administrazioa.....	130	51
- Araba	24	
- Bizkaia	51	
- Gipuzkoa	55	

(Ikus 38-40. diagramak 107. orrialdean)

#### 1.1.4. Lurraldeen araberako estatistika

Kexak jatorriaren arabera sailkatzen baditugu, hau da daukagun banaketa: Bizkaitik %45,5, Gipuzkoatik %32,5 eta Arabatik %32,5.

#### Kexen jatorria

	1989	1990	1991	1992	1993	Guztira
Araba	97	125	158	201	182	763
Bizkaia	288	284	293	332	376	1.573
Gipuzkoa	188	195	244	241	250	1.118

(Ikus 41. eta 42. diagramak 108. eta 109. orrialdeetan)

Jatorria lurralde historiko bakoitzeko biztanle kopuruarekin erkatzen badugu, datu hori guztiz bestelakoa da. Horrela, bost urte hauetan jasotako

kexak batzen baditugu, Araban 10.000 biztanleko 28 kexa dauzkagu, Gipuzkoan 16,5 eta Bizkaian 13,5, portzentaiarik txikienaz.

### Kexak 10.000 biztanleko

	1989	1990	1991	1992	1993	Guztira
Araba	4,3	4,5	5,8	7,4	6,7	28,7
Bizkaia	2,9	2,9	2,5	2,8	3,3	14,4
Gipuzkoa	3,2	2,7	3,6	3,5	3,7	16,7

(Ikus 43. eta 44. diagramak 110. eta 111. orrialdeetan)

#### 1.1.5. Estatistika soziologikoa

Euskal Autonomi Elkartearen euskarak eta gaztelera, bi hizkuntzek daukate ofizialkidetasun maila, eta beraz, kexak zein hizkuntzatan aurkeztu diren ezagutzea interesgarria da.

Arartekoari bidali zaizkion kexetatik %93 gaztelera bakarrik aurkeztu dira, %6,5 euskaraz, eta kexen %0,5 bi hizkuntzetan.

Gure lurraldearen hizkuntz errealitatea adierazten duen gaztelera nagusitasun nabari hori horrela izan arren, kexa idatzietan gero eta euskara gehiago erabiltzen da, 1989an %5,8ko portzentaiara iristen ziren bitartean 1993an %6,5era iritsi baitira.

Kexak aurkeztera edo kontsultak egitera Arartekoaren egoitzara etortzen diren askok, ordea, euskara erabiltzen dute harreman horietan. Kasu horretan, zurr egon, euskararen erabilera handiagoa isladatuko lukete portzentaiek.

#### Hizkuntza

	1989	1990	1991	1992	1993	Guztira
Gaztelera	551	577	730	730	746	3.334
Euskaraz	34	32	38	51	76	231
Elebrietan	-	6	1	2	1	10

(Ikus 45-48. diagramak 112. eta 113. orrialdeetan)

Kexen garrantzia balioztatzeko orduan, interesgarria da norbanakoak edo, aitzitik, elkarte edo hiritar talde batek aurkeztu dituzten jakitea.

Horrela, bost urte hauetan aurkeztu diren kexen artetik %15 talde edo auzotar-elkarteek aurkeztu dituzte, eta portzentaia hori azpimarragarria da. Norbanakoek aurkeztutako kexak, berriz, guztien %85 dira.

Urte urteko bilakaera ez da beti era beretsukoa izan, eta gorabehera garrantzitsuak izan ditu, baina halere garbi dago taldeek aurkeztutako kexek gora egin dutela.

## Aurkeztutako keak -banaka/taldean-

	1989	1990	1991	1992	1993	Guztira
Banaka	507	483	683	703	667	3.043
Taldean	78	132	86	80	156	532

(Ikus 49. eta 50. diagramak 114. eta 115. orrialdeetan)

### 1.2. BESTE JARDUERA BATZUEI BURUZKO ESTADISTIKA

Erakundearen Jardueraren estatistika atalean, eta horren edukia lehen bost urte hauetan bideratu diren kea espedienteen zenbatze hutsa ez izateko, ondoren azalduko dugu Ararteko honek beste eskuhartze mota batzuk erabiliz burutu dituen ekintzen laburpen estatistikoa.

Kontuan izan behar da Erakundeak berariz gauzatutako jarduera hauen kopurua kea-espedienteena baino askoz txikiagoa dela, baina horrek ez du esan nahi, inolaz ere, kalitate aldetik, alderdi baten eskariz bideraturiko keak baino kaxkarragotzat hartu behar direnik.

Ildo honetatik, hiritarrek eskatu gabe Ararteko Erakundeak bosturteko honetan burutu dituen ekintzak honela bilduko ditugu estatistikarako:

#### 1.2.1. Berarizko espedienteak

	1989	1990	1991	1992	1993	Guztira
Kopurua	8	6	16	8	7	45

#### Berarizko espedienteak sailez sail

Funtzio Publikoa eta Adm. Ant.	17
Osasuna eta Gizarte Ongizatea	11
Herrizaingoa	6
Ogasuna	3
Nek., Ind., Merk., Tur.	2
Kultura eta Elebitasuna	2
Herrilanak eta Zerbitzuak	2
Hezkuntza	1
Justizia	1
Guztira	45

### 1.2.2. Urteroko ohizko txostenetan jasotako gomendio eta iradokizunak

	1989	1990	1991	1992	1993	Guztira
Kopurua	7	8	6	5	4	30

#### Gomendio eta iradokizunak sailen arabera

---

Funtzio publikoa eta Adm. Ant.	7
Hirigintza eta Etxebizitza	7
Ogasuna	5
Ingurugiroa	4
Kultura eta Elebitasuna	2
Herrizaingoa	2
Hezkuntza	1
Justizia	1
Herrilanak eta Zerbitzuak	1
Guztira	30

---

#### Gaiak

##### *Kultura eta elebitasuna*

- Kirol arriskuentzat babesa. 1989.
- Euskararen erabileraren normalkuntzaz administrazio lokaletan. 1990.

##### *Hezkuntza*

- Hizkuntz eredua halako ikastegi publiko batean aukeratzeko eskubidea eta berdintasunerako eta hezkuntzarako eskubide konstituzionalak. 1991.

##### *Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza*

- Administraritzaren geldikeria. Administraritza-isiltasuna. 1989.
- Herri-Administraritzaren gehiegizko formalismoa eta informaziorik eza. 1989.
- Jakinerazpen formalia garantia moduan eta irakaslegoaren ordezkaketaz. 1990.
- Administrazioaren gelditasuna. Isiltasun administratiboa eta administrazioaren eskubideen ustezko iraungipenaz. 1990.

- Funtzio publikoa antolatzeko tresnak, enplegu publikoaren oinarriko printzipioen berme. 1991.
- Hautaketa prozeduretan administrazioaren espedientea ikusteko ahalmena. Jarduera hori ez onartzeak sor dezakeen defentsa eza. 1992.
- Administrazio publikoen zerbitzurako langileak hautatu eta postuak betetzerakoan nagusitu behar duten prozedura-bermeak eta funtzio publikoan antolabide jakin batzuk ez erabiltzea. 1993.

### *Ogasuna*

- Bidegabeko dirusarrerak itzuli beharraz eta autokitapenen inpugnazioaz. 1990.
- Zergak ordainerazteko orduan, administrazioak ondasun higiezinak egiaztatzean zergadunak dituen garantiak. 1991.
- Administrazioan jakinarazpena babes judizial eraginkorra izateko esku-bidea bermatzearen. 1992.
- Etxebizitzen eraikuntza eta babesteko zaharberritze gaian zenbait onura fiskal berriro indarrean jartzearen egokitasuna. 1992.
- Tresneriaren kostua Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zergaren oinarri ezargarrian sartzea. 1993.

### *Herrizaingoa*

- Ibilgailuen zirkulazioaren santzio-eskubide ezarpena. 1989.
- Atzerritarak herriko biztanleen eroldan sartzea. 1993.

### *Justizia*

- Adin gutxikoaren babesa Euskal Autonomi Komunitatearen esparruan. 1991.

### *Ingurugiroa*

- Iharduketa gogaikarriak eta zaratengatiko kutsadura. 1989.
- Hiritarren eskubideak eta gogaikarritzat emandako jardueraz. 1990.
- Establezimendu publikoetako zaraten inguruko arazoari buruzko hurbilketa juridikoa. 1991.
- Euskal Autonomi Komunitatean ageriko meategi-lanetan (harrobietan) ingurugiro eta gizarte mailako interesak araubidez babestu beharra. 1992.

## Herrilanak eta Zerbitzuak

- Zerbitzu publikoen erabiltzaileak eta haien eskubideen defentsaz. 1990.

## Hirigintza eta Etxebizitza

- Derrigorrezko desjabetzapena eta eragindakoen eskubideen errespetoa. 1989.
- Hirigintza planeamendua, eraikuntza eta lurraren erabileraz. 1989.
- Etxebizitza duin eta egokia edukitzeko eskubideaz. 1990.
- Hirigintzari buruzkoak argitzeko beharraz. 1990.
- Informazioa jasotzeko eskubidea eta alokerari buruzko politika babestutako etxebizitzetan. 1991.
- Hondamen-adierazpenetan ordezeko etxea jasotzeko eskubidea. 1992.
- Babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntz-akatsen erantzukizuna. 1993.

### 1.2.3. Erakundeak egindako argitalpenak

	1989	1990	1991	1992	1993	Guztira
Kopurua	1	1	4	5	8*	19*

(\* Txosten hau egiterakoan hemen sartutako bi lan argitaratzeaz daude)

1) Txosten berezien argitalpenak.

*Kalabozoak. Ertzaintzaren eta Udalen atxiloketa egoitzak.*  
*Psikiatrikoak. Ospitale psikiatrikoetako buru-gaixoen egoera.*  
*Adinekoen egoitzak Euskal Autonomi Elkartearen.*

2) "Padre Francisco de Vitoria" Giza Eskubideen Sailean argitaratutako bekadunen lanak.

*El derecho al ambiente como derecho de participación.* Eduardo Javier Ruiz Vieytez.

*Viviendas de protección oficial y arrendamientos en el País Vasco.* Miguel Angel Encinas Cañón. (Inprimatze-lanetan).

*Estudio sobre la inmigración irregular. Derechos y deberes humanos.* Gema Varona Martínez. (Inprimatze-lanetan).

3) Beste argitalpen batzuk

*Jaquin-bide Iritarautia.* Kadizko Konstituzioari buruz, euskarazko eskuizkribu argitaragabea, irakaskuntzarako moldatua.


*Institutionum.* Gayo.

*De indis insularis eta De iure belli.* Aita Frantzisko Vitoriakoa.




*Idatz arauak / Normas de redacción.*  
*Herrialdeko ombudsmanaren garrantzia. Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarra.*

## JASOTAKO KEXEN KOPURUA URTEZ URTE




1. DIAGRAMA

## EZEZTUTAKO KEXAK URTEZ URTE




2. DIAGRAMA

ESTATUÑO HERRI DEFENDATZAILEARI  
 BIDLITAKO KEXAK




3. DIAGRAMA

**EAEko HIRITARREK  
ESTATUKO HERRI DEFENDATZAILEAREN  
BULEGOAN AURKEZTURIKO KEXAK**




4. DIAGRAMA

BUKATURIKO KEXAK ETA BUKATU GABEAK  
BIDERATZEN HASITAKO URTEAREN ARABERA



5. DIAGRAMA

BUKATURIKO KEXEN ETA BIDERAPENEAN  
DÄUDENEN GUZTIZKO KOPURUA



6. DIAGRAMA

# **JASOTAKO KEXAK SAILEZ SAIL**

**7-19. DIAGRAMAK**




FUNTZIO PUBLIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREN  
ANTOLAKUNTZA




7. DIAGRAMA

HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA




8. DIAGRAMA

OSASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA




9. DIAGRAMA

OGASUNA




10. DIAGRAMA

### HEZKUNTZA




11. DIAGRAMA

### INGURUGIROA



12. DIAGRAMA

### HERRIZAINGOA




13. DIAGRAMA

### HERRILANAK ETA ZERBITZUAK




14. DIAGRAMA

KULTURA ETA ELEBITASUNA




15. DIAGRAMA

NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA  
ETA TURISMOA




16. DIAGRAMA

### JUSTIZIA




17. DIAGRAMA

### LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA




18. DIAGRAMA

KEXEN GUZTIZKO KOPURUA SAILEZ SAIL



19. DIAGRAMA


JASOTAKO KEXAK ADMINISTRAZIOEN ARABERA SAILKATUAK  
- EUSKO JAURLARITZA -



20. DIAGRAMA




JASOTAKO KEXAK ADMINISTRAZIOEN ARABERA SAILKATUAK  
 - FORU ADMINISTRAZIOA -



—■— ARABA    —+— BIZKAIA    —\*— GIPUZKOA

21. DIAGRAMA

JASOTAKO KEXAK ADMINISTRAZIOEN ARABERA SAILKATUAK  
 - TOKI ADMINISTRAZIOA -




	1989	1990	1991	1992	1993
ARABA	23	17	39	72	66
BIZKAIA	66	50	78	74	97
GIPUZKOA	43	44	75	70	66

—●— ARABA    —+— BIZKAIA    —\*— GIPUZKOA

22. DIAGRAMA

KEXEN GUZTIZKO KOPURUA ADMINISTRAZIOEN  
ARABERA.




23. DIAGRAMA

# **GOMENDIOAK SAILEZ SAIL**


**24-37. DIAGRAMAK**

FUNTZIO PUBLIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREN  
ANTOLAKUNTZA




24. DIAGRAMA

INGURUGIROA




25. DIAGRAMA

### OGASUNA




26. DIAGRAMA

### HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA




27. DIAGRAMA

• HEZKUNTZA




28. DIAGRAMA

HERRIZAINGOA




29. DIAGRAMA

### HERRILANAK ETA ZERBITZUAK



30. DIAGRAMA


### OSASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA



31. DIAGRAMA




NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA  
ETA TURISMOA




32. DIAGRAMA

KULTURA ETA ELEBITASUNA




33. DIAGRAMA

### BESTE GESTIO BATZUK




34. DIAGRAMA

### JUSTIZIA




35. DIAGRAMA

LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA



36. DIAGRAMA


GOMENDIOEN GUZTIZKO KOPURUA SAILEZ SAIL



37. DIAGRAMA


# GOMENDIOEN GUZTIZKO KOPURUA ADMINISTRAZIOEN ARABERA

GOMENDIOEN GUZTIZKO KOPURUA




38. DIAGRAMA

FORU ADMINISTRAZIOA




39. DIAGRAMA

TOKI ADMINISTRAZIOA



40. DIAGRAMA

## JASOTAKO KEXAK JATORRIAREN ARABERA




ARABA	97	125	158	201	182
BIZKAIA	288	284	293	332	376
GIPUZKOA	188	195	244	241	250

—●— ARABA
—+— BIZKAIA
—\*— GIPUZKOA


41. DIAGRAMA

KEXEN GUZTIZKO KOPURUA JATORRIAREN  
ARABERA



42. DIAGRAMA

### JASOTAKO KEXAK 10.000 BIZTANLEKO




	1989	1990	1991	1992	1993
ARABA	4,3	4,5	5,8	7,4	6,7
BIZKAIA	2,9	2,9	2,5	2,8	3,3
GIPUZKOA	3,2	2,7	3,6	3,5	3,7

—●— ARABA    —+— BIZKAIA    —\*— GIPUZKOA

43. DIAGRAMA




KEXEN GUZTIZKO KOPURUA 10.000 BIZTANLEKO



44. DIAGRAMA


# JASOTAKO. KEXAK HIZKUNTZAREN ARABERA

GAZTELERAZ




45. DIAGRAMA

EUSKARAZ




46. DIAGRAMA

ELEBIETAN




47. DIAGRAMA

KEXEN GUZTIZKO KOPURUA HIZKUNTZAREN  
ARABERA



48. DIAGRAMA


AURKEZTURIKO KEXAK  
 - BANAKA / TALDEAN -



—●— BANAKA    —+— TALDEAN

49. DIAGRAMA

AURKEZTURIKO KEXEN GUZTIZKO KOPURUA  
- BANAKA / TALDEAN -



50. DIAGRAMA

II. ATALA

**ERAKUNDEAREN JARDUERA SAIL  
EZBERDINETAN**

## 2.1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

Atal honetan, lehen, bigarren eta hirugarren ekoizpen-sektoreetako jardueri buruz jaso ditugun kexak biltzen dira. Une honetatik bertatik esan dezakegu atal honetako gaiak ez dutela liskar handirik piztu bost urteotan, beharbada eremu honek berez ez duelako administratuen eta erakunde publikoen arteko arazo larriarik sortzen; izan ere, kontutan har dezagun agintari publikoek alor honetan burutzen dituzten ekintza gehienak suspertzeakoak direla.

Esparru honetako eskumenak gure autonomi elkarteko administrazio desberdinen artean duten banaketaren arabera, lehen ekoizpen-sektoreari dagozkion kexak foru diputazioen ekintzen aurkakoak dira; aldiz, industria edo merkataritzaren ingurukoak Gobernu autonomoaren Administrazioaren mendeko esparruan kokatzen dira.

Esan bezala, nahiz eta atal honetako kexak gutxi izan, haietako batzuk izan ere badira aipagarriak, haietan azaltzen zen kezka bereziagatik.

Horrela, nekazaritzari gagozkiolarik, aipatzekoa da nola nekazari batzuek Arabako Foru Diputazioaren kontrako salaketa egin zuten, landaketa, birlاندaketa eta mahastien ordezkapenei buruz onartu zuen dekretu batengatik. Kasu honetan, salatzen zen arazoak probintziako eta autonomi elkarteko mugak gainditu egiten zituen, Europako Elkartearen arauen menpe zegoelako.

Kexa batzuk jaso ditugu baserri edo hiriguneetatik aparteko nekazal ustiatokietarako argindar eta ur zerbitzuak ematerakoan gertatzen diren atzerapengatik ere. Horrelako zerbitzuek behar dituzten tendidoak egiteko lursail batzuetan obra egin beharra dagoenez gero, atzerapenak gertatu dira lursailen jabeekin batera akordioa onartzeko, batez ere bidezko balioa erabakitzeako orduan, edo baita jabego-kentze prozedurari loturiko beste zertzelada batzuen-gatik ere.

Ustiategi horien kokapenak berak eragindako zailtasunak erantsi behar zaizkio horri; izan ere, askotan lur malkarretan eta hornidura-guneetatik eta azpiegituretatik urrun egon ohi dira.

Adibide bat ipintzearren, hona hemen Bizkaiko Foru Diputazioak onartu zuen nekazal inguruetan argindarra ipintzeko plangintzari heldu zioten bi baserriarren salaketa. Baserriar horiek, eskabidea aurkeztu zutenetik lau urte igaro ondoren, eta eskatu zizkieten diru-kopuruak ordaindu zituzten arren, argindarrik gabe jarraitzen zuten.

Nekazaritzarako Foru Sailak adierazi zigunez, egitasmoak bazuen Eusko Jaurlaritzaren Industria eta Energia Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzaren baimena, eta hura burutzeko eginkizuna Sociedad Hidroeléctrica Ibérica, S.A.-ri (Iberduerori, alegia) esleitu zitzaion.

Alabaina, obrak egiteko norbanakoen lursail batzuetatik igarotzeko baimena lortu behar zen eta, horretarako zailtasun handiak zeudenez gero, egitasmo ofizialak lursail haiek hartzeko premia aitor zezala eskatu zuen elkarte instalatzaileak.

Azkenik, jabego-kentzeko espedienteak ebatzi egin zen, baina lanak ezin izan ziren hasi, desjabetu beharreko lurzatiaren jabeak eragozten zuelako.

Horrela, zenbait hilabete geroago amaitu ahal izan zen argindarraren instalazioa, bai eta horrela bukatutzat eman ere gaiaren zailtasunengatik amaigabea zirudien kexa horren biderapena.

Nekazaritza azpialal honetatik atera gabe, lurzati-bilketetan orubeak esleitzen direnean ere gertatzen dira arazoak, eta hortik ere sortu dira hainbat kexa. Jabeen eta Administrazioaren arteko desadostasunak berriz esleitutako lurzatiak lurtean bertan mugatzerakoan gertatu ohi dira. Ildo horretatik, eta era honetako kexak nolakoak diren erakusteko, ikus dezagun Arabako lurzati baten jabeak salatu zuen kasua; haren esanetan, egiten ari zen lurzati-bilketarako espedientearen, Arabako Foru Diputazioak eskritura publikoek ziotena baino ehun metro karratu gutxiago eman zizkion bere lurzatiari.

Kontua da Arabako Foru Diputazioko teknikariek lurzati-bilketarako egin zuten planuaren arabera, kexadunaren lurzatiak egiaz notariaren agirian eta Jabego Erroldan agertzen zena baino ehun metro karratu gutxiago zituela. Hala ere, ezin esan zitekeen Administrazioaren jardueran inolako okerrik gertatu zenik, gogoan hartu behar baita eskritura publikoek ondasun edo eskubide baten jabea nor den egiaztatzen dutela eta horren frogagiri direla, baina ez dutela argitzen zeintzuk diren lurzatiaren ezaugarriak.

Azkenik, nekazaritzari buruzko kexen artetik aipagarriak dira 1993 urtealdian euskal nekazarien elkarte profesionalek Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza Sailak dirulaguntzak banatzeko erabilitako irizpideen kontra aurkeztu zituztenak.

Zehazkiago esanda, arazoa 1992an piztu zen, Euskal Nekazarien Batasuna (ENBA) sindikatua sortu izanaren ondorioz. Izan ere, ordurarte Euskal Nekazarien Elkarteak (EHNE) osorik jasotzen zuen aurrekontu-atalari zegokion diru-kopurua bien artean banatu beharko zen aurrerantzean, eta bakoitzari eman beharreko diru-kopuruaren inguruan desadostasun eta salaketak sortu ziren bi elkarteen artean.

Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza Sailak agindu-zirriborro bat osatua zeukan dirulaguntzak banatzeko irizpideak finkatzearen; zirriborro horrek zioenari jarraiki, aurrekontu-atalaren zenbatekoa berdin partitu behar zen hiru lurralde historikoen artean. Lurralde bakoitzarentzako kopurutik %30a eman behar zitzaion lurralde horretxetan lanean ziharduen lanbide-elkarte bakoitzari. Geratzen zen zenbatekoa elkarte bakoitzaren bazkide-kopuruaren eta bakoitzak aurkeztutako ekintza-txostenaren arabera banatu behar zen.



Bi elkarteek gaitzetsi egin zuten zirriborro hura, eta horregatik Sailak, azkenik, honako banaketa hau egitea erabaki zuen: Bizkaian, EHNERi 6 milioi eta ENBARI 3 milioi; eta Gipuzkoan, EHNERi 5 milioi eta ENBARI 4 milioi. Araban, aldiz, 9 milioiak UAGARI eman zitzaizkion, lurralde historiko horretan ENBAK ordezkariarik ez duelako.

Bi sindikatuek jo zuten Ararteko honetara: EHNEK, ENBARI esleitutako diru-kopurua gehiegizkoa zela uste zuelako, haren bazkidetza mailari begira; eta honek, ordea, emandako diru-kopuruaren arteko aldea arrazoigabea eta bereiztailea zela uste zuelako.

Erakunde honetan egin genuen azterlanaren bitartez, bakoitzarentzako dirulaguntzak emateko Nekazaritza Sailak erabili zituen irizpideak aukeran zeudenen arteko batzuk baino ez zirela eta, beraz, beste edonolakoak ere har zitezkeela ikusi genuen; baina, halere, ezin esan zitekeen Administrazioak bere laguntza-lanetan oinarri hartu behar dituen alderdigabekeriarik gabeko eta zuzenbidez jokatzeko irizpideak hautsi zituenik.

Nolanahi ere, egokia iruditzen zitzaigun gomendatzea agindu baten bidez finka daitezela aurrerantzean dagokion aurrekontu-atala banatzeko erabiliko diren irizpide horiek. Egin ere halaxe egin zuen Administrazioak 1993ko azaroaren 18ko Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitara eman zuenean Nekazaritza eta Arrantzu Sailburuaren 1993ko azaroaren 16ko Agindua, Euskal Autonomi Elkarteko nekazari sindikatu edo lanbide-elkarteentzako dirulaguntzen banaketa arautzen duena.

Azpiatal honi buruzko iruzkinak amaitzeko, abeltzain batzuek larretokiak banatzean izandako arazoengatik aurkeztutako salaketak aipa daitezke. Azkenik, ehizean baimenik gabe aritzeagatik ezarritako zigorren kontrako kexa batzuk ere iritsi zaizkigu, bai eta hiruguneetatik hurbil ehizean aritzearen kontrako zenbait salaketa ere.

Industria azpiatalean sartuz, jaso ditugun erreklamazio gehienak Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren (aurrerantzean IAT) puntu berezi batzuei buruzkoak izan dira; batez ere, Administrazioak dagoen eskariari aurre egiteko adinako baliabiderik ez duela salatzen da kexa horietan.

Ildo horretatik, lehenago ere gomendatu izan dio Ararteko honek dagokion Industria Ordezkaritzari arazoa konpontzeko bide egokiak aurki zitzala; hona hemen aukerako konponbide batzuk: eskaririk handieneko lekuetan beste IAT zentru bat jardunean jartzea; eskariei erantzuteko langile gehiago kontratatzea eta baimendutako tailerretan egunero egiten diren ikuskapen edo azterketak ugaltzea; edo, bestela, tailer gehiagori ematea horretarako baime-na.

Bestalde, Arrigorriagako IATren kokapena ere salaketa-arrazoi izan zen. Zehazki esanda, hango instalazioetara iristeko autopista erabili eta horri dagokion bide-saria ordaindu beharra dagoela eta, beraz, zerbitzua garestiago ateratzen dela salatzen zen.

Hasieran, Arrigorriagako IATra iristeko ez zen inolako bide-saririk ordaindu behar. Baina 1988ko urriaren 26an Herrilan eta Hirigintza Ministeriaren Errepide Zuzendaritza Nagusiak A-68 autopistako Arrigorriagako zer-

bitzugunean bide-sariaren ordaintokia jartzeko baimena ematea erabaki eta orduantxe sortu ziren arazoak. Hortaz, handik aurrera, Arrigorriagako IATra iritsi nahi zuenak derrigorrez ordaindu behar zuen autopistako bide-saria, instalazio horiek izen bereko zerbitzugunearen ondo-ondoan baitaude, hainbat urte lehenago Errepide Zuzendaritza Nagusiak emakidaz utzitako lursail batean.

Erakunde honen aburuz, egoera horrek kalte egiten zien Arrigorriagako IATren zerbitzuak erabili behar zituzten hiritarrei, eta, gainera, arazoa Administrazioaren aurrikuspen-huts batengatik sortu zen; horiek horrela, Industri eta Merkataritza Sailak zeharkako eta derrigorrezko garestitze hori kentzeko ahal zuena egin behar zuela generitzon:

Arartekoaren gomendioari erantzunez, Industri Sailak zerbitzu hori pribatu bihurtzeko aukera aztertu zuen, zerbitzuak antolabide publikoaren esku jarraituz gero, ez zelako aipatutako kostu gehigarria bere gain hartzea aurrakusten.

Azkenik, irtenbide hori aukeratu eta kontrataziorako lehiaketa antolatu zuen, IAT zerbitzua ustiatzeko baldintza-orrietan argi utziz ibilgailu bakoitzari ezarri beharreko tarifatik IAT horretara sartzeko gutxienezko bide-sariaren zenbatekoa derrigorrez kendu behar zela.

Industriari buruzko atal honetan, bestalde, etxebizitza pribatuetako berotze-instalazioetan ustez gertaturiko araugabekeria batzuen aurkako kexak ere jaso izan ditugu; honelakoetan, Industria Sailaren derrigorrezko baimenik ez izatea edota instalaziorako neurri zuzentzaileak ez betetzea salatzen zen.

Era berean, gas-instalazioen hainbat akats ere salatu dizkigute; gai honetan, batzutan ardura edo erantzukizuna eska lekiok Administrazioari, zerbitzuak oker eraentzeagatik.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren Industri eta Enerji Sailak igogailuak aldizka zaintzeko egiten dituen ikuskapenak zilegizkoak ote diren zalantzan jartzen duten zenbait salaketa ere jaso ditugu.

Gai honen inguruan Arartekoak egin dituen antoletan, alde batetik, errekamatzaileei zenbait argibide eman zaizkie; haietan adierazi zaienez, alde batera utziz alor horretako entrepresaren batekin egindako mantenimendu hitzarmena, eskumena duen administrazioak edota honek bere ordez aukeratzen duen entpresak aldizkako kontrol-ikuskapen horiek derrigorrez egin beharra dauka, legearen arabera, eta azterketa horiek mantenimenduaz arduratzen den entpresako ordezkarien aurrean egin eta dagokion akta eskuratu behar zaie. Halaxe dago finkatua azaroaren 8ko 2.291/1985 EDn, 1966-6-30eko Industri Ministeritzaren Aginduetan eta Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 25eko 275/1986 eta abenduaren 1eko 307/1988 dekretuetan.

Beste alde batetik, gai honi buruzko kexa ugari jaso izan ditugunez, gomendioa helarazi genion Eusko Jaurlaritzaren Industri eta Enerji Sailari, aurrerantzean, erakundeek etxejabe-elkarteei arauzko ikuskapen eta zaintzarako jakinarazpena egiten dietenean, oinarri hartzen duten araudia aipa dadin.

Gomendio hau bete egin da eta, frogatu ahal izan dugunez, gaur egungo jakinarazpenak Arartekoak adierazi bezala egiten dira.

Amaitzeko, merkataritzari gagozkiolarik, azpiatal honetan sartu beharreko kexak oso gutxi izan direla adierazi nahi dugu.

Horregatik, Arabako prentsa-saltzaileen bi elkartek Erakunde honi azaldu zioten salaketa baino ez dugu hona ekarriko; kexa-bidaltzaileek ziotenez, Gasteizko okindegietan aldizkari eta egunkariak ere saltzen ziren, eta horrek kalte handiak eragiten zizkien beraiei.

Ikuspuntu juridikotik begiraturuta, nahiko arazo korapilotsua zen, horri buruzko araudian araubide bat baino gehiago agertzen baitziren eta haren inguruko eskumenak administrazio-sail bat baino gehiagok baitzituzten.

Horrela bada, arazo honetan sartutako alderdi guztiekin hainbat antola egin genituen konponbide juridikorik egokiena aurkitu asmoz. Alde batetik, harremanetan jarri ginen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin eta, orobat, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailarekin; aldi berean, Gasteizko Udaleko arduradunengana ere jo genuen, ogi salmentarako osasun-arauak behar bezala betearazteko Udalak jarraitu behar zituen irizpideak finkatzeko.

Beharrezko argibideak oro bildu ondoren, Arartekoak gomendio bana egin zien arazoarekin zerikusirik zuten administrazioei. Gomendio horietan, gai honi buruzko eskumenak nola banatuta dauden eta arazoa bera zehazki nola arautua dagoen argitzen zen; bestalde, lege-arrazoietan oinarrituz, Udalak arazoa konpontzeko bere ahalmen betearazlea erabili behar zuela genioen. Eta, azkenik, okindegietan prentsa saldu ahal izateko zein baldintza bete behar diren zehazten genuen. Gomendioa amaitzeko, administrazio guztiei bakoitzak bere eskumeneko ahalmen exekutiboa erabil zezan eskatzen genien.

Erantzunean, bai Osasun Sailak, bai Gasteizko Udalak ere gomendioarekin ados zeudela eta esandakoa betetzeko egin beharrekoak egiten hasiak zirela eman ziguten aditzera.

## 2.2. KULTURA ETA ELEBITASUNA

Atal honetan bildu ditugun gaiak kultura izeneko atal baten pean jasota egon zitezkeen arren, kultura eta elebitasuna azpiatalak bereizi ditugu urteroko txostenen ondorioetarako, batez ere elebitasunazko kexak ugariak izan direlako eta, beraz, bereziki nabarmendu behar genituela uste izan dugulako.

Kultur alorrari dagokionez, argi dago Administrazioaren ekintza gehienek suspertze helburua izaten dutela. Horregatik, hiritarrek beren kexetan azaldu dizkiguten gai gehienak bideratzerakoan, haxe zen Arartekoak egin dituen antolen bidez ziurtatu nahi genuena: Administrazioak zenbateraino betetzen zituen bere suspertze-ekintzarako ezarrita dauden arauak.

Administrazioaren Antolakuntza eta Kultura atalen tartean kokatzen diren kasu horietaz gainera, kultur kutsu handiagoko beste ekintza batzuk ere egon dira.

Ondare historiko-artistikoa iraunarazteko kezka azaltzen zuten zenbait kexa ere iritsi zaizkigu, asko ez izan arren. Haietako batzuk arrazoizkoak ziren

Ararteko honen iritziz, eta egindako biderapen-lanen ondorioa gogoko izan zituzten alderdi guztiek.

Euskara hizkuntza ofizialkidetzat eman eta, jarraian, ofizialtasun hori Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Oinarrizko Legearen bitartez arautu eta gero, euskararen erabilerak ondorio guztietarako balioa zuela legez aitortua geratu zen.

Aro berri bat hasi zen horrela euskararen erabileraren normalkuntzarako, lehenago, 1979an, euskara irakaskuntz sisteman sartzeko beharra onartzean nolabait urratu zen bideari helduz.

Ofizialkidetasuna aitortu zehean, gure elkartean nabarmena zen euskara nahiko egoera ahulean zegoela gazteleraren aldean. Hortaz, legearen arabera, agintari publikoek ahulezia hori sendotasun bilakatzeko ahaleginak egin behar dituzte aitortutako ofizialkidetasun hori hutsean gera ez dadin.

Komenigarria da esatea hizkuntz eskubideak deritzenak ezartzeak sentimendu-ikutu handi xamarra dakarrela berekin, eta horregatik askotan arazoei heldzean ez dela behar adinako lasaitasuna egoten, batez ere eskubide horiek alderdikieriaz erabiltzeko arrisku nabaria dagoela kontutan hartuz.

Orainsu arte lege-arauz elebakartzat hartu izan den gure gizarte honetan sortutako gatazkak ugariak izan dira eta, era berean, behin baino gehiagotan eman behar izan dute beren epaia ohizko justizi epaitegiek; dena den, haietan aztertutako puntuei buruzko irizpideak geroago berbideratu egin dira, Konstituzio Auzitegiak emandako epai batzuen eraginez.

Ararteko Erakundea lanean hasi zenerako, hau da, bere titularra 1989an izendatua izan zenerako, baziren bost urte euskararen ofizialtasuna arautzen zuen legea indarrean zegoela.

Hortaz, bost urteotan euskararen erabilerarekin edo eskakizunarekin loturiko arazoak aztertu beharra gertatu zaigunean Ararteko erakunde honetan, azterketa horretarako tresna oso baliotsuez baliatzerik izan dugu: alde batetik, legea indarrean jarri zenez geroztik orain arte izandako esperientziaren beraren aberastasuna; eta, bestetik, doktrinaren eta jurisprudentziaren bitartez hizkuntza hori erabiltzeko eskubidearen legezko edukiaren puntu batzuei buruz lortu den zehaztasun handiagoa.

Hizkuntzagatik baztertuak sentitzen ziren hiritarrek aurkeztu dizkiguten kexak aztertu ditugunean, arazo horren bi ikuspegi landu ditugu batik bat. Alegia, euskararen egoera okerragoatik beren burua kalteturik ikusten dutenen kexak ugariagoak izan diren arren, agintari publikoek hizkuntza horren egoera zuzentzeko hartu dituzten neurri arbitrarioen ondorioz baztertuta sentitzen zirenek ere azaldu digute beren kexua.

Alde batetik, hizkuntzarik ahulenaren alde Administrazioak egiten zituen bidezko ekintzak gutxiegi ziren hiritar batzuen iritziz, baina, euskal gizarteko beste sektore batzuen ustez, ordea, neurri horiek bazterkeria bultzatzen zuten, gutziz bestelako arrazoibideak erabiliz uste hori argudiatzeko.

Herri-agintariek euskara erabiltzeari dagokionez, jaso ditugun kexa gehienetan hiritarrak kexu ziren Administrazioarekiko harremanak euskaraz izateko

zailtasunagatik, eta administrazio desberdinek askotan gaztelera baino ez dutelako erabiltzen beren idazki, errotulu, iragarki eta abarretan.

Salaketa horiek aztertzean, Ararteko erakunde honek oso kontutan izan zuen euskara erabiltzeko zailtasuna berez langai eta giza baliabideen mugek berek eragiten dutela, eta, beraz, faktore hori ezin zitekeela ahaztu administrazio jakin batek egindako ahalegina epaitzean.

Irizpide hori hartzea beharrezkoa zen, besteak beste, Euskararen Erabilerraren Normalkuntza Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak (10/82 Legeak) hizkuntza hori erabiltzeko eskubidea pausoka-pausoka bermatu behar dela eta, beraz, gizartea gutxinaka horretara moldatzen den neurrian bete ahal izango dela eskubide hori dioelako.

Nekez lortuko da adostasunik 10/82 legeak agindutakoa betetzeko zenbaterainoko ahalegina egin den epaitzean. Baina, halere, esan dezakegu gure komunitate autonomoaren eskumeneko agintari publiko gehientsuenek onartu dutela legeak agindutakoa betetzeko beharra, alegia, legea indarrean jarri zenean zeuden zailtasunak arian-arian murriztu beharra.

Arartekoaren iritziz, euskararen erabilera bermatzeko bitartekorik eza salatzen zuten kexak onartuak izan ziren, eta zegokion administrazioari igorri zitzaizkion, kasu hauetan eskubidea ahalbideratzea ezin zezakeelako bere nahiaren arabera erabaki.

Salatutako administrazioak euskalduntzeko ahaleginak egiteari ekin ziola ikusi ondoren hartu zuen Arartekoak erabaki hori.

Dena dela, zailtasun objetibo horiek ez dira nahikoa arrazoi alor honetan jasotako kexetan salatu diren ekintza edo jarrera guztiak zurrizteko.

Izan ere, kasu batzuetan, hiritarrek euskara-eskaintza handiagoa egoteko eskariari aurrikuspen faltagatik bakarrik ez zitzaion behar bezalako erantzuna ematen, hau da, euskararen ofizialkidetasunari buruz gaur egun oraindik ere badagoen ikuspegiaren ondorioz, seguru aski.

Nolanahi ere, gure ustez ekintza edo jarrera oker horiek ez dira euskara erabiltzeko eskubidearekin bakarrik gertatzen, inork zalantzan jartzen ez dituen beste eskubide batzuetan ere antzeko egoera aurkitzen baitugu. Hor dago, esate baterako, administrazio-isiltasunaren erabilera, inork ere kolokan jarri ez arren hiritarrak eskubide osoa duela bere eskarien ebazpen argia lortzeko.

Ildo honetatik, nahiz eta kexa hauek lotura nabarmena eduki euskara erabiltzeko eskubidearekin, ez dugu uste arazorik egongo litzatekeenik Administrazio-Antolakuntzari buruzko atalekoen artean sartzeko.

Kasu hori aurkitzen dugu ondoko bi adibide hauetan; lehendabizikoan, aurrikuspen faltagatik, lanpostu bat betetzeko lehiaketa batean ez zegoen euskarazko galde-sortarik eta, beraz, lehiatzaile batzuek ezin izan zuten hizkuntza hori erabiltzeko duten eskubideaz baliatu; bigarrenean, ordea, Autonomi Elkarre osoko hiritar guztientzako erantzungailu automatiko bati buruzko kexa jaso genuen, argibideak bi hizkuntza ofizialetako bakar batean ematen zituela salatzeko zuena.

Eskubide hauek bete ahal izateko halako bitarteko batzuk ipini behar dira, beste batzuekin gertatzen ez den bezala; bada, eskubideen eta bitartekoen

arteko ezinbesteko lotura hori unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzaren esparruan ere aurkitu dugu. Hemen, arazoa bi mailatan gertatzen da: alde batetik, eskaintzen diren baino euskalduntze-maila handiagoa eskatzen dutenentzat; eta, bestetik, A ereduari irakaskuntz eskaintza txarragoa ematen delakoan beren burua diskriminatuta ikusten dutenentzat. Lehendabiziko kasuan, hiritarak kezu ziren eskatzen zituzten D edo B eredu "hobetuak" ematen ez zitzaizkielako; eta bigarrenean, aldiz, A ereduaren plangintzak gaztelaniaren erabilera baztertzen edo zokoratzen zuela uste zutelako.

Euskara irakaskuntzan erabiltzeak garrantzi handia dauka bere ofizialkidesuna normaltzeko bidean, eta horregatik 10/82 legean erabilera horrek izan zuen araupetzearen argitan aztertu genuen.

Bestelako ohar batzuk ere egin litezkeen arren, kexa horiek aztertu ondoren, Arartekoak erabaki zuen salatzen zen hezkuntz eskaintzaren plangintza horretan ez zegoela hezkuntzarako eskubidearen funtsezko mamiaren kontrako ezer.

Ohizko legezkotasunaren inguruko beste gorabehera batzuei zegokienez, egin ziren gogoetak Administrazioak hezkuntz alorreko beharren plangintzan duen aukera-ahalmenaren erabilerrari buruzkoak izan ziren batipat.

Honelako kasuetan administrazioek izaten dituzten bitartekoak edo, besteala esanda, aurrekontu-mugak oso baldintzagarriak direla onartuta ere, horrek ez du inola ere oztopatu hizkuntz erduei buruzko kexen onarpena.

Ez gaude, beraz, erabaki libreko esparru baten aurrean, eta Administrazioak plangintzak egitean aukeratzeko ahalmena badu ere, ez dugu ahaztu behar, euskararen erabilerrari buruzko legeak dioenez gainera, irakaskuntzaren zerbitzuan jarritako baliabideen programazioa bitarteko horiez lortu nahi den eskubidea ahalik eta hobekien betetzera bideratu behar dela.

Esandakoaren arabera, eta guraso edo tutoreek hizkuntz erduei buruz egiten dituzten eskariak baliabide erabilgarrien menpe dauden neurrian, nabarmenezkoa da nolako garrantzia duten irakaskuntzaren programazio orokorrak eta eskolako plangintzak, hezkuntz Administrazioaren jarduera ikuskatzeko eta hartan parte hartzeko tresna gisa.

Era berean, informazioa emanez eta programazio orokorraren barruko tresna batzuen (lanpostu-zerrendak esate baterako, ikastetxe bakoitzaren hizkuntz ezaugarrietan eragina baitute) oinarrietan dauden irizpideen arabera jardunez hobeto eta argiago zehaztu ahal izango dira halako hizkuntz maila bat lortzea eskatzen zaien irakasleen egoerak.

Azaldu zaizkigun kexak aztertzean nabarmen geratu da hemen aipatutako puntu hauen guztien garrantzia; 1/93 eta 2/93 lege onartuberriak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa bata eta Euskal Autonomi Elkarteak irakaslegoari buruzkoa bestea, oso lagungarriak izango dira hemendik aurrera, haien aginduen arabera auzi hauek oro argitzeko. Beren onarpena dexente atzeratu da, baina horrek bere alde onik ere izan du, alegia, haietan araututako hainbat alderdi saio bidez aztertzeko denbora luze samarra eduki ondoren onartu direla.

Lege horietan irakaskuntzako euskarari buruzko zenbait alderdiren inguruan gertatu diren gorabehera batzuk aipatu beharko genituzke orain.

Administrazioak antolakuntza mailan duen ahalmenaren oinarrizko irizpideen arabera, 1/93 legeak eskolako plangintzaren menpe jartzen du eskatutako hizkuntz ereduaren onarpena. Orobat, horri buruzko eskari bat onartzeko baldintza bezala, behar adina guraso edo tutore eskariaren alde egon beharra ezartzen da.

Honi buruz legeak egiten dituen aurrikuspenei begira, pentsatu behar dugu legegileak araututako prozedura bat finkatu nahi izan duela hizkuntz ereduak onartzeko.

Horrek ez du esan nahi Administrazioak bere gain duen aukera-ahalmen teknikoak murriztu behar denik, baina bai, ordea, ahalmen horretaz baliatzean bere erabakiak arrazoitu behar dituela, legeak berak jasotzen dituen neurbi-deen arabera: behar adina guraso, eskolako plangintza, etab.

Gai honi buruz jaso ditugun kezak hemen azaldutako gogoeta guztien argitan aztertu, eta horren ondoren hezkuntz alorreko Administrazioari jakinarazi zitzaizkion.

Hezkuntzaren alorreko programazio orokorra osatzen duten tresnak aipatu ditugunean, irakasleei ezartzen zaien euskaraz jakiteko betebeharrari begira tresna horiek nola erabili behar diren adierazi dugu.

Langile publikoei buruzko esparru honetan kokatzen da Administrazioaren euskalduntzea dela eta salatzen den bereizkeriaren beste alderdia.

Euskara erabiltzeko eskubide objektiboari erantzuteko baliabide erabilgarriaz mintzatzen garenean, batez ere lanpostu publiko batera sartu ahal izateko bi hizkuntza ofizialak jakiteko beharra ari gara aipatzen.

Administrazioan euskara erabiltzekotan, horretarako beharrezkoak diren baliabideak eta bitartekoak ipini behar dira, eta haien artean, langile euskaldunak edukitzea, euskara erabiltzeko eskubidea bermatu ahal izateko. Konstituzio Auzitegiak (82/86 epaian) nahikotzat hartu zuen arrazoi horretan oinarritzen da euskara jakiteko beharra eta, horren ondorioz, ezin esan daiteke betebeharrori ezartzean lanpostu publikoetara sartzeko berdintasun-irizpidea kaltetu egiten denik.

Konstituzio Auzitegiak bere epai hori eman zuenean dexente argitu ahal izan ziren herri-agintariei eskatzen zitzaizen pixkanakako euskalduntzea lortzeko zeuden zailtasunetako asko, eta horixe hartu dugu irizpide nagusi euskararen eskakizunari buruz aurkeztu zitzaizkion arazoak aztertzean.

Irizpide nagusi hori, beraz, ondo dator euskararen erabilerari buruzko legeak finkatzen duenarekin, eta hari jarraituz zehaztu da zein lanpostutan den beharrezkoa bi hizkuntza ofizialak jakitea.

Erakunde honek oso kontutan izan ditu irizpide horiek jasotako kezak aztertzean, eta, ildo horretatik, 1993 urtealdiari buruzko txostenean adierazi dugu zenbait lanpostutan zehaztu gabe dagoela eskatzen den euskara maila; hori oraindik gertatzen da administrazio batzuetan, haien funtzio publikoa halako araupetze berezi baten bidez gauzatzen denean.

Hezkuntzaren alor honetan kexaren bat eragin duen azken gaia aipatu nahi genuke amaitu baino lehen.

Ez dago esan beharrik zeinen garrantzitsuak diren testuak euskaraz ematen diren ikasgaiak prestatu eta ikasteko. Horregatik, araugabekeriatzat hartzen ez dugun arren, bidezkoa iruditu zaigu aipatzea nolako eragin kaltegarria eduki dezakeen euskaraz bibliografia oso urria egoteak.

Bost urteotan eskuartean erabili ditugun gaien artetik bakarren bat egon da aipatu ditugunez bestelako izaera berezia izan duena.

Ondoren aurkeztuko dugun kexaren inguruko gorabeheren artetik, euskararekin zeukan lotura izan zen Arartekoak kexatzat onartzeko arrazoiak.

Euskaldunon Egunkariak bidali zigun idazkia zen, iragarki ofizialak banatzeko moduagatik bazterturik zeudela salatzen zuena.

Arartekoaren iritziz, idazkia kexatzat onartzeko arrazoi nagusia egunkari hori oso-osorik euskaraz egina izatea zen, eta zertzelada hori aintzat hartuz bideratu zen kexa moduan.

Arazoa ikuspegi horretatik aztertu ondoren, idazkian aipatzen zen administrazioari, gomendioa bidali zitzaion, iragarki ofizialak banatzeko erabiltzen ziren irizpideetan kontutan har zezan osorik euskaraz argitaratutako egunkaria zela hura.

Erakunde honek euskara erabiltzeko eskubideari buruzko hizka-mizkan esku hartu behar izan duen kasuetan, salatzaileak era askotakoak izan direla esan beharko genuke.

Batzuetan, ohizkoa den ez bezala, administrazio batzuek jo dute gure erakunde honetara beste erakunde batzuek, beren ustez, ez zituztelako betetzen 10/82 Legeak autonomi elkarte honetako herri-agintari guztiei ezartzen dizkien betebeharrak.

Herri-administrazio batzuek askoz ahalegin handiagoa egin dute hizkuntza normalkuntza lortzeko, eta beharbada horregatik administrazio horietxek salatu dute erakunde publiko askok hizkuntza ofizialetako bat bakarrik erabiltzen dutela beren idazki ofizialetan.

Euskararen ofizialkidetasunaren aitorpenak lurralde osoan du eragina eta, beraz, Euskal Autonomi Elkartearen lurraldean dauden herri-agintari guztiei dagokie hura errespetatzea eta errespetaraztea. Hori horrela izanik, gure elkartearen Estatuak dituen agintari publikoek ere bete behar dituzte aitorpen horrekikoak.

Beraz, 10/82 legearen eragin esparrua era honetan zehazturik, ez da harrizkoa hiritarrak Estatuko Administrazioarekiko ere desadostasuna agertu izana.

Honelako kasuetan, Arartekoaren egitekoa kexa horiek administrazio eskudunari helaraztera edo Estatuko Herri Defendatzaileari bidaltzera mugatu da, baina ez beti. Horrela, ibilgailu-gidarien gaitasun psikofisikoa aitortzeko inprimakiak hizkuntza bakarrean idatzita zeudela salatzen zuen erreklamazio bat iritsi zitzaigunean, Ararteko Erakundea Gobernuaren Euskal Herriko Ordezkaritzarekin jarri zen harremanetan.



Handik gutxira, Gobernuaren Ordezkaritzak bere erantzuna jakinarazi zigun, eta haren arabera, inprimaki horiek autonomi elkarte honetako bi hizkuntza ofizialak erabiliz egiteko agindua eman zuen.

## 2.3. HEZKUNTZA

Hezkuntzarako eskubidea berez norbaitengandik jasotzearen menpe dago, edo, bestela esanda, emandako zerbitzua da, eta administrazioak arlo honetan eskaintza baliabide mugatuez egiten duenez gero, beti ez zaie erantzun egokia ematen eskola-komunitateko alderdi bakoitzaren eskeei.

Horrek azaltzen du Erakundearen bideratutako gai guztien artean zergatik diren hainbeste hezkuntzakoak, txosten honen aparteko atal bateko estatistika-datuek erakusten duten legez.

Jakina, bost urteotan gure Erakundeak alor honetan egin duen lana eten-gabea izan dela esan daiteke, ez bakarrik sailak berez hartu duen garrantziagatik (gutxi gorabehera, %10), baizik eta bai lan horretan eduki ditugun eztabaida eta gogoetagaiengatik berengatik ere; gure hemengo azalpenean, honako sailok bereiziko ditugu: (1) unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza; (2) unibertsitate-irakaskuntza; eta, azkenik, (3) desberdintasunak orekatzeko ekintzak.

### **Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza**

Hezkuntzarako eskubidea Konstituzioko 27. atalean jasota dago, eta zenbait legeren bitartez hezurmamitu da, bai Estatu mailan, LODE (Hezkuntzarako Eskubideari buruzko Lege Organikoa) eta LOGSE (Hezkuntz Sistemari buruzko Lege Organiko Orokorra) izenekoekin, bai Euskal Autonomi Elkartean bertan, Euskal Eskola Publikoaren Legearekin. Hezurmamitze horren ondorioz, gai honetan eskumena duten herri-administrazio ezberdinek badute irakaskuntzari buruzko egitarau orokorrak tajutzeko ahalmena, bai eta, beraz, une bakoitzean irakaskuntz sare publikoa osatu behar duten ikas-postuak sortu, batu edo ezeztatzea ere.

Hala, bada, gure elkartean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egin duen hezkuntz egitarau orokorra izan da unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzaren barruan kexarik gehien eragin duena.

Nolanahi ere, aipatu dugun arazo nagusi horren barruan bereizketa batzuk egin daitezke.

Lehendabizi, nekazal inguruetakoko irakaskuntz egitarauari buruzko arazoak nabarmenduko ditugu.

Sarri askotan, nekazal inguruetakoko ikastegietako guraso eta irakasleek Arartekora jo dute, ikasleek bizi diren udalerrietan eskolatuta jarrai dezaten eta eskolatze horren baldintzak hobeto daitezten; izan ere, nekazal bizi-tza pixkanaka bazter uzten ari direla iruditu zaie, eta hori galerazi nahi izan dute.

Hori gertatu denean, hezkuntz administrazioak aditzera eman du irakaskuntzaren kalitatearen onerako dela dauden baliabide eta bitartekoak batera biltzea.

Gure erakundea nahiko mugatuta dago arazo hauetan; jakina, legeetan jasota dagoenez, salbuespen gisa, komeni den nekazal-lekuetan agintari publikoek ez dute derrigorrez ikaslearen udalerrian bertan lehen irakaskuntzako dohaneko postu bana ziurtatu behar (LOGSEko 65. artikulua).

Gauzak horrela, proposatzen den edozein hezkuntz eredu, bai eta haietako bakoitzean gerta daitezkeen aldaera guztiak ere sar daitezke gai hau arautzen duten lege-ebazpenetan: hots, ikasleak bizi diren udalerrian eskolatzea, edota, bestela, hurbileko udalerrietara bideratzea. Ildo honetatik, irizpide juridiko hutsetatik kanpoko beste batzuek esango digute aukera horietako bakoitza egokia den ala ez, eta hori ebazteko orduan ezinbestez hartu behar dira kontutan biztanlegoaren banaketa, eskuarteko baliabideak, etab.

Horregatik guztiagatik, hezkuntz administrazioak alor honetan duen aukera-ahalmenak Arartekoak era honetako arazoetan zuzenean parte hartzea eragozten edo, hobe esanda, ezegoki bihurtzen duen neurrian, alderdi guztien nahiak kontuan hartu eta guztien partaidetza suspertuko duen hezkuntz egitarau baten aldeko agertzen gara.

Bigarrenik, halako ikastetxe batek bere inguruaren ezaugarrien arabera eduki behar dituen gela kopuruaren programazioa ere aipatu behar dugu.

Alde batera utzirik hizkuntz normalkuntza, berau gorago aztertuko baitugu, gurasoek beren eskariari erantzungo zion hezkuntz eskaintzarik ez zegoela salatzen zuten erakunde honen aurrean, edo bestela esanda, ez zietela errespetatzen umeen ikastetxea aukeratzeko eskubidea.

Berriro ere esan behar dugu Arartekoa bezalako bitartekari-erakundeek arazo hauetan esku hartzeko aukera nahiko mugatua dagoela, hezkuntz Administrazioak aukera-ahalmen osoa duelako irakaskuntzaren programazio orokorra egitean, hezkuntzarako eskubidea bezalako prestazio-eskubide bat eragin-kortasunez bermatzearren.

Esanak esan, ikasleak aukeratutakoez beste ikastetxe batzuetara bidertzen zituztela zioten salaketa hauen aurrean, alde batetik Hezkuntza Sailaren argudioak zenbateraino diren egiazkoak ikusi nahi izan dugu; hau da, gainbehera doazen hezkuntz ereduaren eskaria ikastetxe berean batzeko erabakia arrazoizkoa den ala ez.

Eta, bestetik, hezkuntz administrazioaren diskrezionalitate hori bere ahalmenen mugen barruan erabiltzen den ala ez ziurtatu nahi izan dugu. Ildo horretatik, kasuz kasu Administrazioaren erabakiaren oinarri diren arrazoiak (hezkuntz ereduaren eskaria jaitsi dela edo oso banatuta dagoela) egiazkoak diren frogatu nahi izan dugu, bai eta hartutako neurria egokia den ere iritsi asmo den helburua lortzeko (hezkuntz ereduaren eskaria handiagoko ikastetxeetan batzea), etab.

Hirugarrenik, ikastetxea aukeratzeko eskubidea zertan mamitzen den, eta, orobat, horrek ikasle-eskariak onartzeko orduan nolako islada duen ere aztertu dugu.

Arazo horri buruzko kexak izaten dira atal honetako gehienak eta, horregatik, gure Erakundeak bere duen administrazioa ikuskatzeko arduraz baliatu gara.

Gauzak horrela, ikasleak onartzeko prozeduraz ikasturte guztietan onartzen diren arauei gagozkielarik, LODEko 20.2. artikulua dioena betetzearren gure Erakundeak salatutako kasuetan arau horiek bete diren ala ez aztertu eta banan-banan Administrazioak izandako jokabidearen zuzentasunari edo zuzentasunik ezari buruzko ebazpena eman du.

Argi adierazi nahi dugu hezkuntz Administrazioaren jarrera zeharo ona izan dela gure eginkizuna betetzera, eta bere lankidetzaren ondorioz hainbat gomendio eman izan ditugula; horrek agerian uzten du Administrazioa bereziki arduratzen dela gure Elkarteko ikasle guztiei eskolaratze egoki eta eraginkorra ziurtatzeaz.

Azkenik, eta irakaskuntzaren programazio orokorraren inguruan piztu diren liskarrei buruzko lehen atal hau amaitzeko, euskal hezkuntz antolaketa berriaren ondoren garrantzi handia hartuz joan den arazo berezi bati arreta egin behar diogu. Irakurleak gogoan izango duen bezala, joan den 1993an onartu zen Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, bai eta beste arau batzuk ere, hala nola martxoaren 9ko 147/1993 Dekretua, irakasle-postuen hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun-datak ezartzeko irizpideak finkatzen dituena. Harrez gero, hezkuntz programazio orokorrak eztabaida ugari sortu ditu halako puntu zehatz bati dagokionez.

Irakurleak susmatuko duen bezala, hizkuntz eredu desberdinen programazioaz eta horren ondorengo eskaintzaz ari gara.

Honi gagozkielarik, Arartekoak era askotako gorabehereri buruz eman behar izan du bere iritzia, eta horregatik, horiek guztiak banan-banan aztertzea komeni da. Alde batetik, oro har, hizkuntz ereduaren egokitasuna daukagu, eta, bestetik, B ereduaren sendotzea.

Horietako lehenari buruz hitzegiten dugunean, topatzen dugun arazoa hauxe da: hasiera batean hezkuntz alorreko administrazioak ez duela onartu ikastegi bateko guraso gehienek hizkuntz eredu aldatzeko egindako eskaria, kasu hauetan, Administrazioak guraso edo tutore guzti-guztien oniritzia eskatzen duelako.

Gure erakundeak arazo honetan esku hartu duenean, batez ere Euskal Eskola Publikoaren Legean (21. art.) sartutako aginduen arabera legezkotasun irizpidea zorrotz errespetatu den ala ez argitu nahi izan du. Eta arau horietan lege-kontzeptu zehazgabeak erabiltzen ziren arren (esaterako, "behar adina"), erabakitako ukamenak lehenbailehen birraztertu beharra adierazi dugu. Honi dagokionez, argi esan behar da Hezkuntza Sailari egin dizkiogun gomendioak oro har nahiko ondo hartu dituela.

Bigarren kontuari dagokionez, aldiz, B eredu sendotuak eskatzeaz hitzegtetan, beste era bateko eztabaidagai batez ari gara; lehenago ere gertatua da, baina garrantzi handia hartu du orain, irakasle-postuen zerrendak ezarri eta haiei dagozkien hizkuntz eskakizunak finkatu dituzten bi dekretuak argitaratu ondoren.

Izan ere, kasu hauetan, ikastetxeetako irakaslego euskaldunaren ratioak aspalditik gainditu zuen B eredurako aurrikusi zen gutxienezko maila, eta beren itzarokizunak ustel irten dira, abiapuntutzat martxoaren 9ko 147/1993 dekretu horretan finkaturiko oinarrizko proportzioak bakarrik hartuz osatu diren lanpostu-zerrendak onartu direnean.

Ararteko honen aburuz, nahikoa baliabide badago eta hezkuntzaren plangintzak horretarako aukera ematen badu, honelako eskariei erantzun egin behar zaie; izan ere, egia da hizkuntz ereduaren ezarpena eta, egoki den kasuetan, aldaketa ere Administrazioak lehenagotik tajututako hezkuntz plangintzaren menpe daudela, baina, orobat egia da bai ezarpena, bai aldaketa ere guraso edo tutoreen nahiaren esku uzten dela askotan. Bestela esanda, hezkuntzarako eskubidea berez gauzatzea irakaskuntzaren programazio orokorrarekin estuki loturik dagoen arren, jaso duen lege-hezurmamitzearen ondorioz, guraso edo tutoreen nahia ezin daiteke bazter utzi, aitzitik, kontuan hartu behar da hezkuntz eskaintza antolatzean.

Ildo horretatik, gure ustez, martxoaren 9ko 147/1993 dekretua funtsezko esparru orokortzat hartu beharra dago, nahiz eta hobetu daitekeen, ahal den neurrian, hezkuntz plangintzan eragina duten aldagai desberdinak arabera. Bestalde, lanpostu-zerrendak ikastegi bakoitzaren hizkuntz ezaugarriak finkatzeko bide egokia izan daitezke.

Horregatik guztiagatik, bere garaian gomendioa egin genion Eusko Jaur-laritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, herri-ikastetxe bakoitzean ematen diren euskalduntze-mailak bermatzen dituzten tresnak egokitu zitzaizkien, baliabideek eta hezkuntz plangintzak horretarako aukera ematen duten aldietan orotan; horrela, hizkuntzen ofizialkidetasuna normaltzeko bidean aurrera egin eta ikastegiaren burujabetasuna suspertu ere egin ahal izango da. Dena dela, oraindik ere ez dakigu zein den Hezkuntza Sailak gure gomendioari buruz duen iritzia.

## **Unibertsitate-irakaskuntza**

Unibertsitate mailako irakaskuntzan Ararteko honek batipat bitartekari-lanak egin ditu, beti ere halako eztabaidagai jakin batzuetan aurrez aurreko jarrera desberdinak elkarri hurbildu eta irakaskuntzan normaltasuna bermatu asmoz.

Ildo honetatik, 1989an Gizarte-Graduatuen Mintegietako zuzendari eta ikasketa-buruek eta, orobat, Gizarte-Graduatuen Bazkuneko eta Elkarteko lehendakariak laguntza eskatu zioten Ararteko honi, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen inolako erantzunik ez zutelako jasotzen, mintegi horiek bertan behera geratzeko arriskuan zeudenean; izan ere, ekainaren 13ko 2.524/86 ELDren arabera, unibertsitatearen bati atxekitzeko epemuga jarri zioten mintegi horiei.

Nabarmena zen arazo garrantzitsua zela hori, pertsona ugariengan zitu-lako ondorioak, eta era horretako ikasketak egoteak edo ez egoteak eragin

handia duelako gizarte osoan. Horregatik, Arartekoak hainbat antola hasi zituen, eta haien ondorioz 222/89 Dekretua eman zen argitara; dekretu horren indarrez, Euskal Herriko Unibertsitatean Gizarte-Graduatu diplomatu titulua eskuratzeko ikasketak finkatzeko erabakia onartu eta irakaskuntza horren antolaketa Zuzenbide Fakultatearen gain utzi zen.

Arestian aipatu antola horrek izan zuen arrakasta zela eta, gure bitartekaritza eskatu ziguten berriro ere 1991n. Izan ere, Gizarte-Graduatuen Eskola berria jardunean hasi arren, langaiak eta giza baliabideak falta zituen, eta egoera are larriagoa zen, matrikulatutako ikasleak asko zirelako.

Berriz ere bilera bat antolatu behar izan zen, Erakunde honen eta Hezkuntza Sailaren nahiz Unibertsitatearen ordezkariak elkartzeko. Harrez gero, Unibertsitatearen eta hezkuntz administrazioaren ordezkariak ikasturtea berehala hasiko zela ziurtatu eta plangintzari ekiteko oinarriak ipini zituzten. Aurrekontuen mugak eta matrikulen gorakada handia kontutan hartuta, bihar-etzirako bideak irekitzea eta ondoko ikasturteen hasieran antzeko istilurik ez gertatzea hartu ziren helburutzat.

Horren antzeko bitartekaritza lanak egin behar izan ditugu beste fakultate batzuetan ere, ikasleek euskal sailean irakaslerik ez egotea eta, orobat, unibertsitate-prestakuntza jasotzeko behar diren kultur eta irakaskuntz ekintzak gauzatu ezina salatu izan dutenean, batez ere.

Adibide moduan, hona hemen 89-90 ikasturtearen hasieran lortu zen akordioa:

“1. Aurtengo aurrekontu-urtealdirako onartzen da irakasle lagun gehiago hartzea, 30 gehienez ere, ikasketak bermaturik ez dauzkaten ikasle taldeentzako irakasle postuak betetzeko eta ikasle kopuruan gorakada handia izandako zentruetarako (dagozkion Departamenduen bidez).

2. Urteko lehen hiruhilabeteko honetan, Unibertsitateak langilego kostuentzako baimena eskatuko dio Jaurlearitza, kostu horietan zabaltze honi dagokiona ere sarturik. Onartzen duen I. atala Unibertsitatearen sarrera-aurrekontuaren kontura joango da.

3. Aurtengo aurrekontu-urtealdian zehar, eta nolana ere Unibertsitatearen aurrekontuak eta langilego kostuak onartu ondoren, Sailak ahaleginak egingo ditu hogeita hamar irakasle lagun horien kontratazioaren kostua Gobernuak har dezan bere gain.

4. Unibertsitateak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak batzorde bat osatuko lukete, Arartekoaren partaidetzaz, Unibertsitateko lanarigo-plangintza aztertzearen.

5. Plangintza horrek, oraingo langilego-zerrenda berregituratu beharko du, egon daitezkeen desorekak zuzendu, postu hutsak amortizatu eta kontratazio gehiago egiteko dauden premia larriak zehazteko.”

Hala eta guztiz ere, gure bitartekaritza lanaz ez dugu beti lortu irakaskuntz biziara lehenbailehen bere onera etor dadin bermatzea. Honi dagokionez, argi

aipatu behar dugu EHU/UPVko errektorego-taldearen eta irakasle lagun-batzuen arteko kalapita. Hura jazo zen aldian, zenbait gehiegikeria gertatu ziren (azterketa-deialdietako aktak emateari uko egitea, esate baterako), Ararteko honek salatu zituenak, jarduera publiko horren normaltasuna kaltetu izan dutelako; izan ere, istilu horretan sartutako alderdien nahien gainetik egon behar dute, gure iritziz, nahi publikoak, eta bai zerbitzu hori jasoko duten administrazioen nahi bereziak ere.

### **Desberdintasunak orekatzeko ekintzak**

Hezkuntzarako eskubideaz berdintasun-irizpideari jarraiki baliatu ahal izateko, konpentsazio gisa ematen diren ikasteko beka edo dirulaguntzei buruzko kexak ere oso ugariak izan dira, irakaskuntz ataleko besteen aldean.

Lehenago ere, 1989ko gure txostenean eman genuen aditzera "bekak banatzeko politika, diru-baliabideei zegokienez familien artean zegoen aldea arintzeko bide bezala, sarri zurrunegia eta formalistegia dela" eta "horiek emateko gehienezko maila ekonomikoa goratzea oso lagungarria izango litzatekeela Konstituzioaren 27. artikulua hiritar guztiei aitortzen dien hezkuntzarako eskubidea bermatzeko".

Hala ere, ikasteko beka eta laguntzei dagokienez, era honetako ordain-dirulaguntzak ematean inolako bereizkeriarik egon ez dadin hobekuntzak proposatzea izan da gure zeregin nagusia. Gure gomendioen artean, honako hauek aipatuko genituzke, bereziki:

- Eskatzen diren beste baldintza orokor guztiak betetzen dituzten beren kasako langileei ere ematea honelako ordain-dirulaguntzak jasotzeko aukera; gure iritziz, egiten diren eskariak ebazteko oinarritzko irizpideetako bat izateaz gainera, argi eta garbi jasota egon beharko luke horrek deialdi-arauetan.
- Enpresa-ekintza baten etekin garbiak kalkulatzeko, ez zaigu bidezkoa iruditzen ustiaketa jabearen dirusarrerak edota, horiek izan ezean, lanbidearteko gutxienezko soldata eranstea NUIZen jasotako etekinei, baldin eta lehenago kontzeptu horiek gastu zergaringarri moduan sartu ez badira; egiaz, horrela jokatzu gero, inoiz ere eskuratu ez diren dirusarrerak batzuk kontatzen dira.
- Ikasle batek amarik ez aitarik ez badu, ez zaigu komenigarria iruditzen berarekin bizi diren senitartekoen dirubidezko datuen egiaztagiriak aurkeztu behar izatea.
- Ez da zuzena ikasteko dirulaguntzak naziotasunagatik ukatzea, langileak Europako Elkartean askatasunez joan-etortzeari buruzko urriaren 15eko Europako Elkarteko Ministro-Kontseiluaren 1.612/68 Araudiaren 12. artikulua hitzez hitz dioenari jarraituz. Izan ere, horren arabera:

“Estatu kide bateko hiritarra beste Estatu kide baten lurraldean bada-  
go edo egon bada lanean, azken Estatu kide honetako hiritarren bal-  
dintza beretan onartu beharko dira haren umeak irakaskuntz oroko-  
rreko edo lan-heziketarako ikastaroetan, ume horiek bere lurraldean  
bizi badira.”

Proposamen edo gomendio sorta honi buruz, esan dezagun Eusko Jaur-  
laritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila prest azaldu dela horiek  
onartu eta aurrera ateratzeko.

Amaitu aurretik ezin dugu Hezkuntzari buruzko atal hau itxi Euskal Auto-  
nomi Elkartearen esparruan irakaskuntzaren erreforma bideratuko duten fun-  
tsezko irizpide eta norabideak finkatu dituzten lege onartuberri batzuk aipatu  
gabe; alegia, Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legea, eta Euskal  
Autonomi Elkarteke unibertsitateaz kanpoko heziketako irakaslegoari buruzko  
2/1993 Legea.

Lege hauen bidez, eta arauetan izango duten garapenaren bidez, gure  
lehen agintaldian eskuartean izan ditugun zenbait gatazka konpondu ahal izan-  
go dira. Dena dela, aldi berean, beldur gara irakaskuntzaren erreforma hori  
gauzatzen den neurrian ez ote diren beste hainbat istilu ere agertuko, Erakun-  
deak bihar-etzi ebatzi beharko dituenak. Hala izanik ere, gure jardunaren bitar-  
tez orain arte bezala ahaleginak egingo ditugu legezketasun-irizpidea zorrotz  
betetzen dela ziurtatzeko eta, azken finean, heziketa-alorreko talde guztien  
eskubideak egiatan babesteko.

## **2.4. FUNTZIO PUBLIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREN ANTOLA- KUNTZA**

Atal honetan biltzen diren gaiak aparteko garrantzia hartu dute azken  
urteotan. Hasiera batean, barne-arazotzat hartu ohi ziren, beren garrantzia  
gutxietsiz, baina zorionez gaur egun ikuspegi hori gaindituta dago; inork ez du  
zalantzan jartzen gai hauek eragin larria eduki dezaketela hiritarren baitan, eta  
izan ere halaxe da, ezen eskuarteko baliabideak hobeto antolatzeke egiten  
diren ahalegin guztiek oso emaitza onak edukitzen baitituzte hiritarren eskariei  
erantzuteko orduan.

Horretaz oharturik, Ararteko Erakundeak berak administrazio publikoen-  
tzat lan egiten duten langileei dagozkien kexa guztiak batera biltzea erabaki  
zuen. Horrela, arlo bakoitzak dituen bereizgarrietatik haruntzago joanez -izan  
ere, hasiera batean irakaskuntza, osasun edo poliziaren inguruko gaiak hez-  
kuntza, osasun-zerbitzuak eta herrizaingo ataletan sartu ziren, bereizgarri  
horietxengatik hain zuzen-, Administrazioaren antolakuntzari buruzko azpiatal  
berezi bat sortu dugu. Horrela, esparru honetako arazoak parekotsuak izanik,  
hau da, alor horietako gehientsuenetan aurkitzen direnez, Administrazioaren  
Antolakuntza izeneko atalean bil ditzakegu hiritarrek administrazio publikoei  
buruz egiten dizkiguten kexa anitz, berez administrazioaren ekintzaren oso

esparru berezietan sortuak izan arren (batez ere, jardunbide-arauak bete ez izana salatzen dutenak).

Horrela, alor honi buruzko ikuspegi orokorra eduki daiteke, eta horrek kexa-espeditente guztiak berdin tratatzea errazten digu, baina, gainera, ikusmolde egokia eman diezaiokegu gurea bezalako erakunde batek hobekuntzak proposatzeko duen eginkizunari.

Hasierako hitzaurre labur honen ondoren, azter dezagun gure erakundeak azpiatal horietako bakoitzean izan duen ibilbidea.

## FUNTZIO PUBLIKOA

Bost urteotan gure erakundeak jorratu behar izan dituen funtzio publikoaren inguruko arazoak ugariak eta era anitzekoak izan dira. Ongi erakusten dute hori Eusko Legebiltzarrari urtero aurkeztu dizkiogun txostenetan sartutako kexa-laburpenek.

Izan ere, alde batetik, atal honetan bereiz daitezkeen alor desberdinek ezaugarri bereziak dituzte -lehenago aipatu ditugun alorrak gogoratu besterik ez dago, hau da, orokorra, irakaskuntza, osasun-zerbitzuak eta polizia-; baina, horretaz gainera, estatutu-harremanak berez dituen esparruak ere ugariak dira.

Kasuen ugartasun horren bitartez, Erakundeak atal honetan egin duen lana, oso neurri handian, alderdi baten eskariaren eraginez hasi da, alegia, kexa-espeditenteak bideratuz. Kasu horietan, banan-banan, ea Administrazioaren jardueran araugabekeriarik egon den eta ea kasu bakoitzari buruzko gomendio bereziak ematea komeni zen aztertu dugu.

Berarizko ekintzak eta gomendio orokorrak, ordea, norbanakoek kexa hutsen maila gainditu eta halako garrantzi berezia zeukaten arazoetarako utzi ditugu, beti ere gure gain daukagun eskubideak babesteko betekizunari begira.

Orain egiten ari garen ekintza-balantzea bezalako batek beti laburbiltzeko ahalegina egitera behartzen gaitu, eta horregatik arazo kopuru mugatu bat bakarrik nabarmendu behar da, berez alderdi baten eskariz aztertu diren guttien artetik garrantzizkoenak edo berezienak diren arazoak batez ere; hala ere, ondoren datozen haiek aipatu nahi ditugu:

### **Lanpostuak betetzeko bideak**

- Lehiaketan deialdietako arauak dioten horretan gerta litekeen bereizkeria edo diskriminazioa, batez ere neurtzen diren merezimendu batzuei ematen zaien lehentasunari dagokionez (esate baterako, euskaraz jakitea, antzeko lanpostuetan aritua izatea, titulazio-multzo desberdinentzakoak izan daitezkeen titulu akademikoak,...).



- Zenbait lanpostu (osasan alorreko zuzendaritzakoak) betetzeko izendapen librearen bidezkoatasuna, eta kasu guztietan eskatzekoak diren garbitasun, publizitate eta alderdikierarik ezaren gutxieneko mailak.
- Ahalmenak eskualdatzeko prozesua amaitu ondoren, Estatuko lurralde osoan mugitzeko aukerak.
- Funtzionarioen artean irakaskuntzan, batez ere lanpostua aldatzeko eskariek bete behar dituzten baldintzak.

### **Lehenagoko zerbitzuen aitorpena**

- Aitorpen horren bidezkoatasuna eta haren ondorioak.

### **Ordainkizunak**

- Lanaldi berezia saritzekoak diren ordain-kontzeptu batzuen bidezkoatasuna eta/edo tratamendua.

Osasan alorrean aipatzekoa izan daiteke osasun-zerbitzu publikoetako sendagileen bete-beteko jarduna saritzea helburu duen osagarri berezia. Irakaskuntzaren alorrean, bestalde, irakas-betekizun bat baino gehiago ordaintzeko aukera edukitzea, egoera hori ikastegiaren edo eskola-inguruaren ezaugarriek eragiten dutenean.

### **Dedikazio-jaurpidea**

Funtzio publikoaren alor desberdinen bereizgarriengatik beste gorabehera batzuk ere gertatu dira, batez ere honako hauei buruzkoak:

- Nekazal inguruetan edo larrialdi-zerbitzurik ez duten herrietan lan egiten duten sendagileei eska lekiekeen dedikazioa.
- Irakasleek beren ikastetxeetako jantoki-zerbitzuez arduratzeko beharra.
- Ertzain batzuek eginkizun burokratikoak, bigarren jarduera izenez eza-gutzen direnak egiteak eduki behar dituen bermeak eta gainerako zertzeladak.

### **Langilegoaren birrantolaketa eta integrazioa**

- Egiturak moldatzearen ondorioz egin behar diren langilegoaren birrantolaketa eta integrazioa. Honi gagozkiolarik, kasu bakoitzean erabiltzekoa den araudian jasotako ebazpenen ezarpen berezia edo, honelakorik egon

ezean, helburu hori iristearren hartu diren neurri berezien edukia aztertu da.

## **Hizkuntz normalkuntza**

- Hizkuntz eskakizunen ezarpena eta langilegoaren egoera administratibotan eduki dezaketen eragina (liberazioak, bidaiak...), batez ere irakas-kuntzaren alorrean.

Beste alde batetik, Erakunde honek arreta handiagoz landu behar izan dituen gaiak luze eta zabalago jorratuko dira txosten honetan; hauexek izan dira:

## **Funtzio publikoa antolatzekeo tresnak**

Barneko egiturak egoki antolatzekeo aukera ematen duten bide guztiak bildu ditugu deitura orokor honen pean; antolakuntza hori egitekeo, herri-administrazio guztiak ahalegin berezia egin behar dute, langilego mailan dauzkaten beharrak zuzen zehaztuz eta, ondoren, behar horiek betetzekeo neurriak hartuz.

Haien artean, lanpostu-zerrendak, enplegu publikoaren eskaintzak eta lekualdaketarako lehiaketa-deialdiak aipa daitezke.

Arartekoak ongi daki zeinen garrantzitsua den antolakuntzarako tresna horien erabilera, enplegu publikoaren eta funtsezko eskubide batzuen eta, orobat, funtzio publikora sartzeko berdintasunaren oinarritzko bermeak baitira. Horregatik, bere jardunean Ararteko honek ahaleginak egin nahi izan ditu euskal funtzio publikoa benetan arautzen eta normaltzen laguntzekeo; gogoratu den bezala, bi prozesu horiek, arau maila hutsean, uztailaren 6ko 6/1989 Legea argitaratuz hasi ziren Euskal Autonomi Elkartean, eta alorrez alor eginiko beste funtsezko lege batzuk jarraitu zaizkio, hala nola otsailaren 19ko 2/1993 Legea, unibertsitateaz kanpoko irakaslekoari buruzkoa.

Honela, 1991ko txostenean, tresna horiek ez zirela erabiltzen ari salatu genuen; izan ere, zenbaitetan lanpostu-zerrendarik ez zegoen edo osatu gabe zeuden, eta beste zenbaitetan, aldiz, lanpostu-zerrendetan agertzen ziren lanpostu huts guztiak -hau da, amortizatu beharrekotzat emanda ez zeudenak-enplegu publikoaren eskaintzetan sarturik ez zeudelako.

Orduan genioen bezala, badira arrazoi batzuk salatutako arau-hauste horiek oinarririk ez dutela baieztatzekeo. Arrazoi horien artean, hainbat antolakuntz egitura derrigorrez berraztertu beharra (sarri askotan administrazioek berek emandakoa) aipatzen genuen, eta horri zenbait alorretan, irakaskuntzan esate baterako, gertatu diren negoziatzeko arazoak ere erantsi beharko litzaizkioke. Gure arrazoibidea osatzeko, aditzera ematen genuen lanpostu-zerrenden eta enplegu publikoaren eskaintzen bizkortasun bereziari berari esker egi-

turak etengabe moldatzeko modua dagoela, oso kontutan hartuz bi tresna horiek antolakuntzaren egiazko beharizanen azalpena izan behar dutela; amaitzeko, Funtzio Publikoaren Legearen ondorioz administrazio guztiek zeuzkaten betebeharrak gogorarazten genituen.

Beste alde batetik, azken urtealdiari buruzko txostenean, antolakuntzarako bideetan aurkitu ditugun akats horiek funtzionarietat utzitako lanpostu hutsak betetzeko prozesuetan ere gertatzen direla salatu genuen. Horri dagokionez, bereziki agerian utzi nahi izan dugu lanpostu-aldaketarako lehiaketarako deialdirik ez egotea, horiek atzeratzea edota, baita ere, dauden hutsuneak zerrendetatik ezabatzea oztopo handia dela gure funtzio publikoaren ezaugarri den karrera sistemarako. Jakina den bezala, bide horiek lanpostuak betetzeko modu orokor eta, beraz, ohizkoa dira; horregatik, bide horiek ez erabiltzearen edo haien erabilpena gerotik gerora atzeratzearen ondorioz, aski zabaldu da beste bide batzuen erabilera, nahiz eta horiek berez, legearen arabera, salbuespenekoak edo aldi baterakoak bakarrik izan (zerbitzu-manualdiaz ari gara). Orobat, nabarmen utzi dugu lanpostu-aldaketarako lehiaketa-deirik ez egitean ere, lanean sartu berriak diren funtzionarien arteko egoera desegoki batzuek iraun dezaten errazten dela, batez ere lehen destinoaren zain daudenen artekoek.

Aurrean azaldu ditugun gomendioak zein neurritaraino bete diren aztertea ez da batere lan erraza eta erakunde honen ahalmenetik kanpo dago; izan ere, horretarako egin behar den zaintze eta ikuskapen lana izugarria da, eta, aldiz, gure esku dauzkagun langaiak eta giza baliabideak ez dira horretarako aski.

Hala eta guztiz ere, egia da gaur egun inork ere ez duela zalantzan jartzen antolakuntzarako tresna horien baliagarritasuna. Horixe bera frogatzen dute zenbait alorretan, irakaskuntzan esate baterako, egin diren araugintza mailako ahaleginek, bai eta administrazio desberdinek hasi dituzten arautze eta normaltze prozesuek ere.

Alabaina, ezin esan daiteke prozesu horiek guztiak osorik burututa daudetik, eta, hortaz, aurrera jarraitu beharko da hasitako aldaketekin. Egiaz, euskal administrazioen artetik zenbatek ziurta dezakete beren lanpostuetatik %100 dauzkatela zerrendaratuak? Zerrendaratuak dauden lanpostuen artetik zenbatean daude lanean behin-behineko langileak, dagokion enplegu publikoaren eskaintzan iragarri gabe? Administrazio publikoen artetik zenbatek egiten dituzte aldian-aldian lanpostu-aldaketarako lehiaketa-deiak beren funtzionarien karrera administratiboa errazteko eta langile sartuberriek bete behar dituzten lanpostu hutsak zehazteko?

Galdera horiek azken gogoeta bat egitera eraman beharko gintuzkete, eta ez bakarrik araeuan finkatutako bide horiek ez erabiltzeaz, baizik eta, orobat, Administrazioaren esku jarritako tresnen ustezko ezegokitasunaz.

## **Irakaskuntzaren alorreko funtzio publikoan sartzeko hautaprobentzen deialdiak**

Txosten honetan aztergai dugun aginte-eparearen ezaugarri nagusiak bi izan dira. Alde batetik, normaltze prozesuen ondorioz edo langilego-beharren berezko hazkuntzaren eraginez egindako lanpostu-deialdiak ugaltzea; eta, bestetik, gaur egungo kinka sozio-ekonomiko larriaren ondorioz eta enpleguen ziurtasunik ezaren ondorioz lanpostu egonkorra edukitzeko gero eta eskari handiagoa egotea.

Arrazoi horiengatik, Ararteko Erakundeak berarizko zenbait jardura burutu ditu, funtzio eta kargu publikoetara sartzekoan berdintasun-irizpidea, Espainiako Konstituzioko 23.2. artikuluan jasotzen dena, egiatan errespetatzen dela bermatzeko.

Horri dagokionez, lurralde historikoen eta autonomi elkartearen aldizkari ofizialetan argitaratu diren oposaketa eta lehiaketa guztien deialdiak ikuskatzeari ekin diogu, haien arauak indarrean dagoen legeriarekin bat datozen egiaztatzeko.

Lanpostu horietarako lehiatzeko prest zeuden hiritar batzuentzat baztertzailak izan zitezkeen arauak zeuzkaten deialdiak aztertu ditugu. Hona hemen arau horietako batzuk:

- Soldadutza amaitua edukitzea edota horrelakorik egin beharrik ez izatea.
- Lanposturako deialdia egiten duen administrazioaren udalerriri berean erroldatua egotea.
- Deialdia egiten duen administrazioarentzat horren antzeko beste lanposturen batean lan egin izana lehentasunezko merezimendutzat jotzea.
- Hautaprobarako sistemak (norgehiagoka edo lehiaketa-norgehiagoka) bat ez etortzea lanpostu-deialdiari dagokion taldeari buruzko araudiarekin, etab.

Kasu horietan guztietan, deialdiko arauak berehala birrazter daitezkeen gomendatu dugu, bai eta bereizkeriazko egoera hori konpontzen ez den bitartean prozesu guztia bertan behera uztea ere.

Era honetako gomendio berezi hauek, batez ere udal txiki batzuei egindakoak, nahiko ondo hartu izan direla esan dezakegu. Ikuskaritza egiteko horren ondorioz, zalantzarik gabe baieztatu dezakegu une hauetan Euskal Autonomi Elkartearen esparruan argitara ematen diren deialdirik gehientsuenek zorrotz betetzen dutela indarrean dagoen legeriak finkatutakoa, bai sarrerako baldintzei, bai hautaprobarako sistemari eta abarri dagokienez.

## **Aldi baterako edo behin-behineko beharrak betetzea**

Erakunde honek aldi baterako edo behin-behineko beharrak betetzeko deialdiei buruzko hainbat eta hainbat kexa bideratu izan ditu eta, horregatik, Arartekoak hainbat aldiz frogatu ahal izan du administrazio publiko deialdiguileek, lanpostuak premia handiz bete beharra dagoelako aitzakiaz, eta era honetako hautabideak eraginkortasunez eta bizkortasunez erabakitzeko irizpideetan babestuta, alde batera uzten dituztela hautabide desberdin guztiei dagozkien bermabideak, bai eta edozein lanpostutara sartzeko prozesuetan oinarri-oinarrizkoak diren irizpideak ere.

Badirudi behar iraunkorrek betetzeko hautabidearen berezko zorrotasun formalak arindu beharra ez dela behar bezala ulertzen; izan ere, horren ize-nean, Administrazioari halako ahalmen berezi bat ematen zaio gaizki ulertutako diskrezionalitatea erabiltzeko era horretako prozesuetan, deialdiko arauetan lehenago azaldutako prozedura eta baldintzak bazter utziz (arau horiek gutxieneko edukiaz hornitzen direnean gertatzen da hori), horretarako batere funts objektiborik eduki ez arren.

Aragabekeria horiek aztertu eta salatu ditugu 1993ko urtealdiari buruzko txostenean, "Administrazio publikoen zerbitzurako langileak hautatu eta postuak betetzera nagusitu behar duten prozedura-bermeak eta funtzio publikoan antolabide jakin batzuk ez erabiltzea" izenburupean erantsi dugun gomendio orokorrean, hain zuzen ere. Gomendioa egin berri-berria denez gero, goizegi da haren ondorioak epaitzen edo neurtzen hasteko, zeren eta horiek behar den gutxieneko zorrotasunaz ezagutzekotan, eguneroko jardunean betetzen den egoki aztertu beharko baita.

### **Langilegoa hautatzeko prozesuetan lehiatzaileek dituzten bermeak**

Langilegoa hautatzeko prozesuetan gehiegikeria batzuk antzeman ditugu: haien artean, hautaketaz arduratutako organo teknikoek beren erabakien arrazoirik ez ematea, bai eta norberaren zein beste inoren espedientea eskuratzeko baimena ukatzea ere.

Usadio edo jokamolde horiek gehiegizkoak dira, gure iritziz, alde batetik babesik eza eragin dezaketelako, eta, bestetik, epailaritza-babes eraginkorrerako eskubideari kalte larria egin diezaioketelako. Horregatik, Erakundeak arreta berezia eskaini die eta 1992ko txosteneko gomendio orokorretako batean sartu ziren.

Nolanahi ere, kontutan hartzen badugu era horretako jokabideak funtzio publikoan ez ezik, beren formulazio orokorrean administrazio-ekintzaren edozein alorretan aurki daitezkeela, egokiagoa iruditu zaigu administrazioaren antolakuntzari buruzko idazatian sartzea.

## ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAKUNTZA

Administrazioaren antolakuntzari buruzko azpiatal honetan aztergai izan ditugun arazoak doktrina agintedunak salatu ohi dituenak dira.

Arazo horiek, batipat Administrazioak bere ekintza eta erabakiak ez arrazoitzea, administrazio-espeditentea eskuratzeko ukoa, akatsez egindako jakinarazpenak eta administrazio-isiltasuna dira, baina baita gehiegizko formalismoa eta administrazio publikoen informaziorik eza ere.

Horiek guztiak banan-banan aztertu ditugu hainbat gomendio orokorretan, eta ondoko lerroaldiotan azalduko dugu zein den haien mamia eta zenbateraino bete diren.

### **Administrazioak bere ekintza eta erabakiak ez arrazoitzea eta administrazio-espeditentea eskuratzeko ukoa**

Lehenago iragarri dugun bezala, Ararteko honek 1992 urtealdiari buruzko txosteneko gomendio orokorretako bat eskaini zion arazo honen konponketari.

Gure ikuspegitik begiratuta, halako kasu batzuetan bi arazo horiek oso lotura zuzena daukate epailaritza-babes eraginkorrerako eskubidearekin.

Administrazio-espeditentea eskuratzeko eskubideari dagokionez, Administrazio Publikoen Lege Jaurpiderako eta Administrazioaren Jardunbide Arrunterako abenduaren 26ko 30/1992 Lege berria (aurrerantzean, APLJ eta AJAL) indarrean jarri eta gero, eskubide horretaz baliatzeko egiazko muga bakarra lege horretxetako 37.3. artikuluan jasotako eraginkortasun-irizpideak berak jartzen zuena izango zela adierazi genuen.

Dena dela, hori esan ondoren zehazten zenez, eraginkortasun irizpidea neurritz erabili beharra dago, eta Administrazioak kasu guzti-guztietan eta sinesgarriro frogatu behar du muga hori jartzea bidezkoa dela; izan ere, bestela jokatzuz gero, mugaren erabilera horrek gaintitu ezineko oztopoa jarriko lieke hiritarrei eskubide horretaz egiatan baliatzeko orduan.

Bestalde, Administrazioak bere ekintza eta erabakiak ez arrazoitzeari gagozkiolarik, txosten horretan adierazten genuen bezala, jokaera horrek erabaki eta ekintza horiek ikuskatzeko funtsezkoa den bidea kentzen die hiritarrei; gainera, horiei erantzuteko aukera dexente murriztu ere egiten die, eta, beraz, epailaritza-babes eraginkorrerako eskubidea kaltetu ere bai.

Halaber, organo edo sail horiek (hautaketaz arduratzen direnek, alegia) diskrezionalitate tekniko handi samarra eduki badezakete ere, erabakiak arrazoitzea da jokamolde zuzenak eta zuzengabeak bereizteko modua; horregatik, arrazoiketa objetibo hori Administrazioak bere ahalmenak zuzen eta egoki erabiltzen dituela bermatzeko ezinbesteko bidea da.

Garai hartan, 30/92 lege berrian espeditenteak eskuratzeko eskubidea berariz garatua zegoenez eta Espainiako Konstituzioko 105. b) artikulua izaera informatzailea kontutan hartuz, eskubide hori hobeto erabili ahal izango

zela uste genuen arren, jakitun gara oraindik ere araututakoa ez dela behar bezala betetzen; horregatik, halako gomendio berezi batzuk egiten ditugu, baina horiek ez dira beti nahi genukeen bezala hartuak izaten.

### **Akatsez egindako jakinarazpenak**

Arartekoak behin baino gehiagotan jorratu behar izan du prozedurazko tramite hau. Horrela, 1990. urtean irakaskuntzaren alorreko ordezkapenak jakinarazteko erabiltzen zen bidea zela eta aztertu genuen gai hau, bai eta geroago ere, 1992an zehazki, zerga-kitapenen jakinarazpenez arduratu ginen.

Erakunde hau nahikoa kezkatu du jakinarazpenen kontu honek, izan ere, jakina denez, antolamendu juridikoak arrazoi argi batengatik finkatu ditu halako tresna eta bermabide batzuk Administrazioak agindutakoaz interesdunei egin beharreko jakinarazpenetarako: alegia, hiritarrari administrazio-prozeduraren berri ematen zaiola eta hartan esku hartzeko aukera ere ematen zaiola ziurtatzeko. Hortaz, Konstituzioaren bidez onartuta eta aitortuta dauden babesarako eta lege-segurtasunerako eskubideen funtsean dauden bideak dira.

Lehenago aipatu ditugun APLJ eta AJAL berri horiek onartu eta gero, 1992ko gure azken gomendioan, izandako lege-aldaketari buruzko azterketa sakona egiteaz gainera, nabarmen adierazi genituen ediktuen jakinarazpenek zeuzkaten arriskuak. Halaxe da bai, esandako azterlanaren bigarren ondorioan, ondoren hitzez hitz emango dugun honako hau adierazten zen:

“Administrazioak bereziki, ahal dela, ez du ediktu bidezko jakinarazpena jo behar, beste bideekin ez bezala kasu horretan interesatuak jakinarazpena jasó duela ez delako frogatuta geratzen.

Administrazioak APEJLko 59. artikulua laugarren atalaren ezarpena moldatu egin beharko luke, bertan ediktu bidezko *jakinarazpena egin nahi izan eta lortu ez denean* erabiliko dela iragartzen baita. Erakunde honen iritziz, jakinarazpena egiteko lekuari buruz zalantzarik ez dagoenean, ahalegin hori behar hainbat aldiz egin beharko litzateke, aipatutako aginduaren baimen orokorrean babestuz, hain garrantzi handia duen tramitea ediktu bidez jakinarazteko joera baztertuz. Era berean, jakinarazpenak egiteko ardura daukaten funtzionarioen aitortpenak egiazkotzat jotzea *iuris tantum* dela onartu beharko da, eta beraz kontrako frogak aurkez daitekeela.”

### **Administrazioaren isiltasuna**

Erakunde honek benetako borroka egin du administrazio publiko desberdinek administrazio-isiltasuna gehiegikeriaz erabiltzen dutela salatzeko.

Gure lehendabiziko txostenean bertan azpimarratu genuen zein funtsgabea den irudi horrek, administrazio-azibidezko jurisdikzioaren izaera berraztertzailea kontuan hartuz, hasiera batean berme moduan gorpuztua egon arren, oso ondorio txarrak izatea hiritarrarentzat, horren gehiegizko erabilerak ezin ukatuzko eragina baitu epailaritzza-babes eraginkorrerako eskubidean. Gogoan hartu, esate baterako, bidezko errekurtsioak jartzeko epeak ez jakiteagatik edota beste pertsona batzuen kalterako ondorioak dauzkaten beranduko ebazpenak balio gabetzat jo izanagatik etab. gertatzen diren babesgabezia nabarmeneko egoerak.

Orobat, txosten hartan genioen bezala, beldur ginen ez ote genuen isiltasunaren kontu hori ondoko urtealdietako txosten guztietan salatzen jarraitu beharko, eta ez bakarrik Arartekoarenetan, baizik eta, baita gainontzeko herri defendatzaileen txostenetan ere; eta horixe gertatu da. Horregatik, hitzez hitz honako hauxe adierazi genuen: "administraritzza-isiltasun ezezkorraren figurak irauten baldin badu, Erakunde honek Eusko Legebiltzarrari eskatuko dio testu konstituzionalak 87.2. atalean ematen dion legezko inizatiba erabiliz, eska diezaiola Estatuko Gobernuari lege-egitasmo bat gaia arautuko duena, edo bestela, igor diezaiola Kongresuko Mahaiari lege-salo bat isiltasun ezezkorraren ezarketa aldatuko duena, konstituzionalki gauzatutako administratuen eskubideak berma daitezen egokituko dena."

Hiritarraren eskubide eta askatasunei buruzko gorabeherak aztertzeko foroa den Herri Defendatzaileen VI. Jardunaldietan ere argi geratu zen legebiltzar-ordezkarri desberdinek kexa ugari jaso izan dituztela administrazio-isiltasun ezezkorraren gehiegizko erabileraz Administrazioak erakusten duen geldotasunaren kontra. Haietan administrazio publikoari áurkeztutako idazkiei erantzuten ez zaiela edota haietako batzuei oso berandu erantzuten zaiela salatzen zen. Horregatik, eztabaida sakona egin zen administrazio-isiltasunaren irudiari buruzko kasuak aldatzeko aukeraz, eta administrazio-isiltasun baikorren kasuak zabaltzeko aukeraz mintzatu zen.

Lehenago esandako APLJ eta AJAL horietan sartu den berrikuntza izan da herri defendatzaile guztiek eta aditu askok ere egiten duten salaketa kementsu horren emaitza. Zio-azalpenean bertan esaten den bezala:

"Legeak Administrazioaren eta hiritarraren arteko harremana ulertzeko modu berri bat sartzan du, administrazio-isiltasuna deitzen denaren doktrina gaindituz. Lege horiek gure ohizko araua aldatuz administrazio-isiltasun baikorra finkatzen duela esan liteke. Baina hori ez da zuzena. Legeak duen helburua ez da baieztoko zentzua ematea Administrazioaren geldotasunari hiritarrek harengana jotzen dutenean. Administrazioaren geldotasunaren baieztoko zentzua Legearen egiazko helburua -alegia, hiritarrek Administrazioaren erantzuna lortzea eta, batez ere, jarritako epean jasotzea- lortzen ez denerako finkatuta dagoen bermea izatea da. Administrazioaren isiltasunak, baieztoko zentzua izan edo ezeztokoa izan, ez du ohizko institutu juridikoa izan behar, baizik eta Administrazioak bere egitekoak eraginkortasunez eta bizkortasunez bétetzen ez dituen hiritarren eskubideak hutsean gera ez daitezen jartzan den bermea. Berme hori, eragin-



kortasuna formalismoaren gainetik jartzen duen Administrazio baten ezaugarri dena, lehentasuna duen interes orokor bat dagoenean edo eztabaidan dagoen eskubidea benetan ez dagoenean bakarrik geratu ahal izango da indarrik gabe.”

Goizegi da oraindik ohizko arau ezezkorrak izan duen aldaketa hori, nahi zen bezala, hiritarren eskubideak hutsean gera ez daitezzen jarritako berme eraginkorra izatea lortu den epaitzeko, bai behintzat erakunde honek epaitzeko.

Izan ere, erakunde honek berez duen ikuskatze-zereginak Administrazioak lehenago bere jarrera azaltzea eskatzen du; eta gure lanaren azken aroan aurkitu ditugun isiltasun kasu gehienetako administrazio-errekurtsoetan, legearen arabera isiltasunak ezezko zentzua izatea erabakia zegoen.

Hala eta guztiz ere, ezin dezakegu esan legearen egiazko helburua, hau da, hiritarrek Administrazioaren erantzua berariz eta, batez ere, jarritako epean jasotzea, oraindik ere alde orotan betetzen ez denik. Horiek horrela, Arartekoak banakako gomendioak egiten jarraitu behar izan du, gehiegikeriak nolabait konpontzen ahalegintzeko, orain arte egin duen bezalaxe. Iruzkina hauek direla bide, lege mailan hasten diren berrikuntzak bideragarriak diren juzkatu beharko genuke, bai behintzat berritze horiekin batera administrazioek ezartzen zaizkien egitekoak betetzeko dauzkaten bitartekoak ere horretara egokitu behar direnean; gainera, ezin da ahaztu horiek bazterrean utz daitezkeela, APLJ eta AJAren 43.2. artikuluan jasotakoa bezalako aurrikuspenez baliatuz.

## **Administrazio publikoen gehiegizko formalismoa eta informazio eza**

Izenburu honetxekin 1989 urtealdiari buruzko gure txostenean sartu genuen gomendio orokorrean jadanik aipatu genuen Administrazioak hiritarrei zuzentzen dizkien idazkietan “hizkera formalistegia eta, batzuetan, bai ulergaitza ere” erabiltzen dela; orobat, administrazio publikoetan aurkitzen genuen informaziorik ezari buruzko gure kezka ere azaldu genuen.

Zoritxarrez, bi salaketa horiek oraindik ere egin beharrekoak dira, eta behin eta berriro eskatu beharko da administrazioaren izkribuak argiagoak eta errazagoak izan daitezela eta, halaber, administrazioek informazio gehiago eman dezatela eta ahalegin handiagoak egin ditzatela beren lana argiagoa izan dadin eta hobeto ezagutzera eman dadin.

Dena dela, informazioari dagokionez, Administrazioan nahiko jarrera ona aurkitu dugula esan beharra dago. Horrela, Administrazioaren informazioa ahalik eta hobekien ezagutaraztearren, hainbat gidaliburu, aldizkari eta berri-paper hasi dira argitaratzen, bai eta aplikazio informatiko nahiko berrizaleak erabiltzen ere. Jakina, horrek guztiak askoz eraginkortasun-itxura handiagoa ematen dio Administrazioari berari.

Azkenik, ez dugu Administrazioaren Antolakuntza azpialat hau amaitu nahi Administrazioak berak bere jarduna hobetzeko eta arrazionalizatzeko egin dituen ahaleginak bereziki aipatu gabe.

Izan ere, azken urteotako gobernuek Administrazioa hobetzeko konpromezu sendoa hartu dute bere gain, hiritarren eskariei behar bezala erantzun ahal izateko. Ildo horretatik, gaurko koalizio-gobernuak, 1992ko apirilaren 29ko bilkuran, "Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Administrazioaren, orokorraren nahiz instituzio mailakoaren arrazionalizazioa, suspertzea erabaki zuen, arreta berezia eskainiz gobernu-sail kolegiatuari, administrazioaren sailen egiturari, sailarteko organu kolegiatuari eta bere tokian tokiko antolakuntzari, bai eta administrazio-jardunbideari nahiz antolakuntza eta sistemekin zerikusirik duten alderdiei ere"; orobat, bilkura hartan Administrazio Publikoa Arrazionalizatu eta Hobetzeko Batzordea sortzea erabaki zen, eta honek agiri bat egin du, "Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa arrazionalizatu eta hobetzeko jarraibidea" deritzana.

Agiri horretan argi eta garbi aitortzen da Arartekoak Eusko Legebiltzarrari egiten dizkion txostenak oso informazio-etorbide egokiak direla administrazioaren jardueraren akatsak ezagutzeko eta, adibide moduan, Erakundeak egindako zenbait ohar aipatzen dira hitzez hitz:

- "Estatu demokratikoa osatzen duten funtsezko eskubideekiko erasoari buruz ez dira kexa asko jaso, gure agintepeko alorrari dagokionez behintzat. Hala ere, kexa ugari jaso ditugu ekonomi eta gizarte-politikaren arau nagusiei buruz (etxebizitza, osasuna,...). Herritar guztien askatasuna eta berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izateko oinarri hauen garrantzia uka ezinezkoa denez, Erakundearentzat gai hauek benetan dira kezkarriak..."

- "Administrazio-iharduera eraginkorrerako eskubidea, Konstituzioko 103. atalean oharmandakoa, kexa askoren gaia izan da. Administrazioak erabakiari dagozkion prestakuntza eta biderapenak gehiegi luzatzen ditu, azken erabakirako atzerapen handiak ere gertatzen direla, eraginkortasun eta bizkortasun-oinarriak hautsiz."

Era berean, behin baino gehiagotan lankidetzan aritzeko asmoa ere islatzen dute:

"Aginte publikoek prestutasunez eta aurriritzirik gabe, hau da, beren burua babesteko asmorik gabe hurbildu nahi badute, akats horietako batzuk zuzentzeko nahikoa gogoetagai aurkituko dute bertan."

Benetan pozez ikusten dugu oso harrera ona izan dutela Erakundeak proposamen moduan egin dituen asmo oneko kritikek.

## 2.5. OGASUNA

Ararteko Erakundea sortu zenetik igaro diren bost urte hauetan, bi gertakari garrantzitsu jazo dira Euskal Herrian zergalaritzaren ikuspegitik.

Alde batetik, Herri Ogasunen 39/88 Lege Arautzailearen onarpena, herri-erakundeen baliabide zergabiltzaileak ia erabat birrantolatu zituena; eta bestetik, famili-unitatearen zerga-ordainketari buruzko 1989ko otsailaren 20ko Auzitegi Gorenaren Epaia, NUIZ berritzeko premia ikusarazi zuena eta, gainera, ekainaren 6ko 18/1991 Legea eta bere Araudia indarrean jartzeko argitara zedin eragin zuena.

Administrazio Publikoen Lege-Jaurpiderako eta Administrazioaren Jardunbide Arrunterako 30/92 Legeak eragin gutxiago izan du zergen alorrean, bere bostgarren xedapen gehigarrian finkatzen duenaren ondorioz; izan ere, xedapen horren arabera, zerga-ordainketak zerga bakoitzari dagokion araudi bereziari jarraiki egingo dira, orain arte bezalaxe, bai eta, ordezkatzeko bidez, lege horren xedapenei jarraiki ere.

Zergei buruzko lege-antolaketak azken denboraldian aldaketa horiek bizi izan baditu, zergapekoen, hots, zergak ordaindu behar dituztenen jarrera ere dexente aldatu da zergak ordaintzeko betebeharraren aurrean. Halaxe da, hiritarrok gero eta garbiago dakusagu gastu publikoei aurre egiteko zergak ordaindu behar direla, baina hori bai, Konstituzioak 31. artikuluan esaten duen bezala, bakoitzak bere bitartekoen arabera eta berdintasun eta aurrerabide irizpideetan oinarritutako sistema zuzen baten arabera.

Horretaz jabetzearen ondorioz, hiritarrek lehen baino tinkoago eskatzen dute beren eskubideak defenda daitezela: hain zuzen, eskubide horien eta zergak biltzen dituen Administrazioaren arteko desorekak zuzen daitezen eskatzen dute, eta horrek aldi berean arazo gehiago sorrarazi ditu. Horrela, Administrazioaren araukontrako jokaeren, hau da, lege-antolaketa hausten edo urratzen zuten jokaeren kontrako kexak bideratu ditu Ararteko Erakundeak, eta baita jokabide bidegabeen kontrakoak ere; bidegabetzat jotzen dira, indarrean zegoen legeria hausten ez bazuten ere, arrazoigabeko kalteak eragin dituztenak. Ogasun alorrean kexa multzo horrek garrantzi berezia dauka, zergalaritza-arauak sarriegi egokitzen baitzaizkio Administrazioak une batzuetan zergak biltzeko dauzkan premiei.

Erakundearen urteroko txostenetan erabiltzen den eskemaren eta erreklamazioak jaso dituzten erakundeen arabera, atal edo azpisail hauetan banatuko dugu alorra: diputazioen, udalen eta Gobernuaren zergabilketa.

### **Foru-zergak**

Itunepeko zergen artean, NUIZ deritzana izan da urtez urte kexa gehien sortu dituen, agian zergapeko askorengan duefako eragina. 1990 urtealdian 1.163/1990 Erret Dekretua onartu zen, zerga-mailan beharrik gabe egindako ordainketak itzultzeko jarraibidea arautzen duena.

Ordurarte, NUIZen aitorten-autolikidazioetan hutsegiteak zeuzkatela kon-turatzean interesdunek aurkezten zituzten errekurtsioak atzera botatzen zituzten foru-ogasunek, errekurtsioak aitortpena egin eta urtebete baino gehiago igaro ondoren aurkezten zirenean epezkanpokoak zirela argudiatuz. Erret dekretu horrek, hainbat epailaritza-adierazpenek ordurako adierazitako irizpidea sen-detsi zuen: Administrazioak bezalaxe, administratuek ere bost urteko epea zeu-katela aitorten-autolikidazioen ondoren beharrik gabe ordaindutako dirua itzul ziezaieten eskatzeko. Horrela, adibidez, hutsegite batengatik beren irabazien artean zerga ordaintzetik iare zeuden lan-irabaziak sartu zituzteñei onartu egin zitzaizen diru hori itzultzeko eskaria.

Zerga horren prozedurari dagokionez, zergapekoek azaltzen dituzten kexak aipatu behar dira: arrazoi osoz galdetzen dute ea zergatik daukan Admi-nistrazioak sei hilabeteko epea NUIZ kontzeptuagatik erretenitutako neurritz gorako dirua itzultzeko, zergapekoei beren zergalaritza-betebeharrak betetzeko askoz epe laburragoak ezartzen zaizkien bitartean, eta epe horren barruan aitortpena egiten ez bada zor nagusia %20ko gainkarguaz zigortzen denean. Administrazioak, aldiz, legezko interesa erreklamatzan zaionean bakarrik ordaintzen du, nahiz eta foru-ogasunen bat eskubide hori eskatu behar izan gabe berez aitortzen hasi den.

Zerga horrekin zerikusia daukan erreklamazio multzo handi bat, errenta jakin batzuk zerga horren pean dauden ala ez argitzea eskatzen dutenek osa-tzen dute. Urtez urte behin eta berriz agertu da zergapekoen eta Administra-zioaren arteko eztabaida hau: alegia, irabazi batzuk zergapetzetik iare daudela uste dute zergapekoek, eta Administrazioak, aitzitik, ezetz deritzo.

Horrela, eztabaida garrantzitsua sortu da enplegu-erregulaziorako espe-dienteen barruan negoziatu den aldezaurreko jubilazioari heldu dioten langileei ordaintzen zaizkien gozamen-sari osagarrien inguruan. Diru-kopuru horiek kal-teordain izaera daukatenez, erakunde honek kopuru horiek zergatik kanpo gera zitezen eskatu zien administrazio zergabiltzaileei. Auzitegiek emandako epai batzuetan, Auzitegi Gorenak emandakoak barne, horixe aitortzen zen, eta azkenik, NUIZi buruzko lege berriak bere hamaikagarren xedapen gehiga-rrian jaso zuen.

Pentsio osagarrien arazoa konpondu ondoren, Enplegua Sustatzeko Fon-doek ordaintzen dituzten kopuruei buruzkoa sortu zen, kopuru horiek NUIZen pean zeuden ala ez erabakitzerakoan; arazoa oraindik konpondu gabe dago Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak ordaintzen duen zatiari dagokio-nean, baina datozen ekitaldietarako, 1994ko Estatuaren Guztizko Aurrekon-tuen Legea onartzearekin batera, behin-betiko konponduta geratu da, langa-beziagatik kobratzen dena zergen pean geratzen dela ebatzi duelako.

Baina dudarik gabe, NUIZi buruzko kexa gehienak kenketen alorrari dagozkio. Horien artean, norbanakoek edo beren ardurapeko pertsonak ken-keta horiek egin ahal izateko bete behar dituzten baldintzei dagozkienak azpi-marratu nahi ditugu. Gurasoak ezkonduak egon ala ez kontuan hartzen denez haurtzaindegi gastuak kentzerakoan, kexa ugari aurkeztu zituzten izatez ezkon-du gabe elkarrekin bizi ziren bikoteek, ama ezkongabeek eta alargunek, horiek

ezin baitzuten kenketarik egin “ezkontide”tzat jotzen ez zituztelako. Diskriminazio horretarako arrazoirik ezaz jabeturik, gomendioa egin genuen, eta arazoa azaldu zen urtealdirako balio izan ez bazuen ere, ondorengoetan “ezkontide” esaten zuen lekuan “guraso” jartzea lortu zen.

Beste hainbeste esan daiteke ikastetxe gastuak kentzeko bi ezkontideek lan egin behar izateari buruz. Kenketa egiteko aukera bi ezkontideetako batek bakarrik lan egiten duten famili-unitateei ere eman ziezaien gomendatu ondoren, Foru Diputazioak onartu egin zuen eta abenduaren 15eko 31/1993 Foru-arauaren bidez gauzatu, eta 1994 urtealditik aurrera ezarriko da.

Ohizkoa ez den etxebizitza erosteko egindako gastuen interesak kentzeko aukera, baita kenketa egiteko eskubidea lege berria onartu baino lehen izanik ere sortua ezeztatu izanak kexa batzuk sortarazi zituen, eta horri esker gauza batzuk argitu ziren: alde batetik, zerga alorreko kenketei ezin zaiela epemuga-gabeko baliorik eman, eta bestetik, era horretako hobariak kentzeak ez duela esan nahi atzerako eragina daukatenik, alegia, arauen kontrakoak direnik.

Kenketei dagokienez, beste zerbait ere esan behar da amaitu aurretik. Legegileak araudia ezartzeko diskrezionalitate edo aukera-ahalmen osoa duen arren, batzuetan gizatalde batek, beste batzuek ez bezala, halako kenketa baten onura jasoko duela erabakitzeko arrazoiak, ez dira behar bezalako irizpide objektibo eta arrazoizkoetan oinarritzen eta, beraz, diskrezionalitatea eta alderdikeria bereiztea zaila gertatzen da kasu horietan.

Foru-zergei dagokienez, Ondare Eskualdeaketen eta Agiri-bidezko Lege Ekintzen gaineko Zergaren inguruan azaltzen diren kexak ere aipatu behar dira.

Horretan aurkitu den arazorik garrantzitsuena Zergen Lege Orokorren 52. artikuluan iragartzen diren balioak egiaztatzeko bidea izan da. Sarritan gertatzen da ondasun bera modu ezberdinean balioztatzea, zerga baterako edo besterako izan, baina balioespen ezberdin hori zerga berean egitea bai da larria.

Higiezinen salerosketa kasuetan, administrazio zergabiltzailerek balioak egiaztatzeko egiten dituzten kitapenetan, maizegi ez dira jasotzen eskualdatzen den ondasunaren azken balioa kalkulatzeko kontutan eduki ziren datuak; horrela, Auzitegi Gorenak finkatutako doktrina baten arabera, norbanakoa kasu horietan babesgabezia egoeran aurkitzen da, eta horregatik kitapen horiek baliogabatu egin behar dira.

Are garrantzitsuagoa da, jakinarazpenak egitean, agiri-aurkezlea (normalean notaria) eta zerga ordaindu behar duena parekotzat jotzea; horrek, gure ustez, ez du errespetatzen epailaritza-babes eraginkorren irizpidea, legeek errekursoak ezartzeko interesdunari ematen dioten aukera kentzen diolako.

Beste alde batetik, aurkeztu kexak ugariak direnez gero, agian komenigarria izango da etxebizitzak prezio neurtuan erosteari darizkion arazoak aipatzea; jakina, erabiliak izan diren etxebizitzak dira eta euren erosleek Euskal Herriko Autonomi Elkarteak dirulaguntza eta mailegu kualifikatuen bitartez ematen dituen laguntzak jasotzen dituzte.

Erreklamatzailen iritziz, laguntzak direla bide, etxebizitza hauek babes ofizialekoek dituztenen antzeko mugapenak dituzte salneurriari dagokionez, efa, beraz, indarrean dagoen legeriak azken hauei aitortzen dizkien onurak ere izan behar dituzte, esate baterako Ondare Eskualdaketen Gaineko Zergatik (OEZ) salbuetsita egotea. Foru ogasunek, beren aldetik, salbuespen hau "babes ofizialeko etxebizitzaren lehen eskualdaketa" rako bakarrik iragarrita dagoela ulertzen dute, eta hori, beren iritziz, ez da inolaz ere prezio neurtupeko etxebizitzaren erosketekin pareagarri. Arazo hau beste hainbat kexa sorrarazten ari da hasi berria den 1994 urtealdian, eta horren ondorioz, seguraski elkar har-tuta jardun behar izango dute erakunde honek eta hiru lurralde historikoetako foru ogasunek.

## Udal-zergak

Atal honen hasieran adierazi dugun bezala, Herri Ogasunen 39/88 Legea onartzeak udalen diru-baliabideen sistema astindu egin zuen, eta administrazioak udal-zerga egoera berriari egokitu beharra ekarri zuen.

Gertakizun horren adibide gisa hauxe aipatuko dugu: Getxoko Udalak lehenagoko Hiri Zerga Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren bidez (OHZ) garestitu zuenean, erakunde honetan seiehun kexa baino gehiago jaso ziren zerga horren kontra. Era berean, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ), hots, Lizentzia Fiskalari buruzkoak eta Kokapen eta Publizitate zergak ordezkatzaren dituen indarrean sartu izanak ere kaltetuen kexak eragin ditu. Bi kasuetan, kuota izugarri garestitu da eta, garestitze hori dagozkien foru-arauen eta udal-ordenantza fiskaletan lege-oinarria hartuz egin den arren, zergari aurka egin diote ordaindu behar duten gehienek. Era horretako erreklamazioetan, Arartekoak tartean dauden udalen aurrean bitartekaritza lanak egin ditu, arduradunei sentiberatasunez eta laintasun-irizpidea errespetatuz joka dezaten eskatuz. Batzuetan, bitartekaritza espero zen emaitza lortu da, beste batzuetan, ordea, udalbatzarren zergabiltzeko premia nagusitu da.

Baina zerga-gaietan agiri bidez aldizka kobratzen diren zergen jakinarazpena izan da gizatalde handi bati eragin dion eta kexa ugari sorrarazi dituen arazoa. Gure lege-antolaketak Administrazioari ezartzen dizkion zereginetako bat da norbanakoaren eskubide eta interesetan eragina daukaten ebazpen eta jarduerak haiei jakinaraztea.

Jakinarazpenak bi helburu ditu: alde batetik, dagokionari beragan eragina duen ekintza baten berri ematea, eta bestetik, administratua eskatzen zaionarekin ados ez badago, horren kontra dagokion errekurtsioa aurkezteko abiapuntu izatea. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga, Ondasun Higiezinengatikoa edo Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gainekoa bezalako zergak aldizka kobratzen diren horietakoak dira, eta dagokien erregistro, errolda edo matrikulan alta ematea nahikoa da ondorengo kobraketa ororen berri hiritar guztiei ediktu bidez jakinarazteko. Aribidean, ordea, interesdunek jakinarazpena bidali

egingo dietela uste dute, eta jasotzen duten lehen abisua %20ko gainkargua duen zorraren agiria izaten da.

Auzitegi Gorenak gai horri dagokionez adierazi du ediktu bidezko jakinarazpena ez dela aldizka kobratzen diren zergetan normalean erabili behar den bidea; Konstituzio Auzitegiak ere uste horrekin bat datorrela azaldu du, esanez ezin dela administratua egunero agintaritza-aldizkaria irakurtzera behartu, berari eragingo dion jardueraren bat aurkituko duelakoan.

1992 urtealdiari zegokion txostenean Arartekoak gomendatu zien administrazio zergabiltzaileei ahal zen neurrian ez zezatela erabil ediktu bidezko jakinarazpena, eta bai ordea interesdunak abisua jaso duela ziurtatuko duten jakinarazpen bideak.

Udal-zergen kasuan, udal-tasa eta prezio publikoen kontrako kexa multzo handi bat egon da.

Tasa eta prezio publikoen arteko bereizketa berria dela eta, Zuzenbide publikoko dirusarrera horiek ordaindu beharra eragiten duten jarduerak eta berarizko erabilerak oro har zeintzuk diren jasotzen duten ordenantza fiskalak onartu dituzte udalek.

Tasei dagokienez, obra eta hirigintz lanetarako baimenetan %90eko hobaria izateak etxebizitza soziaien politikan zuen eragin garrantzitsua aipatu behar da; hobari hori, beste hobari fiskalekin batera bertan behera geratu zen Herri Ogasunen Legea indarrean sartzearekin batera. Hobari hori berriro indarrean jartzeko gomendioa egin zen 1992ko txostenean, eta euskal udalek gutziz onartu zuten EUDELen bitartez.

Egiten diren kitapenen kopurua eta zenbatekoak kontuan izanik eragin handia eduki zuen beste gai bat, zerga horren oinarri ezargarrian eta, beraz, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan tresneriaren kostua sartzeari buruzkoa izan zen. Arartekoak, gai horretaz zeuden epailaritza-ebazpenak ikusirik, tresneriaren kostua bi zerga horien oinarri ezagarritik kanpo uzteko gomendatu zien udalei, "benetako kostu"tzat ezin delako hartu.

Prezio publikoei dagokienez, behin eta berriz kexa hau azaldu da: zein izan behar duen prezio publiko horien gehienezko zenbatekoa, izan ere horiek, tasek ez bezala, gutxienezko prezioztat zerbitzuaren kostua daukate. Horrela, adibidez Galdakaoko Udal Musika Kontserbatorioko erabiltzaileek aurkeztu zuten kexan salatzen zen bezala, ikasturte erdian eta ikasgai batzuetan %300eko igoera egon zen aurreko urtean indarrean zeuden prezioekin alderatuz.

## **Autonomi mailako zergak**

Atal honetan, berez daukan garrantziagatik aipagarria den bakarra irakas-kuntz zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoei dagokiena da. Horiek, bestalde, eta Zuzenbide publikoko dirusarrera horien izaerari buruz gaur oraindik dagoen eztabaida bizia dela medio, ezin da esan berez zergak direnik ere.

Nolanahi ere, unibertsitateko prezio publikoak, urtero Hezkuntza, Uni-bertsitate eta Ikerketa Sailak agindu bidez ezartzen dituenak, 1992-1993 ikas-turtean erreklamazio ugari eragin zituen; banaka edo taldeka egindako kexa horiek ikasgai berean bigarren aldiz edo gehiagotan matrikula egiterakoan eza-ri ohi zen klausula bat kentzearen kontrako iritzia agertzen zuten. Izan ere, klausula horren arabera, ikasgai soltetarako matrikularen kostuak ezin zuten ikasturte osorako matrikularen kostua gainditu. Eta hori kentzearen ondorioz, esate baterako, sei ikasgai soltetan matrikulatzeagatik, zazpi ikasgai zeuzkan ikasturte osoan matrikulatzeagatik baino %50 gehiago ordaindu beharra gerta zitekeen.

Hori argitzeko Unibertsitateen Zuzendaritzarekin egindako bileren ondo-ren, 93-94 ikasturterako akordio hau lortu zen: prezio publikoa finkatzeko, ikasturte osoaren kostua zati ikasgai kopurua egin behar zen, eta horrela zuzendu ziren gertatutako gorabeherak.

Prezio publiko horien kudeaketari dagokienez, matrikula balio gabetu ondoren Unibertsitateko Errektoregoak matrikularengatik ordaindutako kopu-rua itzuli nahi ez izanagatik azaldutako kexak dira aipagarri. Halaxe da, Uni-bertsitate batean matrikula-eskaria egin eta horren erantzuna jaso zain zeudela beste fakultate batean lehen ikasturterako matrikula egin zuten ikasleen kexak jaso dira. Kasu horietan, lehenengoan onartu zituztela jakiten zutenean, beste fakultateko matrikula bertan behera uzten zuten ordaindu prezio publikoak itzultzeko eskatuz; Errektoregoak, ordea, ez zuen eskaria onartzen, horretara-ko Euskal Autonomi Elkarteke Tasa eta Prezio Publikoen 3/1990 Legeak 146.6. artikuluan idatzitakoari jarraiki; hauxe dio legeak:

“Prezio publikoa ordaintzera beharturik dagoenari leporatu ezin zaizkion arrazoiengatik jarduera burutu ez edo zerbitzua ematen ez denean, dagokion dirua itzuli egingo zaio...”

Horrela, Errektoregoak egiten zuen interpretazioaren arabera, artikulua hori itzulketak egiteko uestzko arrazoi en zerrenda itxia da. Prezio publikoak ordaindu beharrik gabe behin-behineko matrikula egiteko aukera bazegoela ere esaten zuen. Erakunde honen uestez, ordea, ez zen aukera horren berri behar bezala ematen, eta horregatik aukera horri buruzko informazio zehatza lkaslearen Gidan eta matrikularako informazio inprimakietan sartzea gomen-dat u zuen, eta hori onartu egin da 94-95 ikasturterako.

## Laburpena

Bost urte hauetan bideratu diren espedienteen emaitza zehatzetatik haruntzago, eta egindako gomendioen betetze-mailari dagokionez, Arartekoa-ren jarduerak gutxienez oso eragin psikologiko garrantzitsua izan dute zergen ordainarazpenean parte hartzen duten erakundeetan. Lehenik eta bereziki Administrazioan, Arartekoa Administrazioaren jardunaren ikuskapen-tresna garrantzitsua delako, bai alde z aurretik, xedapen fiskalak osatzen direnean alegia, Zuzenbidea suspertzeko eginkizuna deitu denaren bidez, eta baita *a poste-riori* ere, gizabanakoek salatutako edo berariz antzemandako jarduerak ikuska-



tuz. Bestalde; zergapekoengan ere badu eragina, ez baita ahaztu behar horietan direla Administrazioak ustez burutu ditzakeen nahikeriazko ekintza edo jarduera bidegabeen kontra jotzeko bitartekorik urriena dauzkatenak; herritarrak aholkularitza eta ebazpen-bide eskuragarri eta merkea eduki dezakete erakunde honetan, ekonomia eta administrazio epaitegien edo auzibide-jurisdikzioen beren aldean.

Garbi dago Ogasun alorra izango dela aurrerantzean ere kexa gehien eragingo dituenetako bat, are gehiago kontuan hartzen badugu krisi garaietan errentak gutxitu arren, zergabidezko presioak bere hartan jarraitzen duela.

Prozedurari dagokionez, Administrazio Publikoen Lege Jaurpiderako eta Administrazioaren Jardunbide Arrunterako 30/92 Legeak 59.4. artikuluan jasotzen duen jakinarazpenaren arauketa berriak zein ondorio dituen ikusi beharko da; zerga-arauetan berariz arautua ez dagoenean ordezko gisa erabiltzeko da, eta hauxe dio: "jakinarazpena egiten saiatu baina egin gabe utzi behar izan denean, hiritarrak ofizialki aitortuta daukan bizilekuari dagokion udaleko iragarki-taulan eta aldezkarik ofizialean egin beharko da". Agindu horrek daukan diskrezionalitate mailarengatik sor daitekeen defentsa eza edo babesgabezia kezkarria da; erabiltzen dituen hitzak zehatzak ez direlako.

Funtsari dagokionez, berriz, zerga-ekintzek Konstituzioan jasotako berdintasun, aurrerabide eta dirubide-gaitasunaren irizpideak zorrotz errespetatu dituzten lortu beharko da, Zergen Lege Orokorrak 4. artikuluan dioena ahaztu gabe: "Zergek, dirusarrera publikoak biltzeko bitartekoa izateaz gain, ekonomi politikaren tresna ere izan behar dute, gizartearen egonkortasuna eta aurrerabidea segurtatu eta errentaren banaketa zuzenagoa bideratu behar dute".

Hitz batean esanda, administrazio zergabiltzailearen eta zergapekoen artean sortzen diren auzi guztietan bitartekaritza lana egin beharko da; lehenengoek, lege-antolaketa ematen dien zeregina betetzean babesturik jokatzen dute, baina sarritan ondarezalekeriaz eta beren jardueraren ardatz nagusi izan behar duen "zerbitzu publiko" izaera ahaztuz; zergapekoek, berriz, berdintasun eta dirubide-gaitasun irizpideak defendatzen dituzte, zergak ordaintzeak berez duen derrigorrezko elkartasuna eta erantzukidetasuna ahaztu gabe.

## 2.6. HERRIZAINGOA

Alderdi baten eskariz edo berariz herrizaingo mailan erakunde honek aurkitu dituen arazo eta gaiak buruz Arartekoak bost urteotan egin duen lana askotarikoa eta ugaria izan da.

Barne antolaketarako, bi azpizail nagusitan banatu da alor hau: Bidezaingoa eta Herri-Bakea. Lehenengoan, batez ere auzotarrek hala eskaturik, ibilgailuen zirkulazio eta errepide-segurtasunaz egin diren jarduerak guztiak sartzen dira. Gai horrek, bai prozedura aldetik eta baita funtsean ere, bereizgarritasun aparta bereganatu du izenburu honen pean sartzen diren arazoaren artean.

Herri-Bakea azpisailari dagokionez, era askotako jarduerak daude, hala edukiaren nola formaren aldetik; puntu honetan garrantzi nabarmena daukate Ararteko Erakundeak berak berariz sustatu dituen jarduerak.

## **Bidezaingoa**

Bidezaingo gaitan burutu diren jarduerak aztertzerakoan, lehenik esan behar da erakunde honi aurkeztu dizkioten arazoak edo bertakoek antzeman dituztenak, beti beretsuak izan direla. Bestalde, gai-multzo honen ezaugarri gisa, ia soil-soilik Administrazioaren zigortze-jarduera aztertzen dela esan beharra daukagu.

Horrela, lehenik baietsi dezakegu urtealdiz urtealdi arazo berberak azaltzen direla bidezaingo alorrean, aldaketa gutxi gorabehera, eta horietako gehienak bi atal nagusitan bana ditzakegu. Alde batetik hiriarteko trafikoarekin zerikusia dutenak leudeke, eta bestetik, gure lurralde autonomoko hiri handien barruan dagoen errepide eta zirkulazio antolaketari lotuak.

Hiriarteko trafikoari dagokionez, zigor-espeditenteen ondorioz sortutako arazoak izan dira nagusi, batez ere honako hau: ustezko lege-haustea burutzen den unean ibilgailua ez gelditzeak izugarri zailtzen du legea urratu duen pertsona identifikatzea.

Hiri barruko trafikoari dagokionez, ibilgailuak aparkatzeko arauak hausteagatik ezartzen diren zigor-espeditenteengatik sortu dira kexa gehienak; eta gure lurralde autonomoko hiri nagusietan trafiko eta aparkamendurako udal ordenantzekin (TAO) gertatutako arazoek eragin handia izan dute. Era berean, ordenantza horiek direla arrazoi, Ararteko honek zenbait ikerketa burutu ditu ordenantzen izaera juridikoan jasota dauden edo horietan azaltzen ez diren egoerek sortutako arazoak konpontzearen.

Azkenik, udal administrazioek ibilgailuak erretiratzeko dauden arauak indarrean jartzerakoan hiritarrek haiekin izandako arazoak salatzen zituzten kexak ere jaso dira.

Lehenago esan dugun bezala, Ararteko Erakundeak bidezaingo gaitan burutu duen jarduera, bost urte hauetan hiritarren eskariz ireki diren ehun bat kexa-espeditente bideratzea eta ebaztea izan da funtsean. Kasu gehienetan, hiritar horiei zigor-espeditenteak ezartzen zitzaizkien. Hala ere, espeditente horiek aurrera eramaterakoan azaltzen ziren arazoekin lotura zeukaten edo orokorragoak ziren beste batzuk ere ikusi dira, eta horien ebazpena, berarizko jarduera bereziei ekin gabe bideratu da dagokion espeditentean bertan oinarrituz.

Lege-urratzea burutu duen ibilgailua gelditzen ez denean gidari zihoan pertsona identifikatzeko dagoen zailtasunari dagokionez, arazo hori ebazteko zegoen legezko bidea arras aldatu da azaroaren 22ko Konstituzio Auzitegiaren 219/1988 epaiaz geroztik eta, batez ere, Bidezaingo, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Errepide Segurtasunari buruzko Lege berria indarrean jarri zenez. Egungo araudiarekin, beti lege-urratzeak norberarenak direla gogoan iza-

nik, ustez lege-haustea egin duen gidaria errudun aitortzen ez bada eta horrekin batera aurkakoa frogatzen ez den bitartean, errugabetasun-ustearen irizpidearen arabera errugabea denez, ez dauka zertan zigorra ordaindu. Halaz gutziz, instrukzioa burutzen duen administrazioari lan horretarako laguntzarik eman nahi ez izatea, orain lege-haustetzat hartzen da, eta hori Bidezaingoaren Legeko 72.3. artikuluan dago jasota. Bide horri jarraiki ebatzi ditu Arartekoak arrazoi horrengatik bideratutako kexak, baina halere Administrazioari gogorazai zaio lege-urratzea gertatzen den unean ibilgailu gidaria identifikatzeko beharra daukala lehen aipatu legeko 77. artikuluan xedatzen den bezala.

Hiriguneetan Zirkulazio-Arauek hausteagatik udaltzaingoak burututako jardueren kontrako kexei dagokienez, Arartekoak behin baino gehiagotan esku hartu du araukontra aparkatuta dauden ibilgailuak mugitu ezinik utzi eta erretiratzeko Bidezaingo Legeak 70. eta 71. artikuluetan iragartzen dituen neurrien ezarpena egokitzeko. Horrela, hartutako zuhertasun-neurria atzera bota eta kexa-aurkezleari ordaindutako tasak itzul ziezaizkieten gomendatu zien sarritan Arartekoak udalei. Izan ere, ibilgailua geldiarazi eta erretiratzea bakar-bakarrik lehen aipatu artikuluetan jasotako kasuetan da zilegi, eta Bidezaingo Legeko 38.4. artikulua ez die ematen udalei, udal ordenantzez baliatuz, kasu-multzo honi beste batzuk gehitzeko edo berriak sortzeko ahalmenik.

TAO aldean ibilgailu bat ongi aparkatuta egon eta, beste inori enbarazorik egiten ez dion arren, denbora-muga gainditu duelako ordenantza hausteagatik ezartzen diren isunak direla bide Arartekoak burutu dituen jarduerak ere interesgarriak dira. Erakundeak lurralde autonomoko hiri handiei adierazi zien bezala, ez zen bidezkoa TAO aldean aparkatuta egon eta denbora-muga bukatu bezain laster ibilgailua erretiratzea, ez zetorrelako Zuzenbidearekin bat; izan ere, Bidezaingo Legeak 71. artikulua bidez adierazten zuen bezala, ibilgailua erretiratzeko erabakia denbora-muga gainditu eta zentzuzkoa den epean hartu behar da berme-neurri hori.

Eragindako administrazioek gai honi dagokionez hauxe zioten lege-haustea Bidezaingo Legearen 71. artikuluan iragartzen zen kasuetako baten barruan sartzen zela eta, horren ondorioz, aparkatzeko agintarauak errespetatu ez zituzten ibilgailuak erretiratzeko neurria legezkoa zela. Horrela, beren iritziz, ibilgailu batek araukontra eta araudian iragarri baino denbora luzeagoan leku bat okupatzeak trafiko-arazoak sortzen zituen aparkatzeko leku faltagatik, eta arazo horrek hiriko zirkulazioari kalte egiten zion.

Ararteko Erakunde hau ez zegoen ados iritzi horrekin. Aitzitik, azaldutako kasua Bidezaingoaren Legearen 71. artikulua erekin parekatzea benetan gehiegizkoa da, aparkatzeko plaza denbora luzez hartzen denean izan ezik, orduan trafikoari eragin diezaiokelako edo, Bidezaingoaren Legeak dioen bezala, zirkulazioari kalte larriak ekar diezaiokielako. Horrengatik, aparkatzeko ezartzen den denbora-muga igaro eta handik ordubeterarte ibilgailua ez erretiratzea gomendatzen dugu.

TAO ordenantzaren ezarpenak dakartzan arazoen inguruan emaitza onak izan dituzten beste antola batzuen artean, araudi hori Zuzenbideari egokituz hiri garrantzitsu batean indarrean jartzeko ahalegina aipatu behar da; araudi

horiengatik eta egoitza-lekuaren arabera atzerriko ibilgailuen jabeek neurri bereziak ezartzea gomendatu du Arartekoak.

Azkenik, bidezaingo gaietan zerikusia duen eta erakunde honetan antzeman den beste arazo bat, bidezaingorako lurralde ordezkariak emandako zigor-ebazpenen kontra hiritarrek ezarritako goradeiei Administrazioak ez erantzutea da. Administrazioak urteak igaro ditzakeenez erantzun gabe, horrek lege-segurtasunari eragiten dio. Zuribide gisa, horrelako idatzi-kopuruak gora egin duela esan daiteke; dena den, Administrazioak, ezarritako biderapeneak errespetatzen eta administratuarentzat itxaroaldiak eta beharrezko ez den segurtasun eza ekar ditzaketen atzerapenak eragozten saiatu behar du.

Azkenik, beste jarduera batzuk ere aipatu behar dira, eta horien artean, ustez ibilgailu bat abandonatuta zegoelakoan errepidetik erretiratu eta ondoren desegin den kasuetan Arartekoa behin eta berriz saiatu da hiritarren esku-bideak babesten.

Bideratu ditugun kasuetan, batez ere hiritarrek aurkeztutako kexetan azalduetako arrazoiak Arartekoak baliagarritzat jo dituenetan, eragindako administrazioek, hots, Eusko Jaurlaritzako Bidezaingo Zuzendaritzak edo udalek bete egin dute erakunde honek gomendatutakoa.

## **Herri-Bakea**

Herri-Bakea azpisailean sartzen diren gaiak ez dira Bidezaingoari buruz aurkeztu direnak bezain bateratsuak. Izan ere, azpisaile honetan sar daitekeen gai-andanari hiritarrek aurkeztu dituzten arazo urriak gehitzen badizkiogu, herri-bakea izenburuaren azpian bildutako gaiak oso desberdinak direla ikusten da.

Herri-Bakea azpisailean aztertu diren gaiak batipat udaltzaingoek kasu jakin batzuetan burututako ekintzen ingurukoak izan dira, eta gutxiago Er-tzaintzarekin zerikusia dutenak. Beste gai batzuek, hirietako segurtasun eza azaldu dute, arazo hori sarritan droga trafiko eta legezkontrako kontsumoarekin estuki lotuta dagoelarik.

Erakundeak egin dituen ikerketen bidez antzeman diren arazoei begira, atxiloketa zentruen izatezko eta legezko egoera aipatu behar da; Euskal Autonomi Elkartearen dauden zentruak autonomi agintarien edo toki agintarien menpe daude organikoki eta, beraz, 3/85 Legearen 9. artikulua Arartekoarentzat ezartzen duen jarduera-eremuaren barruan.

Bigarrenik, gure herrialdera biziera hobearen bila edo beste zenbaitetan Hirugarren Mundua deritzaneko herrialdeetan bizi diren egoera latzen ondorioz babes politiko bila datozen atzerritarrekin zerikusirik duten arazoak gehituz joan dira. Ildo horretatik, Erakundea sendotu ahala, atzerritartasunarekin eta etorkinen egoerarekin loturiko arazo desberdin bezain ugariak ezagutu ditugu. Horietako batzuk Herrizaingo atalean sartu behar dira. Horrenbestez, gure lurralde autonomoan bizi diren atzerritarren lege-araupetzeak arazoak

sortu ditu, bai eta atzerritar horiek daukaten lege-estatutuaren arabera oinarrizko laguntza sozialak jasotzerakoan dituzten gabeziek ere.

Herri-bakeari buruz Ararteko Erakundeari aurkeztu zaizkion edo Erakundeak berez aurkitu dituen arazoak oro har azaldu ondoren, Legebiltzarraren ordezkari den honek bere lehen bost urteotan burutu dituen jarduerak azalduko ditugu.

Norbanakoek aurkeztu dituzten arazoei dagokienez, Herri-Bakea azpisailan salaketa gutxi sartu dira, eta horiek oso zehatzak izan dira, polizia zerbitzu ezberdinen kontrakoak edo beste maila bateko arazo bakarrak.

Nolanahi ere, hiritarrek egin dituzten erreklamazioak ebazteko ez da Arartekoaren jarduera orokor edo sakonagorik behar izan, kexa-espediente guztiak bideratzea nahikoa izan da.

Horrela, herri-bakeari loturiko arazoak ebazterakoan, Arartekoak salatu-tako jokabideak ikertu besterik ez du egin, eta horretarako tartean zeuden herrizaingo-sail ezberdinen organu gorenei azalpenak eskatu zaizkie. Horrelako kexen izaera aintzat hartuz, espediente gehienak gomendiorik eman gabe burutu dira. Izan ere, kasu askotan erakunde honen eskuhartzea nahikoa izaten da zerikusirik duten administrazioek legedia zehatz-mehatz bete dezaten.

Lehenago esan dugun bezala, alor honetan Arartekoak burutu dituen berarizko jarduerak garrantzi handikoak izan dira. Horien artean, gogoratze-koa da 1990-1991 urtealdian Arartekoak egin zuen lehen txosten monografikoa herri-bakeari loturiko gai bati zegokiola.

Kasu horretan, 3/85 legeak berak Arartekoari aitortzen dion jardueraren eremuaren arabera, Euskal Autonomi Elkartearen eta udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren pean dauden atxiloteta-zentruen izatezko eta legezko egoera ikertu ziren.

Txosten monografiko horretan, alde batetik, Euskal Autonomi Elkartearen udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren atxiloteta-zentru edo kalabozoen azterketa eta deskribapen fisikoa egin zen. Horretarako, 35 atxiloteta-zentru bisitatu ziren, eta beste gai bätzuen artean, horien kokapena, sarbideak, zelden neurriak, ateak, argiteria eta altzariak ikertu ziren. Era berean, osasun eta mediku arretarako, elikatzeko, senitartekoekiko harremanetarako, atxilotuak arakatzeko zerbitzuak eta segurtasun-neurriak ere ikuskatu ziren.

Txostenaren bigarren zatian, kalabozoei buruzko azterketa juridikoa egin zen eta horretarako, nazioartean, Estatuan eta Zuzenbide konparatuan xedatzen dena hartu zen kontuan.

Azken gomendioen artean, indarrean dagoen legedia egokitzeko beharrezko arauak aldatzeko eta kalabozoei buruzko lege-jaurpide zehatza finkatzeko premia zeuden.

Atxilotutako adingutxikoen eskubideak babestera eta atzerritarrei hizkuntza mailako laguntza ematera bideratutako neurriak har zitezkeen ere gomendatu genuen. Era berean adierazi genuen, egungo kalabozoak atxilotuen funtsezko eskubideak bermatzeko bete behar dituzten baldintza fisikoetara egokitzeko balira, asteburuetako zigorrak edo iraupen motzeko zigorrak bete behar dituzten pertsonentzat ere erabil zitezkeela; horrela, ez litzateke horiek beste zentru

batzuetara eraman beharrik izango, horrek beren ingurutik eta familiarik aldentzean arazoak sortzen dizkielako.

Giza baliabideei dagokienez, atxiloteta zentruetan kartzeletako arreta-epaileek partaidetza handi eta sakonagoa eduki beharko lukete erakunde honen ustez, eta aldez aurretik abisatu gabe hileroko zentru horietara bisita egitea gomendatu genien.

Azkenik, kalabozoen eta atxilotutako pertsonen eraentza eta zaintza arduratzen diren agintaritza-eragileak kriminologian trebatzeko egitarauak jarrezko iradokizuna ere interesgarria zen.

Igaro diren bost urte hauetan, atzerritarrek Espainian egoteko aurkitzen zituzten arazoei loturiko erreklamazio apur batzuk ere jaso dira Erakundearen. Era berean, gizatalde horren alde lan egiten duten talde edo elkarten zenbait salaketa ere hartu ditugu.

Kasu gehienetan, tankera horretako kexa gehienak Herri Defendatzaileari igorri behar izan zaizkio bidera zitzan, atzerritartasun eta asilo gaietan esku-omen osoa Estatuak daukalako. Halere, alor horretan antzemandako arazo-ondorioz, berarizko jarduera garrantzitsuak egin behar izan dira, batez ere Arartekoaren lehen agintaldi honen amaieran.

Horrela, Erakundeak atzerritartasun eta asilo alorrean burutu dituen jardueren artetik bereziki hiru nabarmenduko ditugu.

Lehenik, 1993. urtean berariz ireki ziren zenbait espediente sartuko ditugu atal honetan. Horien helburua, gure lurralde autonomoan bizi eta, Estatuaren Administrazioari babes politiko eta asilo eskaria egin arren, ebatzi gabe egoteagatik jasaten zituzten arazoak aztertzea zen. Gai hori bete-betean Gizarte Ongizate alorrean sartzen bada ere, atzerritartasun gaiekin duen lotura eta sailkapen arrazoiengatik egokiagoa da horren aipamena puntu honetan egitea.

Erakunde honen iritziak, gizatalde horren inguruan sortu zen izatezko egoera, ageriko araudi zentzugabe baten eta arazoak zuzenean arduratu beharko luketen administrazioek beren betebeharrak ahaztearen ondorio da. Pertsona horien egoera txarra ikusirik, Arartekoak Euskal Autonomi Elkarteko hiru lurralde historikoei beren Gizarte Ongizate sailen bidez arazo horretan parte har zezaten eskatu zien.

Horretarako, erakunde honen lege-aholkularitzak babes politiko eta asilo gaietan indarrean zegoen araudia eta eragindako administrazioek berori nola erabiltzen zuten jasotzen zuen txostena osatu zuen. Orobat, pertsona horien baliabide eta lege-segurtasunik ezari aurre egiteko geratzen ziren jarduerak ere aztertu ziren; txostenaren amaieran gure lurralde autonomoko agintaritzaren jarduerarako hiru salo zeuzkan arautze-proposamena luzatu genuen.

Burutu genituen antolek ondorio ezberdinak izan zituzten gure elkarte autonomoko lurralde historikoen arabera. Horri guztiari buruzko zehaztasunak, Arartekoak 1993 urtealdiari buruz Eusko Legebiltzarrari aurkeztu dion txostenean daude, Erakundearen berarizko jardueren atalean, hain zuzen.

Zenbait talde eta elkartek aurkeztutako kexa baten ondorioz, atzerritar batzuk herriko biztanle-errodan sartzeko arazoari buruzko espedientea bideratu zen iaz. Erakunde honek ikusi zuenez, atzerritarrek herri-errodan sartu eta legezko egoitza lortzeko arauak oso modu desberdinean ezartzen dira. Halaxe da, atzerritarrek Espainian oso lege-egoera ezberdinetan egon daitezke, eta horregatik, udalek ez dakite argi eta garbi noiz den legezkoa atzerritarrek errodan sartzea eta noiz ez.

Gaia garrantzitsua da, udal-errola batzuetan ezinbesteko tresna baita oinarrizko zerbitzu publikoak lortzeko, eta horiek funtsezkoak dira ekonomi edo giza mailaren ikuspegitik begiratuta egoera larrian dauden pertsonentzat.

Horregatik guztiagatik, gure lege-aholkularitzak gaia aztertu zuen, eta azkenik Arartekoaren 1993. urtealdiari buruzko txostenean gomendio orokor gisa sartu zen. Lan horretan, atzerritarrek Espainian aurki ditzaketen lege-egoera ezberdinak jasotzen dira, eta egoera horiek toki-jaurpiderako indarrean dagoen araudian xedañutakoari atxikitzen zaizkio. Ondorio gisa, atzerritarrek udal-erroldean zein kasutan sartzea komeni den aipatzen da, eta sarbide hori gauzatzeko bide juridikorik ez dagoenean erroldaratzeko aukera baztertu egiten da. Oraindik ikusteke dago zein erabilera emango dioten euskal udalek etorkizunean azterketa horri, kontuan izanik gainera atzerritarren erroldaratzeskeriak gero eta gehiago izango direla.

Azkenik, 1992-1993. urtealdian araugabeko etorkinei buruz egindako lana aipatu behar da puntu honetan. Giza eskubide eta betebeharren ikuspegitik egindako ikerlan hori, Ararteko Erakundeak giza eskubideen alorrean ikerketa sustatu eta bultzatzeko ahaleginean emandako elkarlanerako beka bati esker egin da.

Araugabeko etorkinen lege-egoera aztertzen da zehazki lan horretan eta, gaur-gaurko gaia izaki, azterketa-lana ikerketa teoriko bikaina da, zuzeneko ekarpen eta bizi-eskarmentuaren arabera egina, ordea.

Egoera araugabeen dauden atzerriko hiritarren giza eskubide eta betebeharrei buruzko azterketa hori lau ataletan banatua dago: nazioarteko, Europako Elkarteko, Espainiako eta Autonomi Elkarteko Zuzenbidea aztertzen da horietan.

Laster argitaratuko den lan hori Espainian atzerritarrekin nola edo hala lotura daukaten erakunde publiko nahiz pribatu ezagun guztiei helaraziko zaie, Ararteko Erakundeak lan hau prestatuz atzerritartasun eskubideari buruz egin nahi izan duen ekarpena aditzera emateko.

## 2.7. JUSTIZIA

Ombudsmanaren lege-izaera azaltzerakoan sarritan esan da inondik ere ez dela erakunde juridikionala, aitzitik, ikuskapenerako ohizko sailen lana osatzen duen erakunde dela.

Konstituzioaren 117. artikulua epailaritzagintaren burujabetasun hori berariz aldarrikatzen du, eta haren hirugarren atalean esaten da epaitzeko eta

emandako epaia betearazteko zeregina epaitegi eta auzitegiei bakar-bakarrik dagokiela.

Aitorpen horrekin bat eginez, gure legearen 13. artikulua, beste lurralde autonomo eta Estatuko Herri Defendatzailearen legeek bezalaxe, hau esaten du: "Arartekoa ez da sendetsitako epaiaren gai izan edo epailaritza-erabakia-  
ren zain egon daitezen arrenkurak banaka aztertzen hasiko."

Horrela, Justizi Administrazioa zentzu zabalean hartuta horren alderdi juridikzionala alde batera uzten badugu, administrazio aparatua bakarrik geratzen zaigu.

Bi zereginak bereizi eta epailaritza-ebazpenak Arartekoaren ikuskapen-ahalmenetik kanpo daudela argitu ondoren, erakunde honek Justizi alorrean burutzen duen lana azertu behar da.

Alde batetik, justizi alorrean Arartekoak autonomi Administrazioaren ekintzak ikuska ditzake, hain zuzen Eusko Jaurlaritzako Justizi Sailaren jardute-egitura zehazten duen martxoaren 20ko 201/1991 Dekretuan adierazten direnak. Zehaztasunetan sartu gabe, jardute-egituran puntu nagusi hauek bil-tzen dira: giza baliabideak eta langaiak, norgehiagoka-lehiaketetarako deialdi-  
eskariak, justizi mugarteen antolaketan parte hartzea, etabar.

Egia esan, jardunbide horiek ez dute apenas kexarik eragin Arartekoaren aurrean eta, beraz, Erakundearen jarduneko bost urte hauetan autonomi admi-nistrazio horren kontra oso erreklamazio gutxi egin dira.

Kexa multzo txiki horren parean, erreklamazio gehienak Justizi banaketa-  
ren kontrakoak izan dira. Horrela, erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legearen 9.2. artikuluan esaten da, Arartekoak Justizi Administrazioaren aurkako kexak jasotzen dituenean, horiek ikertzeko edo ebazteko eskumena duen sailari igorri behar dizkiola.

Horregatik, aurkeztutako kexaren batean Justizia banatzean oker jokatu dela ikusten denean, Arartekoak Herri Salataritzari edo Epailaritza-agintearen Kontseilu Nagusiari igorri ohi dio, sail horiek azertu eta aurkitutako arazoak eta ezar daitezkeen neurriak erakunde honi jakinaraz diezazkioten.

Alor horretako harremanak hobeak eta emankorrakoak izan daitezen, hiru lurralde entzutegietako presidente eta fiskal-buruekin harremanak izan ditugu, eta arazorik larrienen aurrean sail horietan eragiten saiatu da Ararte-  
koa.

Informazioa jaso ondoren, Arartekoak bide hauek dauzka: jarduerak amaitutzat jotzea, edo eskumena daukan sailari egoki den moduan jardun dezan eskatzea; horren guztiaren berri kexa aurkeztu duenari ere jakinarazten zaio.

Bideratutako espedienteen ezaugarriei dagokienez, auzipideak ebazteko egoten diren atzerapen handiegien kontra aurkeztutakoak azpimarratu behar dira. Kasu batzuetan, auzitan zeuden bi alderdien arteko arazoengatik gertatu da atzerapena, eta baita jarraitu beharreko bideari buruzko alderdi batzuk ez ezagutzeagatik ere. Beste batzuetan, berriz, une jakin batean giza baliabiderik ez izana da arrazoia, funtzionari talde hori sarritan mugitzen delako leku bate-  
tik bestera.



Beste gai multzo garrantzitsu bat, gizartea larriki asaldatzen duten jarreraren aurrean Herri-Salataritzak parte har dezan eskatzen dutenei dagokie. Horien artean, ezkontide-ohien arteko mehatxuak, auzotarren arteko istiluak, edo burua nahastuta daukaten pertsonen kontrako salaketak dauzkagu, eta kasu horietan ere kalte handiagoak eragozteko fiskalaren laguntza eskatu dugu.

Tamalez, ageriko premia egoeran dauden talde batzuen eskarien aurrean, ebatzi gabe zegoen auziaren xehetasunak zuzenean jakin besterik ez dugu egin; senar-ohiari epaibidez ezarritako pentsioa emazteari ez ordaintzea da horietako kasu bat, edo istripu baten ondorioz justiziak ezarritako kalteordaina pagatu behar duten eta porrot eginda dauden aseguruetxeen egoera daukagu bestetik.

Justizi administrazioaren alor zabal horretan espetxe gaiak sartzen dira, Arartekoari horiei buruzko arazoetan parte hartzeko eskatu izan baitzazio. Baimen edo lekualdaketa eskariak ematea edo ukatzea, espetxean sartzeko agindua eteteko edo indultuak bizkorrago emateko eskariak iritsi izan zaizkigu, eta erakunde eskudunei zor zaien errespetuaz eta horien jarduera-eremuan sartu gabe eskaini diegu haien geure arreta.

Era berean, adingutxikoen gizataldeak bizi dituen arazoengatik inguruko kezka ere badauka Ararteko honek. Gai horri begira, eta 1959ko azaroaren 20an Nazio Batuek onartu eta 1989ko azaroaren 20an Batzar Nagusiak berretsi zuen Haurraren Eskubideen Aitorpenak dioenez, "haurrak, gorputz eta buru heldutasunik ez daukanez, babesa eta zaintza bereziak behar ditu, baita beharrezko lege-babesa ere, jaio aurretik eta jaio ondoren."

Horregatik, 1991ko apirilean Herri Defendatzaileek Gazteizen egin zituzten VI. Jardunaldien helburu nagusia adingutxikoen eskubideen babesa azterzea izan zen.

Jardunaldi horien azken aktan jaso zen bezala, defendatzaile guztiek aho batez baietsi zuten adingutxikoen babeserako gaur egun dagoen araudia ez dela nahikoa, eta aipatutako Nazio Batuen itunean eta Konstituzio Epaitegiaren otsailaren 14ko 36/91 zenbakidun Epaian xedatutakora egokitzekeo premia ikusi zuten. Konstituzio Epaitegiaren epai horren bidez, Adingutxikoen Tutoretzako Epaitegiei buruzko Legearen 15. artikulua baliogabetu zen, Konstituzioaren 24. artikuluan jasotzen diren epaibide-bermeak urra zitzaizkela.

Araudien aldaketei dagokienez, haurrak familian hartu eta seme-alabatzat jotzen direnean ezar daitekeen araudian egon diren aldaketak azpimarratu behar dira, garrantzitsuenak Araudi Zibilaren Erreformatarako 21/87 Legeak eta Auzitaratze Zibilaren Legeak eragindakoa direlarik.

Erakunde honen ustez, arrazoi horiek ikusirik, Autonomi Elkarteak agintari publikoek onartu egin behar dituzte Autonomi Estatutuko 10.14. artikuluan aitortzen diren eskumenak. Horrela, indarrean dauden xedapen guztiak bildu, argitu eta egokituko dituen autonomi izaerako legezko tresna edukiko dugu, gai zibil eta auzibidezkoak arautzeko Estatuari dagokion eskumena errespetatuz; gogoeta horiek jasotzen zituen gomendioa egin zitzaion Eusko Jaurlaritzari.

Berriro, 1993ko irailean Madrilen egin ziren Herri Defendatzaileen Koordinaziorako VIII. Jardunaldietan adingutxikoen legezko eta sorospenezko

egoeraren inguruko arazoak aztertu ziren. Atera ziren ondorioen artean, herri defendatzaile guztiek eta, beraz, baita Arartekoak ere, aho batez honako hau adierazi zuten: "Adingutxikoei dagokienez agintari publikoek burututako jarduerak osotara jasoko dituen legedia osatzeko premia".

Era berean, beste akordio honetara ere iritsi ziren: "adingutxikoa babesteko lege-esparrua hobetu behar da, eta horretarako, besteak beste, oraindik hori egin ez duten Lurralde Autonomoek azaroaren 11ko 21/1987 Legea gara dezaten komenigarria da, beraien Zuzenbide zibil berezian beste aurrikuspenen bat jasoa dutenean izan ezik."

Azkenik, antolaketa-lana egiteko eta eragindako administrazioarengatik Justiziaren alorrean sartzeko ez badira ere, abokatu bazkuntan sartuta dauden abokatuak burutu dituzten lanbide-jardueren kontra egindako salaketan aurrean bazkunek azaldu duten axolagabekeriarengatik aurkeztutako kexa-espedituek ere aipatu beharrekoak dira.

Alor horretan kexa asko aurkeztu dira eta, beraz, bazkun mailako jarrerak erakusteko arriskuari buruzko gogoeta egin behar da, profesional-multzo horren ospeari ez baitiote onik egiten. Bazkunkideen interesak babesteaz gain, Zuzenbide publikoaz arduratzen diren sail horiei eskatu behar diegu tutoretza zereginak eta lanbiderako betebeharren araudian jasotako aginduak bete ditzaten.

## 2.8. INGURUGIROA

1989 eta 1990 urtealdiei zegozkien txostenetan Ingurugiro alorra Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiroaren barruan zegoen, eta urte haietan euskal hiritarrek Erakundearen aurrean aurkeztu zituzten kexa gehienak alor horri buruzkoak izan ziren.

Urtebete geroago, ordea, izaera propioa zuen alor gisa eratu behar izan zen, alde batetik, hari buruzko kexak hirukoiztu egin zirelako, eta bestetik, gure inguruari eraso egiteari buruz hiritarren artean gero eta sentiberatasun handiagoa zegoelako, Ararteko hau sentiberatasun horrekin bat zetorrelarik.

Gure hiri eta nekazal eremuetan gero eta sarriago eta zigor arriskurik gabe gertatzen diren erasoengatik kezkatuak zeuden talde edo auzotar-elkar-teeak, bai eta ingurugiroaren kontrako erasoek zuzenean kalte egiten ziren hiritarrek ere aurkeztu zituzten bost urteotan alor honi buruzko kexa gehienak.

Ingurugiroaren kontrako erasoak, Konstituzioaren II. atalean jasotako eskubideen kontrako erasoak dira, izan ere pertsonaren garapenerako egokia den ingurugiroaz gozatzeko eta ingurugiro hori zaintzeko hiritar orok daukan eskubidea hausten delako (EK, 45. art.). Konstituzioak babesturiko guztion interes horren defentsa dela medio, Ararteko honek haren legegaitasunaren interpretazio zabalak egin eta mota guztietako elkarte eta taldeek aurkeztutako kexak onartu ditu.

Alor hori eratzekoan, bi azpisail egitea bidezko jo zen, ingurugiroari buruz azaltzen ziren arazoak osotara islada zitezela. Horrela, "Hiriko jarduera

sailkatuak" deituarekin zerikusia zuten salaketak zeuden alde batean, eta bestean, "Ingurugiroarekiko beste arazo batzuk" sailari lotuak.

Hiriko jarduera sailkatuei dagokienez, urtez urte ikusi dugu erreklamazio gehienetan gai berbera salatzen dela, alegia, ostalaritzako eta nagusiki taberna, pub, dantzaleku eta antzeko lokalek eragindako zarategatik etxebizitzetan jasan behar diren gogaipenak. Merkataritza jardueren kontrako salaketak ere egon dira, hala nola, supermerkatu, auto-garaje, konponketa-tailer eta antzekoen aurkakoak.

Araudiek eskatutako zaraten kontrako neurriak ez edukitzeagatik lokalek sortzen dituzten gogaipenak salatu dira gehienetan. Kasu askotan, soinugabete-sistemarik ez eduki arren, lokal horiei indar handiko musika-ekipoak erabiltzen uzten zaie.

"Makailuaren bidea" deritzanean sartutako dantzalekuek eragiten dituzten zaraten kontrako kegak ere ez dira falta izan. Lokal horiek goizeko seietan ekiten zioten lanari, eta horrek kalte handia egiten zien inguruko etxeetako bizilagunei lokaletan biltzen zirenek ateratzen zuten zarategatik; puntu honetan gogoratu behar da, zaratei buruzko araudiak egunez gauez baino zarata-maila handiagoak baimentzen dituela.

Horrelako lokalek ke eta usainengatik sortzen dituzten gogaipenen ondorioz ere kexa ugari aurkeztu dira, agizko jardunerako behar diren neurri zuzentzaileak betetzen ez dituztelako eta ezartzekoa den araudiak eskatzen duen ke eta gasak ateratzeko sistema egokirik ez daukatelako.

Bestalde, sailkatutako jardueren kontrako salaketak azaltzeko hiritarrek erakunde honetara jo dutenerako aspertuta zeuden denbora luzez gogaitaldi horiek jasateagatik, baita zertxobait etsita ere udal-agintariak arazoari jaramonik egin ez eta berori konpontzeko zigor edo indar mailako neurri zehatzik hartzen ez zutelako.

Horri dagokionez, gogoratu behar dugu 1992. urtean "Red Ciudadana contra el Ruido" izenekoak eratu zuen zaraten kontrako agiria jaso zuela Ararteko honek. 15.000 sinadura zeuzkan agiri hori, hiritarren artean arazo horrekiko zegoen kezkaren islada garbia zen, eta erakunde publikoei hirietan zarata-kutsaduragatik sortzen diren gogaipenak galerazteko aurrehartze-neurriak eta neurri murriztaileak ezar zitzaten eskatzen zitzairen. Hitz batean esanda, zarataren kontrako deia zen, horixe baita hirietako biziera gehien hondatzen duten eragileetako bat.

Azkenik, azpisail horri dagokionez, industri-ekintzek sortzen duten kutsaduraren kontrako salaketak urterik urte gehituz joan direla esan behar dugu. Ingurugiroari jarduera horien bidez egiten zaion eraso ingurugiro alorrean enpresa-jabeek egiten dituzten inbertsio txikiak edo inbertsiorik ezak eragiten du, batez ere arazoak jabetzen ez direlako. Une hauetan oso zaila da arazo horiek konpontzea bizi dugun egoera ekonomikoagatik, eta arrazoi hori askotan beharrezko neurriak ez hartzeko aitzakia baino ez da izaten.

Modu zabalagoan ingurugiroari eragiten dioten arazo batzuei buruz bost urteotan jaso ditugun kexei dagokienez, aire zabaleko harri-ateratze lanek, batez ere harrobiek sorturiko zarata-kutsadura, hauts jaurtiketa, e.a.-ek eragin

dituzte salaketa gehienak; lan horiek ez dute paisaia bakarrik sortzen kaltea, baizik eta baita inguruko herrietan bizi direnengan ere, inguruaren kontrako eraso horrek beren etxebizitzetan, kaleetan, herriguneetan eta, batzuetan, osasunean ere eragiten duelako, hots, azken batean, bizieran.

Era berean, errotulu argitsuen kokapen desegokia salatzen zuten erreklamazioak ere jaso dira, horien argi biziak eta etxebizitzetatik gertu egoteak biztanleei gogaipenak jasanarazi dizkietelako.

Eta azkenik, animalia mota jakin batzuen babesarekin loturiko salaketa zehatzak ere jaso dira azken urte honetan.

Jarduera sailkatuak direla eta aurreko atalean aipatu diren arazoengatik azaldu diren bakarkako kexak bideratzerakoan, Arartekoak, salaturiko gatazka gertutik ikertu eta bideratuz, askotan Administrazioak erantzun egokia eman diezaion lortu du, erakunde honek arazoa konpontzeko egindako gomendioak onartu dituelarik.

Jaso diren kexa gehienek, jarduera gogaikarri deritzen jardunak, bereziki ostalaritzako lokalek, hots, taberna, pub, dantzaleku, e.a.-ek auzotarrei ekarritako ondorio kaltegarriak dituzte mintzagai, zaratek sorrarazten dizkien gogaialdiak, hain zuzen.

Sarritan, dagokion herri-erakundearekin egin diren antolen bidez jakin da lokal horiek beharrezko udal-baimenik gabe eta, sarritan, bidezko jardueraspedientea bideratu gabe zeudela jardunean, eta horrek, besteak beste, jarduera hori sailkatu gabe zegoela esan nahi du.

Kasu horietan, normalean zaraten kontrako neurririk hartu gabe ziharduten lokalen araugabekeriak ikusi ondoren, Arartekoak dagoen jurisprudentziaren irizpideei jarraiki, udalei zuhertasun-neurri gisa lokala behin-behingo iztea gomendatu die, 1961eko Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudian (aurrerantzean JGOKAA) ezarritakoaren arabera jarduera legezkotu arte.

Alabaina, jarduerarako eta irekitzeko baimena daukaten lokalek sortutako zaraten kontrako salaketan ebazpenak gatazkatsuagoak izan dira.

Zaratengatik gogaipenak zarata isolatzeko neurri zuzentzailerik ez hartzeak eragiten ditu, eta neurri horiek bete beharreko baldintza gisa agertzen dira lokalaren jarduera-baimenean.

Horrela, foru diputazioetako Ingurugiro sailek jarduera horiek sailkatzen dituztenean, baimendutako gehienezko dezibelioak gainditu ez daitezten, lokalak soinu-gabetzeko agindua ezartzen dute, eta dezibelioen muga jardueramotaren arabera aldatu egiten da.

Sarritan, jarduerari ekiterakoan neurri zuzentzaileak zuzenak izaten dira, baina piskanaka piskanaka, denbora aurrera doan heinean, neurria betetzeko hasierako zorrotasuna leundu egiten da, eta horregatik eragiten zaizkie gogaipenak inguruko etxebizitzetako bizilagunei.

Horrenbestez, jarduera-baimena eman eta neurri zuzentzaileak ezartzeko betekizunak ez dira bukatzen jarduera hasi aurreko momentuan udal teknikariek baldintzak betetzen diren egiaztatzean; aitzitik, ikuskapenak etengabe egin behar dira, alegia, jarduerari ekinez geroztik berorrek dirauen bitartean.

Erakunde honetan ikusi dugunez, udal askok ez diote behar adinako garrantzia ematen lokal publikoak ikuskatu eta zaintzeari, eta sarritan ez dute lan hori aintzat hartzen, ez eta lokal horiek behar bezala ikuskatzeko langaiak eta giza baliabide egokiak jartzen ere. Halere, esan behar da jarrera aldaketa nabaritzen dela, gero eta arreta handiagoa eskaintzen dietelako udalek alor horretako jardueri.

Gai horiekin zerikusia duten espedienteak bideratzeko Arartekoa bide honi jarraitu zaio: lehenik, erakunde honek salatutako lokalak ikuska ditzaten eskatu die udalei, jarduera-baimenean jasotako zaratak isolatzeko neurri zuzentzaileak kasuan kasuko jarduerarako egokiak diren ala ez erabakitzeko.

Jarduerak soinugabetze baldintzak ez dituela betetzen ikusten denean, erakunde honek hau gomendatzen dio dagokion udalari: lokalaren jabeari gehienez hilabeteko epean jarduera-baimenean ezarritako neurriei egokitu zaien soinugabetze-egitasmoa aurkez dezan eska diezaiola jabeari, eta jakinaraz diezaiola agindua betetzen ez badu lokala behin-behingo itxi edo, bestela, musika-ekipoa zigilatu egingo zaiola.

Soinugabetze sistema egokia daukaten lokalak zaindu edo ikuskatzea nekeza gertatzen da; kasu horietan garbi ikusi da zaratak musika-ekipoen soinu-potentziak sortzen dituela, eta arazoaren konponbidea soinugabetze sistemaren baitan ez, baina musika-ekipoa darabilenaren esku dago.

Kasuen arabera, Arartekoak bi aukera gomendatzen ditu: bata, potentzia mugatzeko mugitu ezin diren aparailuak jartzea, eta gogaipenak eragiten dituzten jarrerai aurre egiteko zigorrak ezartzea bestea.

Aldiz, merkataritza jardueretan gertatzen diren zaratak etengabeak eta beti erabatekoak izaten dira, eta horregatixe kontrolatzen dira errazago, horiek eragozteko nahikoa izaten baita makinei dardararen kontrako osagaiak jartzea.

Bestalde, Arartekoak urtero Eusko Legebiltzarrari aurkeztu dizkion txostenetan garbi agertu du arazo horiekiko eskumena daukaten agintarien erantzun ezagatik auzokideen artean dagoen egonezina.

Horrela, 1989. urteari zegokion txostenean (166. orrialdea), "Iradokizun eta gomendio orokorrak" atalean Ararteko honek udalei bereziki baina baita foru diputazioei eta Eusko Jaurlaritzari ere indarrean zegoen araudia zehatzmehatz bete zezaten iradoki eta aholkatu zien, eta bereziki JGOKAaren 35., 36. eta 37. artikulua; gogaikarri bezala sailkatutako jarduera horien jarduna aztertu, zaindu eta ikuskatzeko neurriak hartzeko premia ere adierazi zien, eta zerbitzu hori udalek derrigorrez eman behar duten zerbitzu bat zela gogorarazi zien, hain zuzen euskal hiritarrentzat oso garrantzitsua delako.

1990. urteko txostenean (195-197 orrialdeak) ere beste gomendio bat egin zen. "Hiritarren eskubideak eta jarduera gogaikarriak" izenburupean, lokal publikoek eragindako gogaitaldien kontra hainbeste kexa egotearen arrazoi nagusiak zeintzuk ziren jakinarazi genion Eusko Legebiltzarrari. Era berean beste hau ere aditzera eman genuen: legedia garatzeko eta Estatuko ledegia indarrean jartzeko Euskal Autonomi Elkarteak dauzkan eskumenak direla medio (Konstituzioaren 149.1.23. art. eta Autonomi Estatutuaren 11.1. a)

art.) Eusko Legebiltzarrak lege izaerako arau bat indarrean jar dezakeela ingurugiroaren alor orokorrean jarduerā sailkatuei buruz agintari publikoek egin beharrekoa arautuko duena.

1991. urteari zegokion txostenean, jarduera sailkatuekin zerikusia zeukaten eta erakunde honetan jaso ziren kexen kopurua hiru bider handiagoa zen aurreko urtekoen aldean. Zaratek eragindako kutsaduraren aurrean hiritarrak gero eta kezkatuago zeudela ikusirik, Ararteko honen iritziz ezinbestekoa zen arazoarekin zerikusirik zuten agintari publiko guztiek arazoa eraginkortasunez har zezaten, eta horrela, erakunde honetako lege-aholkularitzak azterketa monografikoa egin zuen, izenburuak edukia garbi adierazten duelarik: *Aproximación jurídica a la problemática de los ruidos en los establecimientos públicos*.

Erakunde honen eskarmentuaren arabera, lokal publikoen jardunak sortzen dituen arazoen azterketa, gaiarekin zerikusia daukaten hiru alderdien ikuspuntutik tratatu behar da.

Zarata-kutsadurak eragindako arazoen azterketa monografikoak, beraz, ikuspuntu ezberdinak jasotzen ditu, auzotarren eskubideei egiten zaien kaltea eta lokalak jabeen arazoak aztertzen dira, bai Administrazioaren jokoera ere.

Bestalde, ezar daitekeen legediaren azterketa zabala jasotzen da, gai horretan administrazio ezberdinek daukaten eskumenak bereiziz.

Alde horretatik, fabrikazio prozesu batzuek sortzen dituzten zarata-mailak gutxitzeko helburua duen eta orain arte Europako Ekonomi Elkartek onartu duen araudia aipatzen da; Estatu mailako araudia ere bai, eta hemen duela gutxi onartutako Hiri Segurtasunaren Babesari buruzko 1/1992 Lege Organikoan "aisiarako jarduerak" gaia aztertzen duten artikuluak azpimarratu nahi ditugu. Lege horrek, lokal publikoen irekitze eta jardunarekin loturiko gai garrantzitsuak aztertzen ditu, eta babestu beharreko balioak herri-segurtasuna eta elkarbizitza baketsua direla dio; horregatik nabarmentzen ditu zigorrak eta ikuskatze-lanak.

Era berean, ezar daitekeen Euskal Autonomi Elkarteko araudia ere aipatzen dugu, bereziki ekainaren 11ko 171/85 Dekretua, zeinaren bidez etxebizitzak dauden hirilurrean ezarri nahi diren jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei ezar lekizkiekeen arau teknikoak onartzen baitira, eta azkenik, bai jarduera sailkatu, lokal publiko eta aisiarako ekintzetarako, bai zarata eta dardaretarako, beste komunitate autonomo batzuek onartutako xedapenak jasotzen dira.

Azterketaren atal horretan foru dekretuak ere aipatzen dira; dekretu horien arabera, eguneratutako hiri antolaketarako egitamuak daukaten udalek, ordezkari gisa, jarduera gogaikarri, osasungaitz, arriskutsu eta kaltegarriak sailkatzeko eskumenak bere gain har ditzakete.

Udal araudiei dagokienez, zaratari loturiko gaietan udalek arauak indarrean jartzeko daukaten ahalmena nabarmenarazi nahi dugu berriro, eta gogoratu horretarako bi bide daukatela: hirigintz antolaketarako egitamuak eta ingurugiroa babesteko agintarauak.

Atal honetan, azkenik, hainbat epai jasotzen dira, horietako batzuk jada ezagunak, zenbait administraziori batez ere zigorrak ezartzeko duten ahalmena betetzerakoan lagungarri gerta dakizkiekeenak eta jarduera sailkatuetan gaur indarrean dagoen araudiak dituen hutsuneak betetzeko erabil daitezkeenak.

Adibide gisa, 1986ko urriaren 4an Epaitegi Gorenak emandako epaia (Ar. 7.402) argigarria izan daiteke, jarduera-baimena duen lokal bat itxi edo, aitzitik, baimenik gabeko lokal publiko bat ixtearen artean dagoen aldea jasotzen duelako. Honela dio:

“...Baimenik gabe dabilzan jarduerak ixteko jarraitu behar den prozedura erabakitzerakoan, baimenarekin edo gabe burutzen den jarduera ixteak daukan zentzu ezberdina azpimarratu beharko da. Lehenengo kasuan, baimena badagoenez, hau da, Administrazioak aurrez ikuskapena egin duenez, 1961eko azaroaren 30eko Araudiaren 36. eta ondorengo artikuluetan jasotzen diren jarraibideei heldzea zilegi da. Bigarren kasuan -baimenik eza-, Administrazioaren aurretiko ikuskapenik ez dagoenez, baimena ez edukitze hutsa nahikoa da ixteko, Administrazioaren Jardunbidetako Legearen (AJL) 91. eta Konstituzioaren 105. c) artikuluetan iragarritako interesdunaren entzunaldiarekin batera. Horrenbestez, entzunaldia ezinbestekoa izango da, noski, arriskua dagoen kasuan salbu.”

Azterketa monografikoaren ondorioei dagokien azken atalean, gogoeta gisa, zaratengatiko kutsadura eta horri aurre egiteko moduak aztertzerakoan, hiritarrei ardura harrarazteko eta ingurugiroari buruzko heziketa egokia eskaintzeko premia adierazten da, heziketa lana ikastetxeetan eta komunikabideetan horren berri emanez burutu behar delarik.

Administrazioaren ikuspegitik oraindik bide luzea ibili behar da, eta horri ekiteko lehen pausoa herri-erakundeek arazoaren erantzukizuna bereganatzea litzateke; era berean, ingurugiroa zaratez kaltetzearen kontrako borroka egitea litzateke lehenetsuzko eta presako helburua, bai eta hiritarren eguneroko bizitzan hain kalte handia eragiten duen alor horretan jarduteko premiari buruzko erakundearteko eztabaida sakona sortu eta sustatzea ere.

Erakunde honek, Administrazioaren jarduerak zarata-kutsaduraren berezko izaerari aurre egiteko egokien diren neurriak hartuz burutu daitezten nahi du eta, batipat hirietan gertatzen den arazoa izanik, eskumenik zabalena eta horien ondoriozko ardurak udalek bere gain hartu beharko litzuketela uste du.

Ildo horretatik, hiri-antolaketaarako egitamueta, irizpide eta helburu gisa, udalek hirietako zarata-kutsadura gutxitzeko neurriak har ditzaten proposatzen da.

Azkenik, erakunde honen iritziz, zaraten arazoak jarduera gogaikarrien alorrean tratatu berezia behar du. Eta hor, Euskal Autonomi Elkarterako erakundeek arauak indarrean jartzeko daukaten ahalmenaren indarrez, Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak lokal publikoak eta zarata-kutsadura arautzeari ekin beharko liokete.

Horregatik, jarduerak ireki eta jardunean aritzeko araudi teknikoak ezarri eta eguneratu egin behar da, adibidez, soinuen neurketetarako prozedurari,

neurketak egiteko teknikarien gaitasunari, zaratagabetzeko egitasmoen edukia-ri, etabarri dagokienean.

Era berean, prozedurei buruzko araudia eguneratu egin beharko litzateke, eta erabili beharreko tresna juridikoa, sailkatutako jardueri buruzko lege batean oinarritu liteke; aldi berean, lege hori, besteak beste, zaraten eta lokal publikoen gaia luze-zabal arautuko lukeen araudi baten bidez osatuko litzateke.

Azkenik, jardunbidezko araudi horrek jaso beharko lituzkeen edukien artean, jarduerarako baimena bideratzea eta ematea, jarduna ikuskatzea eta zigor-jaurpidea leudeke.

Azaldu dugun azterketa monografiko hori izugarri zabaldu da irakaskuntza munduan eta baita komunikabideetan ere. Bestalde, 1993ko urtarrilaren 22an Ararteko honek Ekonomia, Planifikazio eta Ingurugiro Sailburuari Eusko Legebiltzarrean eskuratu zizkion "Red Ciudadana contra el Ruido" deritzanak erakunde honetan aurkeztu zuen zarataren kontrako agiria eta laburki azaldu berri dugun ikerketa monografikoa.

Bilera horren ondoren, erakunde honetako lege-aholkulariak eta Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Saileko teknikariak harremanetan jarri ziren, elkarri beren iritziak jakinarazi eta ikuspuntu juridikotik zarata-kutsaduraren arazoa aztertze bideak zehaztearren, hori bihar-etzi zarata eta dardaren kutsadurari aurre egiteko legea egiteko baliagarria izan zedin.

Une hauetan, sailak prest dauka Ingurugiroaren Lege Orokorren zirriborrea; bertan berariz aztertzen da zaraten arazoa eta laster bideratzea espero dugu buruhauste larri honi araubidezko konponbidea ematearren.

Ingurugiroarekiko beste arazo batzuei dagokien azpisaila dela eta, azalpen hauen hasieran genioen bezala, Arartekoari aurkeztu zaizkion salaketa gehienak aire zabalean egiten diren zenbait ateratze-lani, batez ere harrobietakoei buruzkoak izan dira.

Horri dagokionez, lehenik esan behar da Euskal Herriko ekonomian ohiko aberastasun-iturri izan direla harrobi-lanak, baina begi bistakoa da ustiaketa horiek egiteak gure lurraldeko ingurugiroan izan duen eragina.

Inguru fisikoan eta gizakiengan jarduera horiek duten eragina oso handia da gurea bezalako gizarte batean, lurralde txikia eta biztanlez oso betea delako, eta horrela, nekez aurki daiteke biztanle talderen bati zuzenean eta hurbiletik eragiten ez dion horrelako jarduera bat. Euskal Herriko nekazal eremuetan lurraren orografia malkartsuarengatik jendea sakabanatua bizi denez, gertakari hori are nabarmenagoa da.

Aire zabalean egiten diren meategi-lanek kalte handia dakarkiete ingurugiroari, izan ere, gertuko hiriguneetan eragiten duten neurrian, etxebizitzek, kaleek, herriguneek, bai hiritarren osasunak ere eta, hitz batean, biziera osoak jasaten ditu kalteak. Era berean, harrobiek ere eragin handia daukate ingurugiroan eta paisaian bertan. Horrela, ageriko meategiek sortzen dituzten ondorio nagusiak aipa ditzakegu:

- a) Lurraren aldaketa: lurra ateratze-lanen ondorioz desagertzea, paisaia aldatzea, landare eta abereak suntsitzea, lur horretan dauden gizakiak deuseztea.



b) Lurrazpiaren aldaketa: aldaketak materialen egitura, tankera eta kokapenean, egonkortasuna eta eroale gaitasuna murriztea.

c) Lur gaineko eta azpiko uren aldaketa, urbide sareak haustea eta aldatzea, lurharen ezaugarri hidrologikoak aldatzea, uren kutsadura fisiko eta kimikoa.

d) Eguratsaren kutsadura: hauts jaurtiketak eta zarata-kutsadura.

e) Beste ondorio batzuk: dardarak, haizeen norabideen aldaketa, isurketak eta zaborteziak, komunikaziobideen kutsadura, beste arrisku batzuk.

Halere, bi gizatalderen premiek sorturiko interes desberdinen arteko auzia da hori, eta sarritan interes horiek bateratzea ezinezkoa gertatzen da. Alde batetik, aurrerabidezko ekonomi ereduaren barruan beharrezko diren jardura horiek nolabait onartu beharra dago. Bestetik, guztion interesak babes-teko premia ere badago, pertsonak garatzeko inguru egokia edukitzean eta gizarteak onartu ezin dituen arriskuei aurre egitean oinarriturik.

Gure gizartean ez da inondik ere lortu interesen arteko auzi horretan konponbide egokirik. Horren lekuko erakunde honetan jaso diren salaketak dira. Komunikabideek ere nahiko sarritan jasotzen dituzte ingurugiro eta gizarte mailako arazoak. Maila horretan, elkarri kontrajartzen zaizkion interesak behar bezala bideratzea eta gure lurraldeko harrobien ustiaketarako esparru egokia ezartzea zeharo garrantzitsua da. Aurrerapen ekonomikoaren balio kolektiboak ingurunea zaintzearekin ondo etortzeko bideak erraztea zeregin konplexua da eta, gure sistema politikoan, batez ere agintari publikoei dago-kie.

Horregatik, 1992. urteari zegokion txostenean iradokizun eta gomendio orokorrak ematen zirenean, Ararteko honek orain arte azalduetako argudioen bidetik gomendioa luzatu zuen; hona berorren izenburua: "Euskal Autonomi Elkartean ageriko meategi-lanetan (harrobietan) ingurugiro eta gizarte mailako interesak araubidez babesteko beharra". Gomendio horretan, Elkarte honetako Administrazio amankomunari, gaur egun dauden eta bihar-etzi ireki daitezkeen horrelako lanek jardunean dirauten bitartean sorrarazten dituzten arazoak araubidez bidera zitzan eskatu zitzaion, harrobiek gure lurraldean ingurugiroari eta gizarteari egiten dion eraso eraginkortasunez tratatzeko bidea ezartzeko.

Azterketa horretan indarrean dagoen araudiak Zuzenbide nahiz Administrazioaren ikuspegitik eskaintzen dituen irtenbideak jasotzen dira. Horien arabera, garbi dago Euskal Autonomi Elkartean agerian egiten diren meategi-lanak ez datozela bat egungo arauekin eta gizarte mailako eskakizunekin; beraz, Eusko Jaurlaritzak dekretu moduan onartu beharko duen arau autonomikoa indarrean sartu beharra dago.

Euskal Autonomian era horretako lege bat indarrean jartzeko ahalmena badagoen arren, arauak duen helburuari begira ez da komenigarria hain indar juridiko pasibo handiaz hornitzea, eta gainera bere edukiarentzat ez litzateke

egokia izango lege-maila duten arauentzako iragarritakoa bezain onartze-prozedura zorrotza erabiltzea.

Proposatzen den arauaren edukiari dagokionez, erakunde honen ustez ondorengo puntuak jaso beharko lituzke:

Ustiaketaren onuradunak ordaindu eta burutu beharko lituzke jarduerak sortutako eraginei dagokien tratamendua, ustiaketa-egitamuarekin batera osatutako egitarauaren arabera, eta egitarau hau alde zuzenetik ingurugiro gaietan eskudun den erakundeak onartu beharko luke.

Sortutako eragin kaltegarrien tratamendurako diru-kostuak ordaintzeko, ustiaketatik ateratzen den etekinaren bidezko portzentaia bat erabiliko da, ustiaketaren emankortasuna arriskuan jarri gabe trataera bideragarria izango dela bermatuz.

Ondorio kaltegarriak tratatzeko araudiak erakundeen arteko beharrezko koordinaziorako neurri egokiak finkatuko ditu, ustiaketa-jabeak egin beharreko administrazio-gestioak ahalik eta sinpleenak izan eta jardueraren aldi bakoitza abiarazteko kostuak gutxitu daitezten.

Nolanahi ere, ingurugiroaren kontrako erasoan trataera araupetzearekin batera, sistema horren bideragarritasuna ziurtatuko duten beste neurri batzuk ere ezarri behar dira, Autonomi Elkarteko harrobien sailerako egin behar den planifikazio orokorraren barruan sartu beharrekoak. Horrela, Eusko Jaurlaritzak erdi epera Harrobi lanen Alor-mailako Lurralde Egitamua onartzeaz gain, beharrezko den entpresariaren bateratzea bultzatuko duten neurriak, bai eta alor hori egokitzeak berekin ekar ditzakeen aldian-aldiko krisiak arintzeko diru-bide eta lan neurriak ere sartzea proposatzen da.

Azkenik, Ingurugiro atalari dagokionez, Arartekoak alor horretan sustatu duen beste ekimen bat ere aipatu behar dugu, elkarlanerako lehenengo beka ateratu zuen pertsonak 1991-1992 urtealdian egin zuen ikerketa lana, alegia; beka horretarako deialdia giza eskubideen alorrean oro har eta ombudsmanarenean bereziki trebatu eta ikerketa lanak burutzeko asmoz egin zuen Arartekoak.

*El derecho al ambiente como derecho de participación* izenburupean egin zen lan horrek hasiera eman dio Giza Eskubideei buruzko "Padre Francisco de Vitoria" Sailari. Ekinbide hori, giza eskubideen errespetuarekiko kultura sustatzeko ahalegina da, eta lehen obra horren bidez ingurugiro eskubidearen babesa teoria eta ikerketaren ikuspuntutik aztertu nahi izan da.

Ikerketaren egileak tesi bat sendotu du: ingurugiro eskubidea juridikoki eta modu eraginkorrean finkatu behar da, funtsean partaidetza-eskubide bilakatuz.

Horretarako, ingurugiro eskubideari begira Konstituziotik abiatuz Espainiako araudiak partaidetzarako gaur egun ematen dituen aukerak aztertzen ditu, eta eskubide hori lege-antolaketan ere piskanaka partaidetza-eskubide gisa har dadin, proposamenak eta garabideak zehazten saiatzen da.

## 2.9. HERRILANAK ETA ZERBITZUAK

Alor honek herrilanen planifikazio eta egiterapenarekin zerikusirik duten kexak biltzen ditu. Deitura bere zentzurik zabalenean hartu dugu eta Administrazioak sustatu eta gauzatu ditzakeen lan mota guztiak hartzen ditu barne, babespeko etxebizitzak eraikitzeari eta eskola-azpiegitura altxatzeari dagozkienak izan ezik.

Horretaz gain, edozein zerbitzu publiko emateak (garraioa, ur hornidura, saneamendua, zabor bilketa, gas hornidura,...) berekin dakartzan arazoak jasotzen ditu, eta horixe erakusten du kexak oro har beretsuak ez izateak, bai eta gai anitzi buruzkoak izateak ere.

Garraio zerbitzuarekin loturiko kexa ugari jaso dira, eta hori ez da harritzekoa beharrezko zerbitzu publikoa eta gure gizartean gero eta eragin handiagoa duena delako. Hiritar askok egunero erabiltzen dute lantokietara joateko eta ondoren etxera itzultzeko, eta gainera, beste era batera nekez aseko liratekeen premia ugariri erantzuten die.

Eskumenen ikuspegitik, Euskal Autonomi Elkarteak erabateko ahalmenak dauzka tren eta errepide bidezko garraioetan, garraio horien ibilbidea osorik Elkarte Autonomoaren barruan dagoen neurrian (Euskal Autonomi Estatutua, 10.32. art.).

Garraioaren arazoen kontra aurkeztu diren kexa asko, Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos erakundearen pean dauden gertuko tren zerbitzuen kontrakoak izan dira.

Hiritarrek bidali dituzten idatzietan, tren zerbitzuaren kalitatea auzitan jarri dute. Horrela, erabiltzaile gehien ibiltzen diren orduetan bagoi gutxiegi eramatea salatu dute. Halere, erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifek eragin dituzte kexa gehienak, batez ere ezinduta edo lanetik erretiratuta daudenen kasuan; tarifan hobaria edo dohaineko pasea edukitzeko eskubidea aldarrikatzen dute, zerbitzuaren araubidean horrela adierazten delako.

Errepidez egiten den arauzko bidaiari-zerbitzuaren kontrako kexak ere jaso dira. Encartaciones S.A. enpresak egin zuen greban gutxienezko zerbitzu falta salatzen zutenak dira azpimarragarri. Autobus enpresa horrek Bizkaiko meategi aldeko zerbitzua egiten du, eta Abanto Zierbena, Muskiz, Urtuella eta Trapagarango biztanleentzat kalte handiak ekarri zituen grebak, denbora luzea iraun baitzuen.

Donostiako hiri garraio zerbitzuaz arduratzen den Donostiako Tranbia Konpainia S.A.-ren kontrako kexa bat ere gogora dakargu. Enpresa horrek erabaki zuenez, bonobusak automatikoki zulatzen dituen aparailuak bidaia multzo baterako txartela onartzen ez bazuen, gidariak txartela eskuz zulatzeari uko egingo zion, baita bidaiariak une horretan dirurik ez edukitzeagatik autobusetik jaitsi behar bazuen ere. Horretaz gain, konpainiak hondatutako txartelaren truke beste bat emateari ere uko egiten zion, eta horrela hiritarrak txartela hondatu aurretik egin zitzakeen bidaiei zegokien dirua galtzen zuen. Arartekoari esker konpondu zen autobusen hiri-zerbitzua erabiltzen zuten bidaiarien eskubideak nabarmenki ukatzen zituen gehiegikeriazko jardunbide hori.

Beste kexa-multzo garrantzitsu baten gaia ur, gas, argi eta beste zerbitzu batzuk behar bezala ez ematea izan da, eta horietan arazo oso ezberdinak azaltzen ziren.

Ur horniduraren kasuan, instalazio berriak egiten zirenean lotuneagatik kobratzen ziren tarifak eta kontsumo-tarifak ere salatzen ziren. Kasu horietan, ordain-agirian agertzen zen kontagailu-irakurketarekin konforme ez zeudela adierazten zuten auzotarrek, horren arabera kalkulatzeko zelako ordaindu beharreko faktura.

Zabor-zerbitzuei buruzko erreklamazioak, batez ere, bilketarako edukiontzien kokapenen kontrakoak izan dira. Batzuetan, etxeetatik urrutiegi zeudela salatzen zen, eta hori batez ere nekazal lekuetan eta erdi-hirialdeetan azaltzen zen; besteetan, zaborrontzia etxeetatik gertuegi egoteaz gain, behar bezain sarri ez zela garbitzen, usain txar eta ezatseginak eragiten zirelarik.

Horrelako kasu gehienetan, salatzen diren zerbitzu publikoak ez ditu Administrazioak zuzenean ematen, zeharka baizik, hau da, administrazio-baimendun gisa diharduten enpresa pribatuen bidez, edo sarriago gertatzen dena, herri-domua daukaten elkarte anonimoen bidez.

Gai hori garrantzi handikoa da, izan ere, Administrazioa ez bezala, horren antolaketa eta jarduera legezketasun-irizpideari egokitu behar baitzaizkio, elkarte anonimo publikoak ekonomi-eskubide pribatuari loturik daudelako; besterekin, hots, erabiltzaileekin dituzten harremanetan horrek, hasieran behintzat, aske jokatzeko aukera ematen die eta, beraz, lege-antolaketak debekatzen diena bakarrik errespetatu behar dute. Hori praktikan ihesbidea izan daiteke, ez bakarrik herri-erakundeen Zuzenbidetik ihes egiteko, baizik baita Arartekoak herri-zerbitzuen prestazioan egiten duen ikuskapenetik ere.

Zerbitzu-emate horren beste ezaugarri bat eremu ekonomikoari dagokio, tarifen zerga-jaurpidea ezarri beharrean produktu edo zerbitzuaren prezioa kobratzen delako, beste edozein gizabanakok finka ditzakeen prezioen antzeko baldintzetan.

Domuaren jabea den edo elkarte sortu duen Administrazioak erakunde horien gain ezar dezakeen zaintze eta ikuskatze lana ere ez da argi ikusten.

Halako kalitate maila bat daukaten herri-zerbitzuak ustiatu eta kudeatzeko teknologia aurreratua erabili behar da, eta horrek, erabiltzaileei zerbitzua ematerako orduan eragina du, dudarik gabe. Horregatik, aurrerapen teknikoak batetik, eta hiritarrek, zerbitzuaren erabiltzaile direnez, daukaten eskubideak zaindu eta bermatzea bestetik, elkarrekin ondo etortzeko bideak aurkitu beharoko lituzke Administrazioak une oro.

Zerbitzua ematen duen sujatuaren forma edo izaera edozein dela ere, berau hartzerakoan, bai zerbitzua erabiltzeko aukeran, bai zerbitzua ematen den garaian berdintasun-irizpidea babestearen aldeko izan da beti Arartekoa.

Alor honetan, Administrazioaren ardurari buruzko kexek ere multzo aipagarria osatzen dute, eta beroriek zerbitzuak ematerakoan erabiltzaileek istripuz kalteren bat jasan izanarekin dute zerikusia.

Halere, ardurei buruzko gaien artetik azpimarragarrienak herrilanak egiterakoan eragiten diren kalteei buruzkoak dira, eta, batez ere, kaleak urbaniza-

tzeko udal-lanen kasuan, kaleak denbora luzez altxatuta egon direnean. Obrek eragindako merkatariak kalteturik ikusi dute bere burua, oinezkoek arazoak zeuzkatelako kalean ibiltzeko eta baita beren dendetan sartzeko ere, eta kalea altxatuta egoteagatik bezeroak aldi batean galdu izanak ekarri dien diru-galera ordaintzea eskatu dute, horiek ez baitziren dendetara joaten egoera horretan.

Arartekoarentzat ez da erraza izan hiritarrek diruzko kalteordaina jasotzeko eskubidea noiz zeukaten ebatzea. Hiritar orok herrilanen ondorioz sortzen diren gogaipenak derrigorrez jasan beharra gauza bat da, eta oso bestelakoa, aldiz, behar horretaz gaindi hiritar edo merkatari bati galera banakoa, zehatza eta dirutan baliozta daitekeena eragitea, eta bi horien arteko muga zehaztea da zaila.

Derrigorrezko jabego-kentze espedienteen biderapenean ustez gertatutako araugabetasun edo gehiegikeriak ere salatu dira Ararteko honen aurrean. Araudiak dioenez, herrilanetarako egitamuek eragindako ondasun, eskubide eta jabetzen titularra izan beharko du Administrazioak obrak burutzen hasi aurretik. Jabetza hori jabeei salerosketa bidez erosiz lortu nahi izaten du Administrazioak, eta bide hori ustel irteten denean, legeak derrigorrezko jabego-kentzeari ekitera behartzen du Administrazioa.

Beste kasu batzuetan, jabegoa kentzerakoan bete beharreko hainbat jarraibide bete ez izana salatu dute kexadunek. Aurkeztutako kasuak aztertu ondoren, formazko araugabetasunak edo tramite-hutsegiteak besterik ez direla izan ikusi da; beraz, horietan ez zen hiritarraren babesik eza gertatzen eta ez zegoen Erakundeak arazoan parte hartzeko bidezko arrazoirik.

Era berean, bidezko balioa finkatu edo ordaintzearekin zerikusia zuten alderdiak ere salatu dira; era horretako kexak, ordea, espero baino askoz gutxiago izan dira. Eta hori derrigorrezko jabego-kentzeetarako probintzia eta lurraldeko epaitegiei esker gertatu da horrela, horiek hiritarrak eta jabego-kentzearen onura jasoko duenak -eskuarki, beraz, Administrazioak- balioztape-na eta prezio-finkatzea egiterakoan dituzten irizpide ezberdinak bateratzeko lana egiten dutelako. Bestalde, Euskal Herriko Administrazioak, beste garai batzuetan ez bezala, zintzoki jokutzen du bidezko balioak ordaintzerakoan.

Herrilanak burutzeko bideekin zerikusia zuten kexak garrantzitsuak izan dira eta sarritan oso konplexuak ere bai. Burutu beharreko egitasmoan jasotako alderdi teknikoak berak kolokan jartzen zituzten hiritarrak edo taldeak ere egon dira; kasu horietan, arazoaren aurrean erabaki bat hartzeko trebaketa eta teknizitate maila handia behar zenez gero, Arartekoak bere erakundetik kanpoko aholkularitza bilatu behar izan du txosten tekniko egokiak egiteko.

Beste kexa batzuetan, azpiegitura bat tajutu eta kokatzeko Administrazioak hartutako erabakia jarri dute auzitan auzotarrek. Normalean, hodi handi eta errepide berriei buruzkoak izan dira, eta egitasmo teknikoari eta obrak egiteari hirigintz babesa emango dion lurralde-egitamugintza onartu aurreko epean aurkezten zuten kexa.

Halakoetan, auzotarrak egokiagotzat jotzen zuten beste aukera baten aldeko ziren, beren iritziz guztien interesen eta norbanakoeren eraginen arteko oreka handiagoa eskaintzen zuelako. Inor ez zen azpiegiturak eta zuzkidurak

eraikitzearen aurka azaltzen, baina inork ez zuen nahi izaten obra horiek beren lorategitik edo etxe aurretik pasatzerik.

Arartekoaren ustez, elkarrizketa-bideak agortu behar dira lehenik, eta horrelako gatazkak ager daitezen eragozteko ahaleginak egin behar dira, gure gizartean gero eta ugariagoak baitira. Horregatik, EUDEL eta Donostiako Soziologia Juridikoko Laborategiarekin batera, "Interbentzio-Gune Partehartzailleak" (IGP) deritzenei buruzko azterketa-jardunaldia antolatu zuen erakunde honek Oñatin.

Interbentzio-Gune Partehartzaille horiek zenbait auzotar-taldez osatuak daude, eta partaidetzan oinarritutako demokrazia-zko gizarte-giroan, honako betekizun hauek burutzen dituzte: komunitatearen elkarbizitza baketsuan eragin dezaketen hirigintz planifikazio, ingurugiro, azpiegitura-obra, zuzkidura-kokapen, eta antzeko beste egoera batzuetan artekaritza eta kontsulta lanak, horrela nahi ez diren ondorio eta istiluei aurre egin asmoz.

Urtero Eusko Legebiltzarrari aurkezten zaion txostenean iradokizun eta gomendioei eskaintzen zaien atalean, Arartekoak derrigorrezko jabego-kentzea egiteko bideak aipatu ditu. Tresna horren bidez, hiritarrei beren jabetza edo ondare zati bat kentzen zaie derrigorrez eta gogoz kontra. Egoera horretan, beste kasuetan baino zorrotzago errespetatu behar dira jarraibideak. Administrazioak, gainera, bidezko balioa finkatzeko adiskidetasunezko bide guztiak agortu beharko lituzke, eta hori finkatu ostean, Administrazioak ahalik eta lasterren ordaindu beharko luke.

Arartekoak Eusko Legebiltzarraren aurrean beste arazo hau ere salatu du: Administrazioak erakunde juridiko banatu baten bidez zuzenean edo lagapen bidez ematen dituen zerbitzuei buruzko kontratuetan arrazoirik gabe gehiegikeriazko baldintzak jartzea. Gehiegizko baldintza horiek, erabiltzaileen eta zerbitzua ematen dutenen artean desorekak sorrarazi ez ezik, zerbitzua ematen duenaren ardura mugatu ere egiten dute, eta batzuetan, erabiltzaileek beren legezko eskubideei uko egin behar izaten diete.

## 2.10. OSASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA

Alor honetan, hiritarren eguneroko bizitzan nabarmenki nagusitzen diren bi jarduera dauzkagu.

Bilakaera demografikoa eta gastu publikoaren egungo hazkundeari eusteko dauden arazoak direla medio, gizarte eta osasun laguntzarako eskubidearen inguruan eztabaida sakona piztu da gure gizartean.

Gai horietan jarduteko ahalmena edukitzeaz gain, horretara behartuta dauden agintari publiko ezberdinek esku hartzen dute aipatu eztabaidan. Osasun alorrean, Osasunerako Euskal Sistemaren Egitasmo Estrategikoa, duela gutxi Eusko Legebiltzarrari aurkeztu zaion hirugarren adinekoen gizarte eta osasun mailako premien azterteka, edo hirugarren adinekoen gaietan eskudunak diren foru sailek aurrera eraman duten hainbat ekimenek garbi erakusten dute agintari publikoak errealitate horretan murgilduta daudela.

Ararteko Erakundeak, bere aldetik, izendatuta dauzkan eskumenen arabera eta urtez urte Eusko Legebiltzarrari aurkeztu dizkion txostenen bidez aipatu ditugun eskubideen eremuan ikusten diren arazoak konpontzeko neurriak hartu beharra azaldu du.

Urteroko txosten hauekin batera, giza eskubide horien onura jaso behar duten gizatalde kaltetuei laguntza eskaintzeko, txosten monografikoak osatu ditu Arartekoak. Hain zuzen, ospitale psikiatrikoetan dauden buru-gaisoak eta hirugarren adinekoren egoitzen egoerari buruzkoak izan dira, hurrenez hurren, txosten horiek.

## **Gizarte ongizatea**

Gizarte-laguntzarako eskubide orokorrak bere barne hartzen du, besteak beste, hirugarren adinekoei zor zaiena, eta Arartekoaren ustez gizatalde hori da premiarik handienak dituen.

Arazaari dagokionean, Arartekoaren eskuhartzearen premia daukaten beste alderdi batzuk gorabehera, hirugarren adinekoei eskaini behar zaien laguntzaren premia larria, pertsona horiek jasaten duten zerbitzu eskasia kezagarritik dator; gainera, egoera hori are larriagoa izango da, zaharren kopurua ugaltzen ari delako eta familiak berak orain arte izan duen egitura aldatzen ari delako.

Halaxe da, Ararteko Erakundearen jarduneko lehen bost urteotan jaso diren kexa asko eta asko, aipatzen genuen gabezia horrekin lotuta zeuden eta, beraz, baita hirugarren adinekoren egoitzetan sartzeko dauden itzarote-zerrendekin ere.

Estatu sozialetan ohizkoak diren zerbitzu-emate izaerako eskubide guztiekin gertatzen den bezala, biztanleek eskatzen dituzten premiei erantzun beharra, horretarako ezartzen diren baliabideen menpe dagoela.

Horrela ulertu du gaia Arartekoak egoitzetan sartzeko itzarote-zerrenden-gatik aurkeztu diren kexak bideratzerakoan.

Ildo horretatik, egoitza-eskaintzaren gabezia handi eta nabarmenari buruz Erakundeak egin duen deia galerazi gabe, itzarote-zerrendei buruzko erreklamazioen banakako azterketa eskura dauden bitarteko edo postuen arabera bakarrik egin da.

Horrek esan nahi du, arreta edo laguntzarako eskubidea erabat gauzatzeko eskaerari osotasunean erantzun ezin bazaio ere, beharrezko lege-garapenik ez daukan bitartean behintzat, dauden egoitza-postuak berdintasun mailan betetzeko eskubidea badaukatela aiton-amonek.

Ezinbestean ikuspegi horretatik begiraturuta, eta Arartekoaren eskuetan uzten den administrazio-jardueren ikuskapenari dagokionez, kasu bakoitzari buruz egin den ikerketak helburu hau izan du: zaharren egoitzetarako sarbidea zerbitzuaren jabea den Administrazioak onartuta dauzkan arauak jarraiki egin den aztertzea, edo edozein zerbitzu publikotarako sarbidean nagusitu behar duen berdintasun-irizpidea errespetatuz egin den egiaztatzea.

Aztertu diren salaketa askoren bidez, egoitzetan sartzeko nolako arazoak dauden, edo informaziorako eskubideak gai horietan oraindik zein hedapen urria duen ezagutu ahal izan dugu; hain zuzen, dagoen eskaria eta eskaintzen den postu-kopurua konparatetik ateratzen den ondorioagatik, itxarote-zerrendak gardentasun handiagoaz kudeatu beharko lirateke.

Aurkeztu diren kexetan, beste gabezi batzuk agerian jarri dira, baita Era-kundeak aditzera eman ere. Besteak beste, batetik, sarbiderako arau eza edo, dagoenean ere, horren ezagupenik ezak sorrarazitako arazoak azaleratu dira, eta, bestetik, kasu batzuetan zein besteetan, erabiltzaileei oso diru-kopuru desberdinak eskatzen zaizkiela ikusi ahal izan da. Horiei arreta berezia eskaini diegu duela gutxi Eusko Legebiltzarrari eskuratu diogun txosten monografikoan.

Erreklamazioen bitartez aurkitu ditugun arazoek, horietako batzuk dagoeneko ikusi ditugarik, garrantzi berezia zeukaten zuzenean ukitzen zuten gizataldearen ezaugarriengatik. Bestalde, aiton-amonen eskubideekin zerikusia zeukaten gaitan aurkitu ditugun gabeziek erakutsi digute, arazoak askotan egoiliarrekiko jarrerarekin lotuagoak zeudela aurrekontu mugapenekin baino, eta horrek bultzatu gintuen alor horretan zeuden eskasiei buruzko azterketa egitera.

Gizarte-eskubideei berez dagokienez, araudietan duten erapidetzari atxiki beharko zaio beroriek betetzeko eskakizuna. Hain zuzen, gaiaren inguruan aurkeztu diren kexa batzuk, eskubide horiek legeztatu gabe daudelako edo berorien legeztapena desegokia delako sortzen diren arazoak azaldu dituzte.

Horri gagozkiolarik, tradizioz sendespen handiagoa daukaten beste giza eskubide batzuk hartzen baditugu, horien ezarpena, izan duten lege-bilakaerari eta beren sustapen mailari ere loturik egon dela ikusiko da.

Gizarte-laguntzarako eskubidea giza eskubide bezala aitortzen duen araudia garatzeko premia badago ere, horrek ezin dio Administrazioari eskubide hori ez dagoela ulertzeko biderik eman, eta, era berean, laguntza zerbitzuak gauzatzera, gabezia horrek ez ditu inola ere zuritzen desagertutzat jotzen diren inoren aldeko edo alderdikeriazko jokaerak.

Ondorioz, egoitza batean laguntzako zerbitzu publikoa jasotzeko bidean nahikeriazko jokabideak gertatzen badira, horiek ezin dira zuritu eskubide horren lege-garapenaren gabezia argudiatuz.

Laguntza beharrean dauden eta beren eskubideez ezer gutxi dakiten aiton-amona askok bizi duten egoera juridiko ahulaz ohartu da Ararteko Era-kundeak, hain zuzen gizatalde hori eta antzekoak babestea baita bere zeregin nagusietako bat.

Baina ez da pentsatu behar egoitz-sorospenean sortzen diren arazoak lege-arautzeak bakarrik konponduko dituenik. Eusko Jaurlaritzaren hirugarren adinekoentzako egoitza-zerbitzuei buruzko 218/1990 Dekretua onartu zenetik hiru urte igaro badira ere, bertan jasotzen diren agindu asko ez dira oraindik betetzen.

Aiton-amonek gizarte-laguntzaren eta arreta-ematearen helburu direla pentsatu beharrean, eskubide bat dagokiela pentsatzea galerazten dien arrazoi



ezberdinak daude, eta horiek psikologikoak, ekonomikoak eta kulturazkoak dira.

Horregatik, alor horretan egin behar den sustapen lana zaharren egoitzetan egin beharreko berrikuntza tekniko edo materialen maila berean jarri behar da.

Berariz neurtu diren baina ia kexarik eragin ez duten gaiez ari gara. Aldiz, antzeko beste gizarte-eskubide batzuetan, hezkuntzan edo osasunean adibidez, alor honetan aurkitzen direnen antzeko egoerak gertatuz gero, seguru izan kexa asko sortuko lirateke.

Ezaugarri psikiko, ekonomiko edo beste maila batekoei eskaintzaren eskasia gehitzen badiegu, erraz ulertuko dugu, ematen zaien sorospenaren gabezien aurrean, zergatik aiton-amonak ia ez duten eskatzen beren eskubi-deak bete daitezzen.

218/90 dekretua zehatz-mehatz betebeharrak arazoak sor ditzake, egoitza bat ixtean aiton-amonak beste egoitza batera eramateko zailtasunak egon daitezkeelako.

Egoera horren aurrean, arauak lortu nahi dituzten helburuak erdietsiko dituen zigor gutxi dago.

Behin eta berriz aipatzen den egoitza-postuen eskaria eginagatik, horrek ezin digu ahantzarazi aurkitu beharreko konponbide asko oso bestelakoak izan daitezkeela. Adibidez, itxarote-zerrendetan dauden aiton-amona askoren premiei egoitza ez den beste bide batzuek erantzun lekieke, esate baterako egunezko zentruen bidez eta etxera bertara eramandako laguntza-zerbitzuek.

Egoitzetan, gutxienez une honetan, dagoen postu eskasia ikusirik, sartzeko erabiltzen diren onarpen-irizpideei buruz hausnarketa egin beharrean gaude.

Eskaintza publikoari dagokionez, era horretako egoitzetan sartu nahi duten edadetuei neurri handi batean burujabe izatea eskatzen zaie, baina horrela, elbarrituta dauden edo laguntza premia handia dutenen arazoa konpondu gabe geratzen da, agian besteek baino laguntza handiagoa behar izanik, aldiz, komunitatearen sorospen-zerbitzuetara mugaturik geratu behar dutelako, harrigarria badirudi ere.

Hain zuzen, larriki ezinduta dauden adineko pertsonen familiartekoek aurkeztu dituzte era honetako kexak.

Horietan, administrazioen artean zehaztasun garbirik ez egoteak sorrarazten duen beste gabezia bat salatzen zuten, azken batean, adinekoari gizarte-zerbitzu nahiz osasun mailako zerbitzuetan sarbidea galerazten diona.

“Gizarte eta osasun esparrua” deritzan horretan dagoen baliabide urritasun eta laguntza ezari dagokienez, gizarte ongizate eta osasun alorretan ahalmenak dauzkaten sailen arteko koordinazio instituzionalaren oinarritzko irizpideak indar handiagoz bidean jartzeko premia aldarrikatu dugu.

Zorionez, konturatu dira adineko pertsona bat bera ere ezin dela utzi inoren ardurapeko esparrua ez den bidegurutzean, eta laguntza hori emateko betebeharra daukaten administrazioak etengabe gogoraraziko dugun arazo hau konpontzeko lehen pausoak ematen hasiak dira.

Gizarte ongizate alor honen barruan, gizarte-laguntzei buruzko kexa ugari ere azaldu dira, horietako asko gizartean txertatzeko dirulaguntzak kobratzean egondako atzerapenengatik aurkeztu dituztelarik. Era horretako laguntzen helburua aintzat hartuz, horiek emateko bideak arintzeko premia azaldu du Ararteko Erakundeak.

## Osasun sorospena

Atal honetara bildu ditugun arazoak aztertzerakoan, horietako asko gaur egun gertatzen ari den eztabaida garrantzitsuaren gaiak izaki, zuhurtasun handiz jokatzeko saiatu gara, izan ere, osasun egituren egokitzapena baita berrikuntza prozesu horretan aztergai.

Horren garrantzia Estatu sozial batean ohizko eskubidetzat jotzen den horietakoa izatean datza.

Orain aztergai diren bideetako batzuk, oraindik oso berria den 1986ko Osasunari buruzko Lege Orokorrean jasota daude, baina horrek ez du esan nahi lege horrek xedatzen dituen beste zenbait eduki bete-betean indarrean ez daudenik. Hori gertatzen da, adibidez, gaisoen lege-eskubideen alorraren osaez mintzatzen diren xedapenen kasuan; horiek, legeak 10. eta 11. artikuluetan jasotzen ditu, eta Euskal Autonomi Elkarteak otsailaren 18ko 175/89 dekretuaren bidez garatu ditu, aurretik alderdi batzuetan, azaroaren 25eko 272/86 dekretuaren bidez garatu zirelarik.

Osasunari buruzko Lege Orokorrak, Euskal Autonomi Elkarteak aipatu 175/89 dekretuaren bidez jasota daukanak arautzen dituen eskubideen taularen ezaugarrietako bat hau da: taula hori osatzen duten alderdi asko informazioa jasotzeko eskubidearekin lotuta daude.

Horien artean gaisoek beren historia klinikoa ezagutzeko aukerari dagokiona da aipagarria, esan dugun bezala, Eusko Jaurlaritzaren 272/86 dekretuan zehazki garatuta dagoena.

Horrela, kexak eragin dituzten egoerek alderdikeriazko ukoekin zerikusia izan dute, beraz, horrelakoak ez dira gertatu, medikuntzarako jardunbide-araudiari dagozkion arrazoiak direla eta, sendagileak argibide gutxiago ematea komenigarri jo duelako.

Erreklamazioen bidez, eskubide horretaz baliatzeko bideak behin eta berriz oztopatzen direla ikusi da.

Jokabide horiek, bestalde, ez dira osasun sistema publikoan bakarrik erabiltzen, sistema pribatuan ere bai, horrela adierazi baitute klinika pribatu batzuen jokoerari buruz jasotako kexak. Horiek, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren laguntza baliotsuaz konpondu ahal izan dira.

Historia klinikoa ezagutzeko aukeraz hitzegiten dugunean, gaisotasunaren jarraibidearen berri nonbait jaso ager dadin dagoen derrigortasunaz ere ari gara, horrela egiten ez bada, etorkizunean historia ezagutzeko zailtasun handiak egongo direlako ezinbestean.

Bestetik, salaketa horien bidez ikusi da, halaber, eskubide bat lege gisa eratua egon eta, kasu honetan bezala, araubidez garatuta egotea, berez ez

dela nahikoa modu eraginkorrean eguneroko jardunean gauzatzeko. Gizarte Ongizate atalean adierazten genuen bezala, eskubideen sustapena nahitaezko tresna da errealitatean eragina izateko. Hori gertatzen da historia klinikoa ezagutzeko eskubidearekin, eta agian esparru publikoan sarriago ezartzen da, nahiz eta Osasunaren Leke Orokorrak 11. artikuluan osasun esparru pribatuan ere berdin eska daitekeela dioen.

Historia klinikoa ezagutzeko aukerari buruzko kasuak ezin dira bakarka aztertu. Jasotako tratamendurekin kontentua ez egotearekin, edo tratamenduaren berri ez izatearekin daukan lotura dela bide, gaisoen informazioarako eskubidearekin zerikusia daukaten beste alderdi batzuekin edo jokaera okerren ondorioz sortzen diren hainbat arazorekin lotuta dago.

Historia klinikoa ezagutzeko aukerari dagokionez, Ararteko Erakundearen ezagutu diren kexa askotan erreklamatzailerik jasotako tratamendurekin ados ez zeudela adierazten zuten.

Horregatik, argibideak jasotzeko eskubidearekin daukan lotura, gure ustez, eta, gutxienez, aztertu ditugun kasuen argitan, honetan oinarritzen da: aldeztu aurretik gaisoari ez zaio adierazten ezarriko zaien tratamendua, gaisotasunaren zein unetan egin behar zaien ebakuntza, edo honen ondorengo tratamenduak zein bilakaera izan duen.

Horrenbestez, gure ustetan, gaisotasunaren prozesuarengatik aurkeztutako kexetan azaldu diren arazo anitzi aurre egin ahal izango litzateke erabiltzaileari ezarri tratamenduaren berri emango balitz.

Sarri aurkezten den arazoetako bat, hain zuzen egindako gastuak itzultzeari buruzkoa hartzen badugu, informazio eskubideak eduki dezakeen garrantziaz ohartuko gara.

Informazio eskubideari ordainketa atzerapenengatik sortzen den arazoa gehitu behar zaio. Azken hau, batzutan, prozedurazko akatsengatik gertatzen bada ere, bestetan, dirua itzultzeko eskari-ukoak, osasun-sistema publikoak emandako informazio okerrekin eragindako egoeren ondorenak direla azpimarratu behar dugu, eta, baita, zenbaitetan, agian diagnosi okerrekin sortutako arazoak ere.

Horrelakoetan, gaisoak, sistema publikoaren jokaerarengatik osasun pribatura joatea erabaki behar izan duen kasuetan, eragindako gastuak sistema publikoak ordaindu beharrekoak zirela ebatzi du Ararteko Erakundeak, publikoak ez diren osasun erakundeen sorospena arautzen duten xedapenen hitzez hitzeko interpretazioa bazter utziz.

Arazo horiek argitzerakoan ezin dugu ahaztu gaisoek duten eskubidea, bai erabili ditzaketen zerbitzuen berri izateko, bai eta horiek erabiltzekotan bete behar dituzten baldintzak ezagutzeko ere (Osasun Lege Orokorren 10.2. art.).

Azkenik, urte hauetan kexa ugari sorrarazi dituen beste arazo bat ere aipatu behar da.

Itzarote-zerrendez ari gara, eta Ararteko Erakundeak lehentasunezko arreta eskaini behar dio gai horri, agian osasun eskubidearen helburu nagusietako batekin duen lotura zuzenagatik.

Itxarote-zerrenda horiek onartu ordez, Osasun Administrazioa horiek aurre egiten saiatzen da bide ezberdinak erabiliz. Alabaina, arazoak bere hartan dirauen bitartean, Arartekoak zerrenda horien iraupen luzeaz arduratu behar du.

Era berean, espezialitateen artean eta osasun sare batzuen eta besteen artean dauden desorekak ere aipatu behar dira, sistema beraren barruan dauden pertsonentzat horrek dakarren tratu desberdintasunagatik.

Aurreko zehazpenekin batera, itxaroaldiak zenbat iraungo duen ez jakiteak eragiten duen segurtasun eza ere aipatu beharra dago.

Ustekabean sortzen diren premiei erantzutearren zerrendetan nahitaez aldaketak izaten badira ere, horrek ez du esan nahi aurretik zerrendan zeuden gaisoek ebazpena noiz egingo dieten zain eta horren berri jakin ezinik egon behar dutenik.

Gaisoaren segurtasun falta hori ezin da onartu sistemaren ezinbesteko premia bezala, eta jasotako kexetan gai hori izan da, hain zuzen, auzitan jarri dena.

Osasun sistemaren erabiltzaileek dauzkaten eskubideen taulako osagai batzuk aztertu ditugu, eta buru-gaisotasunen esparru berezian eskubide horiek daukaten gaurkotasuña bereziki aipatu behar dugu orain.

Eusko Legebiltzarrari 1992 urtealdiko txostenarekin batera eskuratu zitzaion txosten monografikoaren helburua hain zuzen, komunitate autonomo honetako zentru psikiatrikoetan dauden buru-gaisoen egoera aztertzea zen.

Oro har, Autonomi Elkarteko ospitale psikiatrikoetan dauden buru-gaisoen egoera onargarritzat jotzen bazen ere, azterketa horren bidez Ararteko Erakundeak gomendatu zuen arreta berezia eskaintzea sisteman aurkitutako zenbait akats konpontzeko. Horien artean, eta lehenago aipatu dugun gizartelaguntzarekin daukan loturagatik, erdi epeko egonaldi eta egonaldi luzeetarako zentruetan psikogeriatría unitate bereziak sortzeko eta hirugarren adinekoentzako egoitzetan dauden adineko egoiliarrei laguntza psikiatriko egokia ematen saiatzeko premiari dagozkionak aipatu behar ditugu.

Arartekoaren ustez, gaiso eta erabiltzaileen eskubideei buruz aztertu ditugun esparruek ezaugarri bereziak daukate eta, beraz, osasun-sistemaren barruan bultzatu nahi diren egitura-egokitzapenen ondorioz gerta daitezkeen aldaketetatik kanpo geratzen dira.

Horregatik, osasun-eskubidearen prestazio-mailaren araberako sailkapena egiterakoan, araudien antolaketan gerta daitezkeen itxuraldaketak ezin du eraginik izan aipatu ditugun esparruetan, eta aldiz, horiek sustatu egin beharko lituzke, Ararteko Erakunde honek hainbat jarduera burutu behar izan baititu arrazoi horiengatik.

## 2.11. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA

Arartekoak alor horretan burutu duen lana, Euskal Autonomi Elkarrekin gai horietan daukan eskumenei baldintzatu dute.

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako Sailaren kontra aurkeztu diren kexa gehienak sustapen alorrari zuzendu zaizkio, eta enplegurako dirulaguntzen inguruko arazoei loturik zeuden.

Horrela, alde batetik, autoenpleguaren sustapenari dagozkion gaiak eta, zehazki esateko, eskariak aurkezteko epeei buruzkoak izan dira kexa-arrazoiak. Bestetik, besteren kontura lanean aritzeko langileak kontratatzea errazten duten neurriekin zerikusia izan duten kexak ere jaso dira, hain zuzen, kontratazio horietarako itzultzekorik gabeko dirulaguntzak eskainiz eta gizarte segurantzako jaupide orokorreko kuotetan hobariak emanez gauzatzen diren neurriak izan dira kexagai.

Kasu horietan laguntzak emateko dekretuak zioen enpresari indibidualak ezin zituela kontratatu bere ezkontidea, ez eta odolkidetasunagatik, kideetasunagatik edo adopzioagatik aurrekoa, ondorengoa edo ondokoa zen senitartekorik, hirugarren mailara arte, hori barne. Aldiz, arau fiskalak eta gizarte segurantzako kontratazio horiek onargarritzat jotzen dituzte, behar bezala eginda daudenean. Nolanahi ere, gure ustez ez da bidezkoa, iruzurra egiten zelako susmoagatik, horrelako kontratazio guztiak araukontrakotzat hartzea; horregatik, lan harreman horiek egiazkoak ziren ziurtatzeko behar ziren tresna eta aurrikuspenak bideratu behar zirela iritzi genion. Horrela, aipatutako sailari gomendatu zitzaion, aurrerantzean laguntza horiek emateko araudian odolkidetasunaren salbuespena adierazten duen baldintza hori ken zezala.

Euskal Autonomi Elkartearen zerbitzuan dauden langileen gozamen-eskubideei buruzko espedienteak ere aipatu behar dira duten garrantziarengatik. Kasu horietan, kexadunek maiatzaren 13ko 1/1986 dekretu arauemailean aitortutako pentsioak eskatu zituzten, baina ez zitzaion onartu eskaria denboraz kanpo egiteagatik, 1991ko aurrekontuen legearen arabera hori egiteko zegoen epea urte horretako abenduaren azken egunean amaitzen zelako.

Gozamen-eskubidea erabiltzeko aukerari epea jartzeak bidegabekeriazko egoerak sortzeaz gain, ez zetorren ondo horrelako zerbitzuek duten aldiaz galdu ezineko izaerarekin.

Bestalde, arazo horrek kalteturiko pertsonak gutxi zirela kontutan harturik, ez zegoen horretarako aurrekontu arrazoirik jartzetik.

Horregatik, eskari horiek egiteko epea zabalik uzteko eskatu genuen eta hori onartu egin zen; ondorioz, lege dekretuko 22.2. artikulua aldatu egin da, 1994. urterako Euskal Autonomi Elkarte Aurrekontu Orokorra jasotzen duen abenduaren 22ko 9/1993 Legearen bidez.

Gizarte Segurantzaren alorrari zehatz-mehatz dagokionez, Erakundearen jarduera kexetan salatutakoarekin zerikusia zuten informazio-eskariak zegokien sailei aurkeztera mugatu da, kuota ordainketa eza, zerbitzu eskaera, baja eta antzeko arrazoiengatik irekita zeuden espedienteen egoera ezagutzeko asmotan. Askotan, arazo horiek, administratuak bere lan egoeraren arabera Gizarte Segurantzarekiko dauzkan betebeharrak ez ezagutzeagatik sortu dira.

Horrelakoetan, berehala ekin beharra eskatzen zuten kexetan, gaiaren izaeragatik eskumena duen Estatuko Herri Defendatzaileari igorri beharrean, Arartekoak berak bideratu ditu. Jarduera horiek, beste gestio batzuk aztertzen

diren atalean sartu ditugu, txosten honen egituraketarekin lotutako arrazoiengatik.

Aipamen berezia merezi du, lan elkartua egiten duten kooperatibetan, enplegu erregulaziorako espedienteen ondorioz geratzen zaien desenpleguaren babes maila dela eta langile-bazkideek azaldutako arazoak ere.

Bazkide horiek jaurpide orokorrean sartuta dauden eta besteren kontura lanean diharduten gainontzeko langileek bezala kotizatzen dute langabezi-sarirako gaur egun; baina, lanik gabe geratzen direnean ez dute, ordea, besteek daukaten babes bera jasotzen.

Tratu berezitu horrek Konstituzioaren 41. artikulua hauts zezakeenez, horrek agintari publikoei "premiazko egoeretan, eta batez ere langabezi kasuetan, hiritar guztiei beharrezko gizarte-babesa eta sorospena bermatuko dizkien gizarte segurantza jaurpidea" eskatzen baitie, Euskadiko Elkartze-bidezko Lanaren Kooperatiben Federazioak eta Ararteko Erakundearen lege-aholkularitzak elkar hartuta osatu zuten txostena igorri zion Arartekoak Estatuko Herri Defendatzaileari, eta berrorek arrazoirik gabeko bereizkeria hori zuzentzeko premia Lan Ministeritzari jakinarazteko balio izan zuen.

Aipatutako administrazio-sailak aurten burutuko den desenplegurako babesaren araudi berrian gai hori sakonago aztertzeko konpromezua hartu zuen 1994ko urtarrilean. Neurri horren onura Espainiako kooperatibetako 55.000 langilek jasoko dute.

Azkenik, Beren konturako Langileen Jaurpide Berezia baja ez emateagatik sortutako arazoen garrantzia ikusi ahal izan du Erakundeak. Kasu horietan, interesdunek, gaur egun Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga den lizentzia fiskalean baja eman ondoren, hori nahikoa zela pentsatu zuten Gizarte Segurantzaren ere berehala baja hartuta geratzeko. Halere, bi urte igaro eta gero erakunde horrekin zeukaten zorraren jakinarazpena jaso zuten, gainera %20ko gainkarguaz zetorkielarik.

Hori dela eta, urte honetan foru ogasunei bideak jar ditzaten gomendatzeko asmoa dugu, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan gertatzen diren baja-eskaerek zuzenean eragina izan dezaten Langile Autonomoen Jaurpide Bereziari dagokion guztian.

## 2.12. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

Alor hau izan da urteak joan eta urteak etorri kexa gehien bildu dituenetako bat, guztira 390, eta horiek nahiko berdintsu banatzen dira bere bi azpisailen artean, hirigintza eta etxebizitzan, alegia.

### Hirigintza

Administrazioak gai horretan babestu behar dituen gizataldeen interesak Konstituzioaren 47. artikuluan modu nahiko abstraktuan daude jasota, zeinak

xedatzen baitu lurraren erabilera guztien interesaren arabera arautu behar dela espekulazioa eragozteko, eta hirigintz ekintzetatik ateratzen diren gainbalioetan komunitateak parte har dezan ahaleginak egin behar direla.

Modu batera edo bestera Konstituzioaren irizpide horiek bete ez zirela adierazten zuten kexa gehienetan salatzen zen administrazioa udala zen, eta hori ez da harrizkoa, hirigintzako eskumen gehienak udalek dituztelako.

Lurraren egitamugintza eta antolaketa mailako erreklamazioei dagokienez, askotan kexa aurkeztu dutenek, normalean talde edo auzotar-elkarteek, indarrean edo onartzeko bidean zegoen hirigintz antolaketa salatu eta beste bat aurkezten zuten. Bidaltzen zituzten idatzietan, zuzkidura hobeen eta auzorako berdegune azalera handiagoen premia adierazten zuten, ia beti etxebizitzak eraikitzeke egitasmo jakinen kontra azaltzen zirelarik. Auzotarrek, sarritan, aurka egiteaz gain, jarrera egokiaz, arau subsidiario, zati-egitamu edo egitamu berezien bidez proposatzen ziren antolabideez bestelakoak eskaintzen zituzten.

Beste kasu batzuetan, beste era bateko hirigintz antolaketak jartzen ziren auzitan, eta gogortzat jotako azpiegitura edo zuzkidura batzuk (hiri-ingurabideak, egoitzak, etabar) auzo inguruetan kokatzearen aurka azaltzen ziren.

Hiriaren azpiegiturak hobetzeko, etxebizitza kopurua gehitzeko, zuzkidurak eraiki edo berritzeko eta beste jarduera batzuetarako gehiengoak daukan interesa, sarritan ez dator ondo auzo baten interes zehatz eta propioarekin, eta auzokide-taldeek ikuspegi hori dela bide mobilizazioak burutu eta kexak aurkezten dituzte. Horrela, ikuspegi zabalago batetik konponbide ontzat har daitekeena, maila apalago batetik ikusirik, konponbide horrek beste arazo edo gaitzak eragiten ditu.

Bestalde, etxadi edo jarduera-unitateetan iragarritako etxebizitzaren edo unitate horietako lurren jabe batzuek hirigintz antolak bideratzeko atzerapenak salatu dituzte Arartekoaren aurrean. Administrazioa, bere eraketagatik, erantzailerik txarra izan ohi da, eta gainera hirigintzako zenbait jarduera bideratzea nahiko zaila gertatzen da, batez ere antola-lanetan parte har dezaketen eragile pribatuak erakartzeko irabazbiderik eskaintzen ez dutenean. Kasu horietan, auzotarrak hainbat urte irauten duten prozesuetan murgildurik egon izan dira, prozesu horiek sarritan nahi gabe gertatu direlarik; horietan, ardura eta nagusitasuna administrazioen eta sustatzaile edo eragile pribatuen artean banatzen zen, eta hori nahiko ulergaitza da.

Beste kexa batzuetan, udalek eskuratutako hirigintz informazioa aztertu eta argi zezan eskatzen zitzaion Arartekoari. Gai horietarako erabiltzen den hizkuntza teknizismoz beteta egon ohienez gero, hiritarrek prozesuak eta hirigintz kontzeptuak ulertzeko arazoak izaten dituzte, eta horrek berekin dakar informazioa ematen duen herri erakundearekiko mesfidantza.

Auzokide batzuek, obrak egiteko baimen batzuen kontra edo baimena lortzeko hainbat baldintzaren kontra aurkeztutako salaketan aurrean udalek erakutsi duten geldotasuna azaldu dute kexetan, baimen horiek auzotarrek nahi ez zituzten kalteak eragiten zizkietelako beren etxebizitzei eta, beren ustez, horiek zertan jasan ez zeukatelako. Beste kasu batzuetan, baimena ema-

tean berdintasun-irizpidea hausten zela salatzen zuten; auzokide batzuek onura ateratzen zuten bitartean, beraiek bidegabeki kaltetuak ateratzen ziren, udalak antzeko obrak egiteko lizentziarik ematen ez zuelako.

Azkenik, jendea bizi zen etxeak hondamen egoeran daudela aitortzeak arazo larriak sorrarazi dizkie kaltetuei. Eraikinen hondamen egoera aitortzen duten Alkatetza-dekretuek etxea botatzera behartzen dituzte etxebizitzaren jabeak, eta hauek botatzen ez badute, Administrazioak egin behar du lan hori jabeen kontura. Beraz, jabeak etxea botatzera behartuak egoteaz gain, bitartekorik badute behintzat, bizitzeko beste etxe bat bilatu ere egin behar dute.

Gure hirietako alderik zahar eta hondatuenetan daude eraikuntzarik zaharkituena eta segurtasun eta garbitasun baldintzarik txarrenak dauzkatenak, eta horietan, gainera, baliapide gutxien dituztenak bizi dira. Horrela, hirigintz mailako arazoa etxebizitza duin bat lortzeko arazo bilakatzen da, eta kasu horietan Administrazioa kaltetuak beste etxe batean sartzeko gastuak ordaintzeko biderik egokienak aurkitzen saiatzen da.

Administrazioak aukera bat baino gehiago eduki eta egokiena aukeratzeko daukan ahalmena kolokan jartzen duten kexa asko aurkeztu dira. Auzotarren iritziz, Udalak aukeratutako bidea bat zen, baina guztien interesari begira bazegoen hori bezain errespetagarria edo are errespetagarriagoa zen eta gainera lehenengoak baino kalte gutxiago zekartzan beste biderik ere. Kasu horietan, Arartekoarentzat oso zaila da hiritarren nahiak babestea, alde batetik arau-hausterik egon ez delako, bestetik, bi proposamenak arrazoituta daudelako, eta azkenik, Administrazioa hiritarren ordezkaria izanik, komenigarrien iruditzen zaion erabakia hartzeko ahalmena daukalako.

Horregatik, Arartekoak gomendio gehiago egin ditu hirigintzako eraentza edo diziiplina kasuetan, legea oso gutxitan hausten zuten egitamugintza gaietan baino.

Guztira 14 gomendio egin zaizkio Administrazioari, horietatik gehienak udalei zuzenduak, eta guztira %29 onartu dira.

Kexa-espeditente bakoitzagatik egin den gomendio osagarriaz gain, Arartekoak Eusko Legebiltzarrari urtero aurkezten dion txosteneko "Gomendioak eta Iradokizunak" atalean gogoeta eta proposamen orokorrak egin dira, batez ere hirigintz antolaketa eta etxebizitzak eraikitzeko lurra lortzera bideratuak.

Gomendio horietako batzuetan ondorengo puntuak azpimarratu dira:

- Oinarrizko hirigintz egitamugintza 1976ko Lurraren Legearen Testu Bateratuari egokitzea, antolaketa udalerraren egungo premietara moldatzeko, aukerako erabaki arrazoigabeak ezabatzeko eta hirigintz prozesua gardena izateko. Gomendio hori zaharkitua geratu da, izan ere egokitzapena orain 1992ko Lurraren Legearen Testu Bateratuarekin egin behar delako.

- Udalek luraren kudeaketa egiterakoan borondate politiko erabakiorraz jokatu behar dute, eskuetan dauzkaten tresna guztiak erabiliz eta egitasmoak burutzeko iragarritako epeak arrazoirik gabe luza ez daitezen ahaleginduz, horrek lurra garestitzea ekartzen duelako; beraz, etxeak egiteko lur-eskaintza bizkortasunez sustatu behar dute.



- Hirigintzako arau-hausteei aurre egiteko beharrezko bideak urratu behar dira, eta udal batzarrek arreta berezia jarri behar dute lege-urratzerik gerta ez dadin, horiek ingurunea kaltetzeaz gain desberdintasun-egoerak sorrarazten dituztelako.

- Eusko Jaurларitzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak, 1992ko Lurraren Legearen Testu Bateratu berriak sortzen dituen zalan-tzak argituko dituzten arauak sustatu behar ditu, eraginkorragoa eta herrialdearen hirigintz ezaugarriei hobeto egokitu ko zaiona izan dadin.

Administrazioaren jarduera batzuk bai, garatu dira Arartekoak emandako gomendioen bidetik. Horrela, udal gutxi geratzen dira beren oinarritzko egita-mugintzak aztertu eta onartu gabe, eta hori egiteke daudenek onartze proze-sua nahiko aurreratua daukate. Gai horri dagokionez, aurrerabide garrantzitsu eta egokia gertatu da azken bost urte hauetan, eta horretan foru diputazioek ere izan dute eragina.

Eusko Jaurларitzak, bere aldetik, lurra lortzeko eta lur horietan babes ofi-zialeko etxebizitzak eraikitze ko egintzak babesteari eutsi dio. Pauso erabakio-rra uztailaren 16ko 433/1991 Dekretua onartzea izan zen, horren arabera babes ofizialeko edozein motatako etxebizitzak eraikitze ko behar zen lurra lortu eta bertan hirigintz lanak egiteko finantziazio kualifikatua zabaldu baitzen. Bide beretik, 63/1992 eta 109/1993 dekretuak aipatu behar dira.

1992ko Lurraren Legearen Testu Bateratua garatzen duen araudiari dagokionez 109/93 Dekretua bakarrik aipa dezakegu, bertako 6. xedapen gehigarrian finkatzen baita zein pauso eman behar dituen Administrazioak Euskal Autonomi Elkartean burutzen dituen hirigintz jardueretan, Lurraren Legeko 4. xedapen gehigarrian aipatzen den orde zko etxebizitzarako eskubi-dea bermatzeko.

## **Etxebizitza**

Etxebizitza gaietan eskumena Autonomi Elkarteko Administrazioak dauka batez ere, eta ardura zuzena Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailarena da. Gainera, zenbait maila zehatzetan, hala nola, segurtasun eta garbitasu-nean, edo etxebizitzen sustapen publikoan, udalei ere aitortzen zaizkie zenbait eskumen. Eskumen banaketa horren arabera, normala da hiritarrek etxebizi-tzekin zerikusia duten kexak aurkeztu dituztenean gehienak Eusko Jaurларitza-ren jardueren kontrakoak izatea.

Espainiako Konstituzioak 47. artikuluan espainiar guztiek etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea aitortzen du, eta eskubide hori gauzatzeko agin-dua Administrazioari ematen dio, bere jardueren bidez gauzatu dezan.

Baina, zerbitzu mailako eskubide sozial hori betetzea aldi-an-aldian dauden aurrekontuek ematen dituzten aukeren menpe dago. Dirubide-muga hori abia-puntu gisa hartzen du Administrazioak hiritarren premiei erantzuterakoan, lehen-tasunak ezarri behar izaten dituelako, eta zenbaitetan aukera batzuk baz-tertu ere bai.

Diru-baliabiderik ez daukaten hiritarrek kexa askotan azaltzen dute etxebizitza lortzeko premia larria. Eskaera hori egiten duten batzuek, beste etxebizitzarik ez daukatelako egiten dute, eta beste batzuek, berriz, daukatenak funtsezko segurtasun eta garbitasun baldintzak ez betetzeaz gain, intimitate aukera txikiarik ere eskaintzen ez dielako eta familian tirabirak eta arazoak sorrazten dituelako.

Etxebizitzarik ezaren arazoa talde batzuentzat are larriagoa da, eta zenbaitetan egoera penagarriak eragin ditzake. Familiaren etxetik atera edo familigune berriak sortu nahi dituzten gazte edo bikoteak nahiz aiton-amonak dira etxebizitza eskari gehientsuenak egiten dituzten taldeak.

Elkarrengandik banatu edo dibortziatu diren senar-emazteei dagokienez, epaileak etxerik gabe utzitakoek ere premia handia dute, are handiagoa seme-alabak bere gain hartu behar badituzte eta gainera lanik gabe baldin badaude.

Hondamen adierazpenaren espedientearen pean dauden eta, beraz, lehenbailehen bota beharreko etxeetan bizi diren hiritarren egoera ere larria da. Denbora laburrean ezinbesteko den etxebizitza galtzen dute, zaharkitua eta egoera txarrean egon arren, azken finean beren estalpe bakarra zena.

Administrazioak eta, bereziki, udalek kaltetua beste etxebizitza batzuetan sartzeko ahalegina egiten dute, eta hori ezinezkoa denean, laguntzak ematen dituzte giza larrialdietarako laguntza-egitarauaren kontura. Horrela, etxebizitza bat aloka dezakete.

Batzuetan, bizitzeko oinarrizko baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitza desegokien arazoa auzo oso edo zati batera hedatzen da eta, arazoa aztertu ondoren, dena suntsitzea dela egokiena ikusten da. Kasu horietan, Administrazioak arazoa ikusi eta bere egin duenean, auzotarrak ahalik eta gertuen dagoen beste auzo batera aldatu dituzte, auzo zaharra botatzeko eraiki den berri batera. Halakoetan, Barne Konponketarako Berarizko Egitamua (BKBE) hirigintz aukera erabili da, eta hori udalek eta Eusko Jauriaritzak elkar hartuta bideratzen dute eta biek hartzen dute bere gain horren ardura, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailarekin hitzarmenak sinatuz.

Etxerik gabe geratutakoak beste batean sartzeko etxe-truke sozialak egiten dira, hau da, auzotar bakoitzari etxe zaharraren truke berria ematen zaio, eta berri hori Jabetza Erroldan bere izenean zerrendaratzen da.

Esan beharrik ere ez dago operazio horiek, lan handikoak izateaz gain, oso garestiak ere badirela, eta horregatik kasu bakanetan erabiltzen dira, beste irtenbide baliagarriak ez dagoenean bakarrik.

Normala den bezala, kexa gehienek Administrazioaren sustapen jarduerarekin zerikusia daukate: batzuetan, etxebizitza berriak eraikitzeko burutzen dituen jarduerekin, eta besteetan, irabazirik gutxien duten hiritarrei sarbidea erraztea helburu dutenekin.

Hiritarrek, batzuetan, etxebizitza sozial baterako dirulaguntza-eskariak ebazten dituen Etxebizitzarako lurralde ordezkarien erabakiak auzitan jartzen dituzte, eskaria atzera botatzen zaielako edo ematen zaiena espero zutena baino txikiagoa izaten delako. Ebazpen horien kontra administrazio-errekur-

tsoa ezar dezakete Planifikaziorako eta Dirubideen Kudeaketarako Zuzendaria-  
ren aurrean.

Gai horri dagokionez, etxebizitza sozialak lörtzen dituztenentzat dauden dirubide-neurriak hiru motatakoak dira araudiaren arabera:

- Kreditu-erakundeen mailegu kualifikatuak.
- Lanbidearteko gutxieneko soldata 2,5 bider baino gutxiago irabazten duten famili-unitateentzako itzultzekorik gabeko laguntzak.
- Maileguen korrituen zati bat ordaintzeko laguntza.

Arartekoaren aurrean arrazoi horiengatik kexa gutxi aurkezten dira Hiri-  
gintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak urtero ematen dituen dirulaguntza  
kopuru handiarekin konparatzen baditugu.

Eraiketa garaian babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko egiten diren hau-  
taketa-bideei buruzko kexak sarritan jasotzen dira. Etxebizitza horietako bat  
eskatutakoek, Udalak eman dien puntuazioa zuzena oten den kolokan jartzen  
dute, hainbat gauza ez dizkietela balioztatu, edo balioespenean koefizienteak  
oker ezarri zaizkiela adieraziz.

Etxebizitza bat emateko baremo arautzaileetan jasotzen ez diren edo pun-  
tuazio baxuegiarekin uzten diren premiazko egoera subjetoak eta/edo obje-  
toak ere badaude. Horrela, kexa batean Administrazioak iritzi zion familia  
batek etxebizitza egokia zeukala, eta horregatik, baremoan ez zegokiola puntu  
bakar bat ere, eta hauxe gertatzen zen: familia hori laugarren solairuan bizi  
zen, etxe on batean, hori bai, baina igogailurik gabe; seme elbarritua zeuka-  
ten, eta seme hori kalera ateratzeko, egunero besoetan jaitsi eta igo beharra  
zeukatzen ezinbestean.

Esleipen prozesu horietan etxebizitzak erreserbatzeko kupoak oso gutxi-  
tan erabili direla talde batzuen alde ere eztabaidatu da, eta horixe da elbarrien  
egoera. Horientzat, Gizarteratzeko 13/1982 Legeak 57. artikuluan sustapen  
bakoitzeko etxebizitzaren %3 beraienzat gordetzeko eskubidea aitortzen du.

Askotan agertzen den beste arazo bat etxebizitza sozialetako eraikuntz  
akatsengatik dauden ardurena da. Akats horiek, etxea erosi duenak bizitzen  
jartzen denean aurkitzen ditu, eta une horretatik aurrera hasten dira agertzen  
pitzadurak, hezetasunak, iragazpenak sapaletan, keen irteeretan ihesak eta  
eraikuntzako beste akats batzuk.

Etxe erosle edo auzotar-elkartearen salaketak daudenean, Etxebizitzarako  
lurralde ordezkariak zigor-espeditenteak bideratzen dituzte sustatzailearen  
kontra, isunak jartzen dizkiete eta, gainera, eraikuntzan egindako okerrak kon-  
pontzera behartzen dituzte. Sustatzaile horiek, ordea, ez dute agindua betetzen  
eta Administrazioak ez du lortzen egin beharreko konponketak burutu ditza-  
ten.

Lege-arauz har daitekeen baina erabiltzen ez den beste bidea hauxe da:  
Administrazioak sustatzailearen kontura haren ordezkariak egitea. Horregatik,  
batzuetan kaltetuek bere konpondu behar dute beraiei ez zegokien arazoa  
Administrazioak gai horretan esku hartzen ez duelako.

Arazo horiek guztiak, Arartekoari 1989 eta 1993 urteen artean aurkeztu zaizkion 167 kexetan isladatu dira.

Aldi berean, erraklamazio horiek zirela medio, Arartekoak 11 gomendio-idatzi bidali dizkio Administrazioari bere irizpideak aldatu eta kexa-aurkezleen nahiak aintzat hartuko dituen ebazpena eman dezan eskatuz.

Arazo zehatzak alde batera utzi eta ikuspegi zabalago batetik ere aztertu du Arartekoak etxebizitzaren arazoa. Horrela, Erakundeak urtero Eusko Legebiltzarrari aurkezten dizkion txostenetan, iradokizun eta gomendioen sailean, urtez urte balorazio eta arau izaerako proposamenak egin dira Administrazioaren jardura aldatzeko, eta horietako batzuk ondorengoak dira:

